



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

PATIO HEZIGARRIAGO BATEN

BILA MOTRIZITATEAREN

ESKUTIK

Lehen Hezkuntzako Gradua

Gradu Amaierako Lana (GrALa)

Egilea: Sorga Amboage, Lara

Zuzendaria: Etxeazarra Escudero, Ibon

2019

LABURPENA

Patioa atsedeen hartzeko eta jolasteko espazio eta denbora libre da, askatasunarekin eta kirol praktikarekin lotu egiten dena. Baina jolastokia ez da hutsarte bat izan behar, hori baino askoz gehiago delako, espazio eta denbora hezitzailea hain zuzen ere. Gaur egungo patioek estandarizatutako instalakuntza eredu zaharritua jarraitzen dutenez kolore gabekoak, naturatik urrun daudenak, monotonoak, parte hartze motor baxua dutenak, futbol-zentrikoak eta jolasteko aukera gutxi eskaintzen dituztenak izaten dira; hau da mugatuak daude. Beraz lan honen helburua patioaren ikuspuntua eta horren konfigurazioa kolokan jartzea da, aldaketa beharra dagoela sinetsiz eta horren alde eginez. Kirol inbasioa gertatu izan da ikastetxeetako jolastokietan, genero desberdintasunak, harremanen mugaketa eta kultura motorraren pobretzea eraginez. Horregatik, patioa hezigarriagoa bihurtzeko irizpide batzuk azaldu egingo dira, modu kolektibo batean patioa transformatu ahal izateko. Hori lortzeko beharrezkoa da hezkuntza komunitate guztiak prozesu parte-hartzailea aurrera eramatea. Ondorioz, lanean motrizitatearen eskutik eraldaketak materializatu ahal izateko estrategia zehatzak azaldu egingo dira, horiek aurrera eramanez gero eta ikerketek dioten bezala aipatu izandako bestelako arazoak konpondu egingo dira, jolasleku hezitzailea, parte-hartzailea, motorki aktiboa, sozializatzailea, hezkidetzaila eta inklusiboa lortuz, haurraren garapen integralean lagunduko duena.

Hitz gakoak:

Patioa, jolas libre, denbora hezitzailea, motrizitatea, jarduera fisikoa eta hezkidetzak.

ABSTRACT

The playground is a free space and time to rest and play, it is related to freedom and sports practice. But recess does not have to be a time-out, it's much more than that, it's certainly an educational space and time. The playgrounds of today have a standardized installation and follow an old model, they have no color, they hardly have any nature, they are monotonous and soccer-centered, they have a low motor participation and offer few game options; that is, they are limited. That is why the objective of this work is to question that point of view and the configuration of the playground, believing that a change is necessary and working in favor of it. There is an invasion of sport in school playgrounds, which causes gender inequalities, limitations in relationships and impoverishes the motor culture. Therefore, some

criteria will be explained in order to transform the playground in a collective way and turn it into an educational space. To achieve this, it is necessary for the educational community to carry out a participatory process. Consequently, this dissertation will explain specific strategies to materialize changes from the mobility, in that way and according to researches, other problems mentioned above will be solved, getting an educational, participatory, coeducational and inclusive playground with an active mobility and a good offer for socialize, which will help the integral development of the child

Key Words:

Playground, free play, educational time, motor skills, physical activity and coeducation.

RESUMEN

El patio es un espacio y tiempo libre para descansar y jugar, se relaciona con la libertad y la práctica deportiva. Pero el recreo no tiene que ser un tiempo muerto, es mucho más que eso, ciertamente es un espacio y tiempo educativo. Los patios de hoy en día tienden a disponer de una instalación estandarizada y siguen un modelo viejo, no tienen color, sin apenas naturaleza, son monótonos y fútbol-céntricos, tienen una participación motora baja y ofrecen pocas opciones de juego; es decir están limitados. El objetivo de este trabajo es poner en duda el punto de vista y la configuración del patio, creyendo que un cambio es necesario y trabajando a favor de este. Hay una invasión del deporte en los patios de los colegios, que causa desigualdades de género, limitaciones en las relaciones y empobrece la cultura motriz. Por ello se pretende exponer criterios concretos para poder transformar el patio de una manera colectiva y convertirlo en un espacio educativo. Para conseguirlo es necesario que la comunidad educativa lleve a cabo un proceso participativo. En consecuencia, en este trabajo se presentan estrategias específicas para materializar cambios desde la motricidad, que según defienden las investigaciones recientes, pretenden contribuir a resolver los otros problemas antes mencionados, consiguiendo un patio educativo, participativo, motrizmente activo, socializador, coeducativo e inclusivo, que ayude al desarrollo integral del niño.

Palabras Clave:

Patio, juego libre, tiempo educativo, motricidad, actividad física y coeducación.

SARRERA

“Patio hezigarriago baten bila motrizitatearen eskutik” izendatua izan den Gradu Amaierako Lan hau sortua izan da, uste eta sinisten dudalako benetan patioan mugimendua handitzeko beharrezkoak diren aldaketak eginez gero, espazio hezigarriago batean bilakatuko dela.

Proposamen honek, hezkuntza komunitate osoari hausnarketa lana eragin nahi die, ikasle, guraso, irakasle eta hezitzaileak ez diren bestelako parte hartzaileei. Lan osoan zehar gaur egun patioen inguruan dagoen benetako errealitate tamalgarri eta tradizionalaren aurkako pentsaera berritzailea sustatu nahi da.

Lanak ez du betiko GrAL baten itsura jarraitzen, bilaketa bibliografiko sakona egin ostean txosten moduko bat sortzea lortu dut, hiru atal desberdinetan antolatu eta banatu dudana. Lehenengo atal batean *“Patia jo puntuan”* patioari definizio bat bilatuko zaio eta horren gaur egungo egoera azalduko da. Bigarrenengo atal batean, *“Beste patio hezigarriago bat posible bada”* deiturikoan, nire *proposamen pertsonala* azalduta agertuko da. Azkenik, hirugarren atal bat *“Azkenengo erreflexio baterako lekua”* izendatutakoa agertzen da, non patio hezigarri eta egokiaren onurak aipatu eta lana bukatu ostean ateratako ondorio nagusiak azalduta agertuko diren.

Benetan sinisten dut lan honetan proposatu egiten dudana praktikan jartzeko aukera badagoela, GrAL hau ez dela utopia bat, bideragarria dela eta benetan patio hezigarriagoak lortu daitezkeela. Horretarako hurren motrizitate ehunekoak igotzeko estrategiak aurrera eramane beharko dira, noski! Mugimendua izango da, genero desberdintasuna, askatasun falta, harremanetarako zailtasuna, ikasteko eta jolasteko aukera murrizak ... bezalako arazoak konponduko dituena. Hortaz, goazen patioak motrizitatea neurtzen duten betaurreko bereziekin ikustera. Bakarrik horrela konturatuko gara aldaketa baterako oihua izugarria dela.

Patio hezigarriagoak lortu ditzagun!

AURKIBIDEA

1. ATALA: PATIOA JO PUNTUAN

	Or.
1. <u>ZER DA PATIOA ESKOLA BIZITZAN?</u>	<u>6 - 12</u>
1.1. Kontzeptualizazioa	6 - 7
1.2. Patioaren errealitatearen eboluzioa	7 - 10
1.3. Jolasa eta patioa	10 - 11
1.4. Jolastokia eta motrizitatearen arteko lotura	11 - 12
2. <u>GAUR EGUNGO PATIOEN ERREALITATEA</u>	<u>12 - 27</u>
2.1. Kolokan jartzeko konfigurazio bat	14 - 15
2.2. Kirol inbasioaren ondorioak	15 - 22
2.2.1. <i>Genero desberdintasuna</i>	15 - 18
2.2.2. <i>Harremanen mugaketa</i>	18 - 19
2.2.3. <i>Kultura motorraren pobretzea</i>	19 - 22
2.3. Beste errealitate bat ere posible bada	22 - 27
2.3.1. <i>Euskal Herria mailan</i>	23 - 25
2.3.2. <i>Espainia mailan</i>	25 - 27

2. ATALA: BESTE PATIO HEZIGARRIAGO BAT POSIBLE BADA: PROPOSAMEN PERSONTALA

3. <u>ERALDAKETA BAT BIDERATZEKO OINARRIAK</u>	<u>28 - 45</u>
3.1. Patioa hezigarriagoa bihurtzeko irizpideak	28 - 38
3.1.1. <i>Parte-hartzailea</i>	29 - 31
3.1.2. <i>Hezkidetzzailea</i>	31 - 33
3.1.3. <i>Aktiboa</i>	33
3.1.4. <i>Zonalde desberdinak</i>	33 - 34
3.1.5. <i>Pilotekin jolasteko espazioaren mugaketa</i>	34 - 36
3.1.6. <i>Jolas arriskutsua</i>	36 - 38
3.2. Daukagun patioaren azterketa sakona	38 - 44
3.2.1. <i>Patioa aztertu</i>	39 - 40
3.2.2. <i>Patioa ezagutu</i>	41
3.2.3. <i>Patioa ulertu</i>	41 - 42
3.2.4. <i>Patioa imajinatu baliabideak aurreikusiz</i>	43 - 44
3.3. Modu kolektiboan transformatu	44 - 46
3.4. Ondorioak eta ebaluaketa	46

4. <u>ESTRATEGIA ZEHATZAK MOTRIZITATEAREN ESKUTIK ERALDAKETA</u>	
<u>MATERIALIZATZEKO</u>	<u>46 - 63</u>
4.1. Joko motor desberdinak gehitzea	48 - 49
4.1.1. <i>Labirinto eta gurpildun estrukturak</i>	48 - 49
4.1.2. <i>Egurrezko eta oholezko estrukturak</i>	49 - 50
4.2. Naturazko espazioak jartzea edo handitzea	50 - 53
4.2.1. <i>Terrariumak eta areazko kutxak</i>	51 - 52
4.2.2. <i>Ura</i>	52
4.2.3. <i>Baratza</i>	53
4.2.4. <i>Lastozko blokeak</i>	53
4.3. Patioaren espazio bertikalari probetxua ateratzea	53 - 56
4.3.1. <i>Pareta sortzaileak</i>	53 - 54
4.3.2. <i>Arbelak</i>	54
4.3.3. <i>Rokodromoa</i>	54 - 55
4.3.4. <i>Abakoak</i>	55
4.3.5. <i>Pareten apaintzea</i>	55 - 56
4.3.6. <i>Lorategi bertikala</i>	56
4.4. Lasaitze eremuak	56 - 60
4.4.1. <i>Jolas sinbolikoa eta sortzailea</i>	57 - 58
4.4.2. <i>Mahai jokoak eta adimen motorra</i>	58 - 59
4.4.3. <i>Etxeak, etxolak eta gotorlekuak</i>	60
4.5. Lurra mihise hoberena!	60 - 62
4.5.1. <i>Birziklapena eta jarduera fisikoa</i>	61
4.5.2. <i>Korridoreak eta patioa armonian</i>	61 - 62
4.5.3. <i>Bestelako ikasgaiekin erlazioa</i>	62
4.6. Eremu librea ezartzea	63

3. ATALA: AZKENENGO ERREFLEXIO BATERAKO LEKUA

5. <u>LORTUKO GENITUZKEEN ONURAK</u>	<u>64 - 66</u>
6. <u>ATERATAKO ONDORIO NAGUSIAK</u>	<u>66 - 67</u>

1. ZER DA PATIOA ESKOLA BIZITZAN?

1.1. Kontzeptualizazioa

Jolasteko patioak, kokapenaren, jolasteko materialaren, funtzioen eta xedeen arabera aldatzen dira. Gradu Amaierako Lan honetan hain zuzen ere, patioak edo jolastokiak, haurren jolaserako hautatutako, erreserbatutako, sortutako eta diseinatutako kanpo espazioak izango dira (Frost, 2012).

“Patioa ikastetxearen eraikinetik kanpo dagoen haurrentzako atsedeen espazioa da” Pellegrini eta Smithen aburuz, gainontzeko eskola egunarekin konparatuta, patioan umeez askatasunaz gozatzen dutelako, beraiek baitira zer eta norekin egin hautatzen dutenak (Serra, 2014). Beste modu batean esanda, jolastokia ikasleen espazio-denbora testuingurua da, non jolasteko eta mugitzeko askatasuna duten, eguneroko ohiturak apurtzeko leku egokia. Bertan haurrek beraien joko propioak antolatzen dituzte, arauak hautatuz eta bakoitzak rol bat hartuz (Jarret, Farokhi, You eta Davies, 2001 in Contreras, Prieto, Leon eta Infantes, 2018).

Espainiako hezkuntza sisteman, eskola gehienetan, eskola-aisialdia edo beste hitz batzuekin jolas ordua eguneko ordu erdikoa izan ohi da, zeinetan ikasleek patioan igarotzen diren (Contreras, Prieto, Leon eta Infantes, 2018; Auzmendi et al., 2018). Eguneko 30 minutu izanda, kurtso osoan zehar 525 ordu inguru egoten dira ikasleak jolastokian (García, 2016).

Baina denbora horretaz gain, eguerdi partean ere haur asko eskolako jantokian geratu ohi dira bazkaltzen, eta beraz, beste bi ordu inguru pasa ohi dituzte patioan. Gainera ikastetxe batzuetan, eremu hori bera gorputz heziketa egiteko erabiltzen dute; eta badira kasuak arratsaldeko aisialdi orduetan ere espazio berbera erabiltzen dutenak. Beraz, eskola-egunetan umeez bi ordu eta lau ordu artean igaro ditzakete eskolako patioetan; beste edozein arlo kurrikularrari eskaintzen zaion adina denbora edo gehiago (Auzmendi et al., 2018; García, 2016). Horregatik, merezi du haurrek patioan barneratzen duten guztiaren inguruan gogoeta egitea (Auzmendi et al., 2018; García, 2016).

Espazio hori definitzea ez da batere erreza, aditu asko saiatu egin dira definizio formal bat ematen. Baina bakoitzak bere ikuspegiaren aldetik egin du, oso zaila da definizio finko bat ematea, Virginia Navarro Martinezek dioen moduan *“patioa espazio poliedrikoa delako, hau da alderdi asko dituena”*. Gainera eskolako parkea eszenatoki publiko baten eta eskola eraikin baten ohiturak uztartzen dituen eszenatoki konplexua dela dio (Antolín et al., 2017).

Jolastokiak jolaserako, atsedenerako, jarduera fisikoa egiteko, harremantzeko, sozializatorako eta elkarbizitzarako aukera paregabeak eskaintzen ditu, baita jarduera

espontaneoak emateko ere; eta dibertsitatearen errespetua (kultura, etnia, adina, sexua, funtzionala, etab.) eta ekitatea zehazten ditu (Antolín et al., 2017; Segura del Pozo, 2017; Serra, 2014). Horregatik hain zuzuen ere, da hain garrantzitsua eskolako patioaren egituraketa eta bertan egiten diren ekintza eta jokoak aztertzea, gure ikasleen portaera eta ekintzetan islatu egingo delako.

Patio ordua ezin da sari bezala ikusi, baizik eta haur guztientzako beharrezkoa den hezkuntza-laguntza gisa. Jarret eta Waite- Stupianskyren (2009) ustez patioa eskubide bat da eta ez pribilegio bat. 2005. urteko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko 31. Artikuluak honela dio: *“Estatu alderdiek umearen atsedean eta aisialdirako, jolasteko eta haien adinari egokitutako jolas-jardueretan eta, era berean, kulturen eta arteetan parte hartzeko eskubidea onartzen dute”* (or. 36). Hortaz, ikasle bati zigor gisa patio ordua kentzea ez da bidegabea, baizik eta alferrikakoa (Chaves, 2013).

Espazio hauen garrantzia handia den arren, gune gogorak eta estandarizatuak izaten dira, umeen eta eskolako komunitatearen desioak eta beharrak islatzetik urrun daudenak. Honek gatazka eta problematika zehatzak ekartzen ditu maiz: *“jolas eta erabilera batzuk besteak baino garrantzi gehiago hartzea, espazioaren erabileran eta okupazioan berdintasunik eza eragitea...”* (Antolín et al., 2017). Espazio honetan harremanak sortzen dira, afinitateak, baztertzeak eta bakardadeak ikusten dira eta generoaren rola irudikatzen dira (Segura del Pozo, 2017).

Askotan, eskolako patioak ez dira behar bezala diseinatu ezta pentsatu eta kasu gehienetan diseinu falta daukate. Ondorioz, ez dira aniztasunarekiko errespetuan eta berdintasunean oinarritutako kalitatezko harremanak eta esperientziak bultzatzen (Antolín et al., 2017).

Beraz, jolastokia ikastetxearen bizitzaren isla denez, bertan egiten diren eraldaketen emaitzek horko pertsonen hazkunde indibidual eta kolektiboa adieraziko dute (Cols eta Fernández, 2016). Arrazoi horregatik azkenaldian interes handia piztu da guraso, irakasle eta ikasleen artean eskolen jolastokiak berrikusteko, horiek ondo pasatzeko eta naturan ikasleriaren artean harremantzeko, espazio hezitzaile bezala ikusiz (Lafuente eta Horrillo, d.g.).

1.2. Patioaren errealitatearen eboluzioa

Patioen ikuskera eta eraikuntzari dagokionez historian zehar autore desberdinek ikuspuntu anitzak izan dituzte eta etapa desberdinak banatu izan dituzte, hona hemen azkenengo hiru mendeak erreparatuz historian zehar egon izan diren patioen inguruko mugimendu desberdinen laburpena.

XIX. mendearen lehenengo hamarkadan Gutsmuthek Alemanian lehenbiziko aldiz jolasa aire librean eta entrenamendua proposatu zituen, momentu hartan haur nagusientzako aire libreko gimnasioaren ideia sortu zen. Jolas goiztiarraren mugimenduak kondizio fisikoaren, osasunaren eta gai nazionalisten eragina izan zuen. Adibidez, beharrezkoa ikusten zen mutilek kondizio fisiko egokia izatea zerbitzu militarretarako eta emakumeak ama osasuntsuak izateko eta seme alaba indartsuak eta gaixotasun gabeak izateko (Curtis, 1917 in Frost, 2012).

Mende horren erdialdean mugimendu higienistaren aldarrikapenak egon ziren eta patioaren helburu bakarra, klase teorikoek ikasleei eragindako neke intelektuala konpentsatzea zen (Costa eta Silva, 2009; Eusko Jaurlaritza, 2013 in Garay, Vizcarra eta Ugalde, 2017).

Scholarpedia deituriko online entziklopedian aipatu egiten da Froebel, haur txikientzako lehenengo jolastokien sortzailea izan zela Alemanian Rousseau, Pestalozzi, Luther eta beste pertsonaia garrantzitsu batzuen eraginez XIX. Mendearen azken laurdenean. Berarentzat jolasa garapen fisiko edo sozialaz haratago zihoan eta haurraren garapen integrala lortzeko balio zuen. Gainera autore honek haurren garapen "*naturala*" gertatzeko jolaslekuen oinarriak sortu zituen (Froebel, 1887 in Frost, 2012).

Mende horren azkenengo hamarkadetan Estatu Batuetako Hezkuntza Bulegoak, onetsi zuen eskoletako patio gehienek ez zirela batere berritzaileak eta oso arriskutsuak zirela, beraz ez egokitzat izendatu zituen. Hortaz, Curtisek jolastoki handiagoak, jolasteko ondo egokituak, ikuskatuak eta publikoari irekiak eraikitzea gomendatu zuen (Frost, 2012).

80.ko hamarkadan Von Schenckendorff lider politiko alemanak jolaslekuetan areazko tontorrak jarri zituen (Sapora eta Mitchell, 1948 in Frost, 2012). Hortik sortu izan ziren Estatu Batuetako lehenengo patio ikuskatu eta antolatuak, ondorenez ume txikientzako jolas serioaren mugimendua sortu zen (Playground and Recreation Association of America, 1915 in Frost, 2012).

Haurrentzako jolastokiak gimnasia-ariketa bezala asmatu egin ziren baina XX. Mendean konturatu ziren, beharrezkoak zirela haurren aisialdian eta jolastoki horiek eskoletako patioen funtsezko zati bat bihurtu ziren (Lafuente eta Horrillo, d.g.). Aparaturik eta metodorik onenak eta efektiboak aurkitze aldera gainbegirada zehaztea beharrezkoa zen; beraz, "*jolas modeloaren*" patioak sortu ziren (Lee, 1902 in Frost, 2012).

Patioak diruztatuak izan ziren taldearen eta espazioaren gainbegirada izateko eta espazioak antolatutako joko eta kirolak egiteko. Adibidez oso famatua izan zen haur txiki zein nagusientzako prestatutako Jane Addamen Hull House patioa (1809), Chicagon. Horrek area, kulunkak, eraikitze blokeak, eserlekuak, saskibaloiko eta beisboleko kantxak ... zituen.

Gainera patioa poliziak eta hezitzaile arduradun eta esperimentatu batek gainbegiratzen zuten (Rainwater, 1922, 56 p.p.; Lee, 1902 in Frost, 2012)

Beraz, 1900 eko hamarkadan Dewey eta Froebelek proposatutako jolas librearen inguruko filosofia eta bestelako pentsalariak azaldutako gidatutako jolas eta jokoen arteko debateak egon ziren International Kindergarten Batasunean.

Patioen ekipamenduaren fabrikatzaileak agertzen hasi ziren eta patioek jarduera fisikoa egiteko tresnak eta areazko pilak izateaz gainera kulunka, eskalada eta irristatzeko aparatuak izaten hasi ziren poliki-poliki. Patioen egituraketari dagokionez espazio bat kirolak (saskibaloia, futbola eta beisbola) egiteko erabiltzen zen eta beste bat libre uzten hasi zen bertan jolas desberdinetara jolastu ahal izateko. Horretaz gain, liburutegiak, naturazko espazioak edo eta jolas lasaiak aurrera eramateko espazioak agertzen hasi ziren eskola gutxi batzuen patioetan (Frost, 2012)

Carl Theodor Sorensen arkitektoak *“jolas orduko patioaren”* kontzeptua 1936.urtean proposatu zuen lehendabiziko aldiz, patio mota horiek jokoen lider entrenatuak zituzten. Jolasleku horien ideia nagusia haurren sormena erdigunean jartzea zen, haurrak jolasen gidariekin batera jolasteko zona desberdinen sortzaileak izango ziren beraien gustukoak ziren elementuak hautatuz, modu horretan espazioen eraikitzaileei garrantzia kenduz (Brown, 2008 in Frost, 2012). Mugimendu horri aurrerago *“abenturen patioa”* deitu izan zitzaion, Hoganek (1974) esan zuen bezala *“ikastetxe bateko patioak exitoa izan dezan, erabili egingo duten erabiltzaileak, hau da haurrak, izan beharko dira horren sortzaileak, modu horretan umeak eta helduak elkarlanean arituko dira patioa aurrera eramateko”* (Frost, 2012).

1950 eta 1970. urteen tartea fantasiaren aroa izan zen, arkitektoek eskultura berritzaileak eta fantasiakoak sortu zituztelako: garraiobide eta animalien forma emanaz, labirintoak eta tunelak jarritz... (National Recreation Association, 1954, 1957 in Frost, 2012) hau da jolasteko zelai sormentsu berriak eraiki eta lehendik zeuden patioen berritzea egin zen. (Crawford, 1956 in Frost, 2012). Horretarako urteetan eta urteetan zehar erabili izan zen altzairua, plastikoarengatik edo egurrarengatik ordezkatu egin zen.

XX. mendeko 70 eta 80-ko hamarkaden artean patioak egokitzapen esperientzietan oinarrituta egon ziren eta *“estandarizatutako jolas patioak”* agertu ziren, urte horietan kezka handia sortu zelako *“abenturazko patioetan”* izan zitezkeen lesioen inguruan. Horregatik nazioarteko estandarizatutako segurtasun neurri batzuk hartu eta arau batzuk egin ziren (Kutska, 2011 in Frost, 2012).

Behin patioa izatearen beharra zegoela onartu ostean maila bat gorago joan ziren, eta egokitzapen batzuk egitea beharrezkoa zela konturatu ziren eta XXI. mendean patioen *“garai modernoa”* hasi zen. Jolaslekuen historian garairik konplexuena eta zabalena ikerketaren

esparrutik eta parte-hartze profesionaletik eta berrikuntzatik ikusita. Mende aldaketarekin jokoarentzako, osasunerako eta ikaskuntzarako paisaia integratuak sortu egin ziren eta gaitasun desberdineko haurrentzako egokituak (Frost, 2012).

Monotoniaren aurkako patio sormentsuaren alde egiten ari da, mende honetan jokoa hobetzea bilatzen delako, modu horretan kondizio fisikoa, osasuna, burmuina eta gorputza hobetzeko (Frost, 2012). Horretaz gain, hezitzaileek patioen dinamizazio eta animazio esperientzietan arreta jartzen ari dira (Costa eta Silva, 2009; Eusko Jaurlaritzak, 20013 in Garay, Vizcarra eta Ugalde, 2017).

Baina egia da geroz eta gehiago direla aire librean jolasten ez duten umeak eta horregatik hezitzaile eta guraso batzuk hezitzaileagoak eta motrizitatearen aldetik aktiboagoak diren jolastokien alde egiten ari dira.

Historian zehar ikusi bezala, jolasean aritzeko forma desberdinak agertu dira, nahiz eta bere funtsa urteak pasa ahala bera mantendu egin den: patioek zenbait eraikuntza dituzte, non umeek joko abstraktuak garatu ahal dituzten (Lafuente eta Horrillo, d.g.).

1.3. Jolasa eta patioa

Garai batean haurren jolastoki nagusia kalea zen, hura zen jolasaren oinarritzko eszenatokia eta bertan ematen ziren errealitatea esploratzeko aukera eta bideak. Gaur egun, jolaserako kanpo espazioaren erabileran kaleak lehen zuen pisua galdu du eta haren lekua ikastetxeetako jolastokiak hartu du kasu askotan (Vives eta Galarraga, 2015).

Virginia Navarrok dio *“gaur egun eskola- patioek inoiz baino garrantzi gehien eskuratu dute gizartean, haurtzaroko historia osoan zehar lehen aldiz jolas librea desagertu delako eta horren ondorioz hurrek naturarekiko duten harremana asko murriztu dute”* (Antolín et al., 2017). Haurren Jokoen Politika Foroak (mundu osoko jokoen inguruko Erresuma Batuko espezialistek osatuta) haurtzaroan krisi bat dagoela ohartarazten du, bizitza modernoak jolasa murriztu duelako, batez ere aire librean egiten den hori. Errealitate horrek umeen hazkunde naturala eta jolasterakoan gertatzen den garapena mugatzen ditu (Play England Freedom to play, 2019).

Errealitate horrek azkenengo hamarkadetan haurtzaroko autonomia gutxitzea ekarri duenez, indarra hartu du patioaren gai hau, gidatu gabeko jolas autonomo giza ikusiz eta haurtzaroaren garapen aktibo eta osasuntsua aurrera eramateko beharrezkoa den espazio bezala (García, 2016).

Jolasa funtsezkoa da haurren garapenean; zentzumenak estimulatzeaz gain, garapen intelektuala suspertu, emozio positiboak indartu eta komunikazio eta gizarteratze tresnak sendotzen laguntzen duelako. Beraz, jolastea ezinbestekoa da haurraren izaeraren eta

gorputzaren eraikuntzarako (Vives eta Galarraga, 2015) eta gainera esan daiteke jolasteak haur zoriontsu eta osasuntsuak eraikitzen dituela (Play England Freedom to play, 2019).

Aipatu bezala eta *“Cuaderno de maestra”* blogean aditzera ematen den moduan, jolastea haurren bizitzarako funtsezkoa da eta eskolako jolaslekuari esker ikasleek bertan denbora libreaz gozatu dezakete. Sarritan, familiek astean behin soilik lagundu ditzakete seme-alabak parkera, hortaz ez daukate denbora askorik eskolaz kanpoko beste umeekin elkar-eragiteko. Baina eskoletan egunero eskaintzen zaio patioa den kanpoko espazio horri denbora xume bat aisialdirako.

Espazio ireki hau neska-mutil askorentzako egun osoan zehar jolasteko eta bertan lagunekin elkar eragiteko duten leku eta momentu bakarra da. Gainera eskolako patioa ume askok bizi eta esperimentatzen duten lehendabiziko espazio publikoa da (Antolín et al., 2017).

Aipatutako jolas libre hori, eskola ordutegiaren barruan egonik, ezin dugu *“hutsarte”* edo *“deskantsatzeko denbora”* bezala ikusi, eskola jardueraren elementu bat gehiago bai da. Hortaz, irakasleen ikuspuntutik jolastokia ezin da zaintzarako leku bat izan, espazio hezitzailea baizik, non ikasleek beraien gaitasunak garatzeko aukera izango duten (Mazón eta García, 2005). Umeek patioan jolasten duten bitartean, plazerraren laguntzaz hezi egiten dira, jolastokiak elementu psikomotriz, soziomotriz eta harremanetakoak dituelako eta horiek ikaslearen izaera garatzen laguntzen dutelako (Mazón eta García, 2005).

1.4. Jolastokia eta motrizitatearen arteko lotura

Askatasun gutxi ematen zaie haurrei, ondorioz ez daukate jolas librea egiteko aukerarik. Hortaz aurreko puntuan esandakoagatik joko motorrak indarra galdu duela ondoriozta daiteke, haurrak ez dute kalean lehen bezain beste jolasten. Umeei gehiegizko babes ematen zaie, ez zaie helduen gainbegiradarik gabe jolasten uzten eta horrek haurren garapen integralean eragina dauka. Horregatik patioak haurrei mugimenduan egoteko aukera emango die, garapen egokia izan dezaten.

Mugimendua garapenaren alderdi garrantzitsuenetako bat da bizitzako lehen urteetan. Gure mugimenduak bakarrak dira eta horregatik garenaren zati bat dira. Besteekin eta munduarekin elkar-eragiteko aukera ematen digute eta ikasteko oinarri dira (Andrés, 2017).

Haur batek bere mugimenduak ingurunetik zentzumenen bidez xurgatzeko gai izan denaren arabera garatzen ditu, horregatik oso garrantzitsua da eskola jolastokia behar bezala diseinatzea umeen mugimendu guztiei erantzun ahal izateko (Andrés, 2017). Modu honetan jolastokiaren eta motrizitatearen arteko loturaren garrantzia defendatua gelditzen da.

Gaitasun pertzeptibo motorrak hobetzeko biderik onena eta naturalena jolasa da eta patioan jolasa uneoro agertzen da. Joko eta jolasak umei ingurumena ulertzeko eta horrekin elkar eragiteko aukera ematen die mugimenduen bitartez eta zentzumen guztien

erabilerarekin. Garapen pertzeptibo motor on batek kirol arrakastak, hartu eta pentsatu beharreko erabakiak, garapen akademikoa eta lorpenak bultzatzeaz gain, kideekin elkarrekintza soziala sustatzen du baita ere (Wortham eta Frost, 1990).

Eskola-giroak aukera ugari eskaini ditzake haurrak aktiboagoak izateko, horien artean modu formalean Gorputz Hezkuntzako klaseetan eta modu informalean patio orduetan (Slingerland eta Borghouts, 2011 in Murillo et al. 2014). “*Osasunerako Hezkuntza*” ez da bakarrik G.H.-ko hezitzailearen betebeharra, baizik eta hezkuntza komunitate osoko sostengupean egon beharko litzateke (familia, osasun sistema eta eskola) ikasle guztiei mezu argi eta finko bat alaraziz, osasunaren zaintza sustatzea elikadura osasuntsu eta eguneroko jarduera fisikoarekin (Fernandez, Muñoz eta Navarro, 2015).

2. GAUR EGUNGO PATIOEN ERREALITATEA

Ikasle, irakasle nahiz gurasoen artean, badago patioen erabileraren inguruko kezka; “*patioek, benetan, haurrak dituzten premiei erantzuten ote diete? Zein balio gailentzen dira testuingu horretan? Zer-nolako jolasak, kirolak eta ikaskuntzak indartzen dira? Zer-nolako rolak erreproduzitzen dituzte horietan ikasleek? Zer-nolako harremanak izaten dituzte? Adin guztietarako baliagarriak eta egokiak ote dira?...*” (Auzmendi et al., 2018) bezalako galderak agertu egiten direlako. Horiei erantzun bat bilatze aldera, hoberena patioa den espazio eta denboraldia aztertzea izango da.

Ikastetxe bat buruan irudikatzerakoan, beti dago barruko espazio bat, ikasgela itxiek osatzen dutena, non ikasgai desberdinen inguruko klase magistral desberdinak ematen diren. Gero, bestelako espazio ireki bat dago, patioa, non gela barruan hainbeste ordu eserita eta geldirik egon ostean pilatutako energia guztia askatzen den, bertan energia guzti hori lehertu egiten da, kanporatu egiten da. Mugimendu askoko denboraldia da atsedendia eta maiz burrundara eta nahas-masa handikoa, horregatik oso ohikoa da denbora horretan gatazkak gertatzea (Cols eta Fernánde, 2016; Auzmendi et al., 2018). Horien artean, batzuetan indartsuen gehiegikeria edo jazarpena gertatzen da, non beti indartsuek nahi dutena lortu egiten duten. Horrelako jazarpenak bullying arazoak ekar ditzakete (Cols eta Fernánde, 2016) hortaz patioan sortzen diren harremanen inguruan oso adi egoteko beharra dago.

Egungo eskola gehienetako patioaren argazkia antzekoa da (Cols eta Fernánde, 2016) espazio sinplifikatua eta homogeneoa eta zaharkitutako instalakuntza modelo bat jarraitzen duena (García, 2016). Mikel Olaizolaren hitzetan “*ikastetxetan zementuzko jolastoki gogor eta hotzak egoten dira*” (Antolín et al., 2017). Oro har, asfaltoz eta hormigoiz osatutako espazio lauak, lur pixka batekin edo zuhaitz batzuekin (Cols eta Fernánde, 2016), monotonoak, naturatik oso urrun daudenak, berdegune eta landaretza, itzal, sozializazio eta jolasteko

aukera gutxirekin edo aukera gabeak (Cols eta Fernánde, 2016; Furedi, 2001 in García, 2016).

Jolastokia mugatua dago eta nagusiki hezitzaileek kontrol egokia izan dezaten diseinatu egoten da; hau da, ez ditu bizipen egokiak eragiten, ez die ikasleei esperimintatzeko eta ikertzeko aukera anitzak ematen, ezta jolastu bitartean ikaskuntza bat eraikitzeko.

Estandarizatutako ereduak errepikatzen da han eta hemengo patioetan, kontuan izan gabe zein testuingurutan dagoen eskola (Auzmendi et al., 2018). Gure herrialdean, eskoletako patio gehienek hezkuntzaren ikuskera tradizionalari erantzuten diote: atsedenerako eta kirol praktikorako espazioa. Pentsaera honek dio hezkuntza bakarrik eskola barruan irakasten dela eta ikuskera hori denborarekin sustatzen joan da (Cols eta Fernánde, 2016) tamalez. Hogeitahamar minutuko atsedeen azkarrak ez dauka inolako zentzurik gaur egungo hezkuntza sisteman, zentroen proiektu pedagogikotik at egoten delako.

Haurrentzako eremu horrek hezkuntza-instalaketan artean garrantzi gutxien hartzen duena da (Furedi, 2001 in García, 2016); ondorenez, eskaintzen dituen jokoez ez diete haurren rol eta beharrei erantzuten (Cols eta Fernánde, 2016), ezta ikastetxeen behar pedagogikoei. Hori gutxi balitz, ez du eskola-garapenaren fase desberdinetan arretarik jartzen eta horregatik guztiagatik ez dago haurtzaroaren beharretara egokitua (Furedi, 2001 in García, 2016).

Espazioaren antolaketak, dinamika batzuk sortzen ditu, eta espazio edo gune desberdinak sortzeak ume bakoitza non, zertan, norekin ... ibili erabakitzea eragiten du. Antolakuntza horrek adin ezberdinetako umeak gehiegi ez nahastea eragiten du, bakoitzak espazio zehatz batean bere tokia izendatuta izango balu bezala (Antolín et al., 2017).

Schwartzek haurren inguruan hitz egiten duen web-gune batean dioen moduan haurrak patioan beraien sexu bereko ikaskideekin batzeko ohitura daukate normalean eta hori zientifikoki frogatuta dago. Julie Delalandek azaltzen duen bezala 4-5 urte bitarteko hurrek ez dute oraindik gizarteak kontrako sexuaren inguruan dituen tabuak bereganatu, baina 8-9 urte bitarteko umeek gure kulturak sexu bakoitzari esleitzen dizkion rola bereganatu egiten dituztenez, patioan aritzeko sexuka bereizten hasten dira.

Espazioak norbere nortasuna kudeatuko du, bakoitzaren eta besteen arteko mugapen fisiko eta psikologikoak sortuz (Saldaña, 2018). Espazioaren diseinuaren atzean beti dago erabileraren ikusmolde bat eta eskola-patioen kasuan nabarmena da zer aktibitate gailentzen diren (Hernaniko Udala, 2003 in Larramendi, 2016). Ideia hau hobeto ulertzeko goazen jolastokia sakonago aztertzeraz.

2.1. Kolokan jartzeko konfigurazio bat

Maria Subirats soziologo eta hezkidetzan adituaren aburuz patioak kirol zelai bilakatu dira eta tamalgarria da hezitzaile gehienek errealitate horretaz ez konturatzea (Giménez, 2018a). Baina errealitatea da jolastokien testuingurua gehienbat kirol espazioez osatua egoten dela (García, 2016; Hernaniko Udala, 2003 in Larramendi, 2016) tradizionalki pilotazko jokoekin kolonizatua (Giménez, 2018b).

Beraz esan daiteke eskola-patioen konfigurazioa, kirolelara egokitutako konfigurazio bat dela. Futbola, jaun eta jabe da ikastetxeen patioan, hau da jarduera nagusia ia heziketa-zentro guztietan (Auzmendi et al., 2018; Mazón eta García, 2005; Soto, 2017). Futbol-zelaia erdi-erdian egoten da espazio librearen azalera handiena hartuz, zentroan kokatzerakoan guztien begirada pean gelditzen da (Cols eta Fernández, 2016; Hernaniko Udala, 2003 in Larramendi, 2016) eta kasurik onenean, saskibaloiko kantzaren bat bazterren batean (Cols eta Fernández, 2016) egon ohi da.

Diseinu horrekin jolasari garrantzia kentzen zaio (Little eta Eager, 2010) kirola gaineratik kokatuz eta modu horretan garapen fisikoa, psikologikoaren gaineratik geratzen da (García, 2016).

Sandra Molinesek egindako tesian azaldu egiten du nola patioen diseinuak eta kirol konkretu batzuen prebalentziak bestelako ariketa hezitzaileen garapena bertan behera utzi ditzaketela (Giménez, 2018 a). Joko eta jolasak oso bideratuak egoten dira betiko jolasetara (*futbola, saskibaloia, pilota, txirrista...*), baina haur kopuru handi bat ez da horietan ibiltzen beraien interes eta nahietatik urrun daudelako (Antolín et al., 2017).

Hierarkikoki prestigio handiagoa daukan jarduerak, futbolak, eragiten du beti mutiko nagusi berdinek jolastokiaren kontrola eta domeinua izatea eta egoera horrek eragiten du espazio osoaren %70-a kirola egitera bideratua egotea eta horretan bakarrik ikasleria osoaren %30 aritzen da (Giménez, 2018a).

Eremu publiko batean, hau da, toki komunitario batean, espazioaren zatirik handiena jarduera bakar baterako erabiltzen denean, mezu argia igortzen da: jarduera horrek zer nolako garrantzia eta gailentasuna duen gizarte horretan (Auzmendi et al., 2018). Horregatik, argi gelditzen da futbol zelaien marrek izugarritzko muga sortzen dutela (Giménez, 2018b).

Kirolaren eta hain zuzen ere futbolararen inbasioak hainbat ondorio ekartzen ditu, portaera ez hezitzaileak diren horien artean: *portaera oldarkorrek, lehiakortasun handia, gaitasun fisiko hobea daukaten ikasleen gorespina, kooperazio gabezia, estrategia gutxi eta indibidualismo gehiegi, sormenik ez eta lagunarekiko balioespen eskasa, estrategia eta taktiken garapen eskasa, gehiegizko sexismoa...* (Mazón eta García, 2005).

Gainera futbol zelaia ez da edozeinentzako lekua izaten; nagusienak eta indartsuenak gailendu ohi dira (Auzmendi et al., 2018) eta idatziak ez dauden arauak sortu egiten dituzte: *baloia daukana agintzen du, lodia atezaina izango da...* Ondorioz, patioa gatazka batean bilakatu egiten da. Modu horretan baloia diskriminazio elementu batean bilakatu egiten da futbola gustuko duten eta gustuko ez dutenen artean eta gustatzen zaienen artean jokalaria on eta txarren artean baita ere (Giménez, 2018b). Fullanak 2017ko apirilaren 1ean “*Edusiona’t amb els espais educatius*” deituriko jardunaldi informatiboan esan zuen moduan: “*Patioaren konfigurazioak, publiko zehatz bat zehazten du*” (Giménez, 2018b).

Futbolaren logikatik kanpo dauden jolas eta jokoak, normalki, bazterrean geratzen dira, bigarren mailan, ikusgarritasunik gabe... eta horietan dabilzan haurrak beste horrenbeste. Modu horretan ikasle kide gizonezkoei zentralitate eta protagonismo osoa ematen zaie, beraiek bai dira aktiboak eta autoritatea esleitzen zaienei eta beste guztia horren mende geratu egiten da (Auzmendi et al., 2018).

2.2. Kirol inbasioaren ondorioak

2.2.1. Genero desberdintasuna

Azaldutako egoeragatik askotan patioetan neska eta mutilen arteko genero desberdintasunak hasten dira (Giménez, 2018a). Eskolak gizarte, ekonomia eta kulturaren erreproduzio mekanismo gisa jokatzen du (Saldaña, 2018). Kulturaren parte izanik, bere materialtasunaz gain hainbat diskurtso transmititu eta islatzen ditu (Garay, Vizcarra eta Ugalde, 2017). Beraz, gure kultura androzentrikoaren patriarkatuaren ezaugarriak (Saldaña, 2018) patioan islatuak ikusi egiten dira baita ere. Jolastokian umeak modu librean ibiltzen dira jolasean, baina haien jokamoldea aztertzen badugu, azaleko libertate horrek gizartean errotuta ditugun genero-rolak errepikatzen dituela konturatuko gara (Larramendi, 2016).


Marina Subirats eta Amparo Tomé soziologo feministek patioa analizatu ondoren, gure gizartearen metafora bat aurkitu zuten, hau da emakumezkoak eta gizonezkoak munduan egoteko daukaten moduen paradigma (Gallastegui, 2018). Patioen antolaketa sexistak izaten jarraitzen du (Fernández eta Eizaguirre, 2014) eta espazioaren erabilpena analizatuz gero jokoen hierarkiak, ikasleen jolasek edo antolaketa espazial faltak eragiten dute (Fernández eta Eizaguirre, 2014) mutilak patio erdian jartzea, espazio zabal eta zentralenak hartuz baloiekin (gehienetan futboleko) jolasteko, eta bitartean neskak esparru seguruak hartzen dituzte, periferian eta iskinetan baztertuak egoten dira bigarren mailako plano batean geratuz (Auzmendi et al., 2018; Fernández eta Eizaguirre, 2014; Gallastegui, 2018; Giménez, 2018b; Larramendi, 2016; Molines in Mas, 2019; Serra, 2014; Torres, 2019).

Nesken joko eta jolasak zailtasun handiak dituzte patioetan espazioa hartzeko, eta eremu bat lortzen saiatuz gero, irainduak edo baloiarekin kolpatuak izateko arriskua daukate. Neskak ez dira partidua galduta daukaten bakarrak, adin txikikoek edo eta kirol hori gustuko ez duten edo horretan jolasten onak ez diren mutilak eta behar bereziak dituzten ikasleak ere baztertuak geratu egiten dira (Gallastegui, 2018).

2019an Radio Vitorian San Prudentzio ikastetxeko Igor García hezitzaileari egindako elkarrizket batean esan zuen moduan, egun patioen %75 - %80 futbol- zentrikoak dira, hor kirol inbasioa. Ikasle batzuk nahiz eta futbola gustuko ez izan horretan aritzen dira, estatusagatik gehienetan, besteek ze pentsatuko dutenaren beldur, hau da baldintzatuak. Lehen Hezkuntzako etapan lagunak izateari garrantzia ematen hasten zaionez ikasle asko kirol horretan aritzen dira laguntasun zirkulu horretan sartzeko. Bestalde badaude neska batzuk jolastu nahi eta ausartu egiten ez direnak edo eta jolasten uzten ez dietenei.

Azterketa egin ostean argi ikusten da patioan “*lurralde jokabidea*” erreproduzitu egiten dela. Mutilek beti espazio berdinak okupatzen dituzte jarduera mota berak egiteko helburuarekin. Zonalde bat jarduera jakin batekin lotzen denean, beste jolas batzuen garapena eragozten edo mugatzen duen lurralde-kontrola ezartzen da (Saldaña, 2018).

Ekintza maskulinoek, indar sinboliko handiena duten espazioak betetzen dituzte, (Hernaniko Udala, 2003 in Larramendi, 2016) okupatuak gelditzen diren espazio horiek patioaren gune nagusiak izaten direlako. Hortaz, mutilek okupatzen duten espazioaren



Irudia ~ Umeen jokamolde estereotipatua: mutilak zentroan eta neskek bazterretan.
Egilea ~ Itsaso Larramendi.

proportzioa neskek okupatzen duten proportzioa baino askoz handiagoa da. Oro har, aukeratzen dituzten joko motak beste pertsona batzuentzako eta ingurukoentzako jarduera inbaditzaileak dira, beste beraien jolasaldia zapuzten eta mugatu egiten dielako (Saldaña, 2018).

Neskek txoko eta inguru periferikoak okupatzen dituzte (Saldaña, 2018), identitate argirik ez duten eremu txiki eta marjinalagoak erabiltzen dituzte (Hernaniko Udala, 2003 in Larramendi, 2016), baina jarduerak eta espazioak mutilak baino gehiago aldatu egiten dituzte. Neskek espazioa hartzen dute, baina ez dute kontrolatzen. Jolasterakoan hautatutako joko motak neurri handi batean jarduera estatiko eta ez-inbaditzaileak dira, esate baterako, jolas sinbolikoa, eserita hitz egitea... (Saldaña, 2018).

Espazioak ez dira neutroak, baizik eta gizartearen baloreen irudikapen fisikoa. Hortaz, patioak balore horiek planifikatu, eraiki, kudeatu eta bizi ditu. Modu horretan argi gelditzen da, inguru sozio- espazial horrek botere eta bazterketa harremanak erreproduzitzen dituela (Weisman 1994; McDowell, 2000 in Saldaña, 2018). Hau da, gizonezkoek daukaten lurralde kontrolak, gizonezkoen gailentzea eta emakumezkoen gutxiespena definitzen duten dikotomia espaziala babestu egiten du (Saldaña, 2018).

Jaiotzatik jasotzen dugun genero hezkuntza baldintzatzailea da, emakume eta gizon bezala hezten gaituzten heinean erlazionatzeko, mugitzeko eta adierazteko gaitasun ezberdinak garatzen ditugu, eta konturatu ez arren espazioaren okupazio ezberdindua eragiten du horrek (Larramendi, 2016); hortaz, genero bakoitzari naturalki esleitzen zaizkion ezaugarri asko, egiatan rol tradizionalak erreproduzitzean tematu egiten den hezkuntzaren ondorioa izaten da (Gallastegui, 2018; Garay, Vizcarra eta Ugalde, 2017).

Gure gizartean mutilak txikitatik espazioan nagusi izateko eta protagonismoa hartzeko hezten dira, mugitzera eta espazio gehiago okupatzera bultzatuz, bai plano fisikoan, bai diskurtsoan eta bai esfera publikoaren alor orotan. Euren gorputzaren jarreraren bidez espazioa eskuratzen ikasten dute. Hau da, mutilei akziora bideratutako ekintzak sustatzen zaizkie batez ere, botere guneetan egoteko behar diren ezaugarriak landuz: borroka, indarra, abilezia... modu horretan abenturazaleak izateko (Gallastegui, 2018; Larramendi, 2016).

Emakumeei, aldiz, zaintzarekin eta edertasunarekin erlacionatutako aktibitateak sustatzen zaizkie, pasibotasuna, lasaitasuna eta aktibitate fisiko gutxiago behar izan ohi dutenak. Modu horretan espazioa mugatzen zaie eta espazioan egotera baina ez kontrolatzera irakasten zaie (Larramendi, 2016) neskengan bilatzen dena polit, lasai eta maitagarri izatea da, besteen beharren zain egotea baloratuz (Gallastegui, 2018).

Horrez gain, irakasleok ikasleengan daukagun pertzepzioa eragin handia dauka. Askotan inkontzienteki mutilengan ditugun aurreiritziak honakoak dira: independentea, zabala, bihurria, bortitza eta segurua. Aldiz, neskengan ditugunak oso desberdinak dira; dependentea, pasiboa, txikizkaria, pazientziaduna, lasaia eta insegurua (Saldaña, 2018). Errealitate hori islatuta gelditzen da bakoitzari ematen zaizkien jostailuetan, neskenak zaintzara bideratuta dauden bitartean mutilenak aktibotasuna sustatzen dute gehienetan (Gallastegui, 2018). Balio guzti horiek hezkuntzaren bitartez transmititzen dira, baita gizartean eraikitako erreferente eta errepresentazioen bitartez ere (Larramendi, 2016).

Sozialki onartutako errealitate horiek, generoen arteko desberdintasuna areagotzen dute, baina gehienetan ez gara kontziente izaten ez dutelako eragin fisikorik, hau da ez direlako liskar batean ikusten, inplizitu doaz.

Patioak berrantolatzeko beharra dago, konfigurazioa eraldatuz gero periferian gelditzen diren pertsona eta jolasak ere zentralidadea hartuko lukete (Auzmendi et al., 2018). Beste modu batean esanda, pilotaren diktadoreekin akatzeko patio hezkidetzailleak beharrezkoak dira!

2.2.2. Harremanen mugaketa

Eskola-orduetan, hezkuntza intelektuala gauzatzen denean, eremua patioan baino arautuagoa dago eta umeez ez daukate mugitzeko eta erlazionatzeko horrenbesteko askatasunik. Patio-orduetan, aldiz, ez dago arau espliziturik, elkarbizitza bermatzeko errespetu-arauak ez badira. Gatazkak eta nagusikeriak handitu egiten dira: *mutilenak neskekiko, ikasle zaharrenak gazteekiko, ikasle zakarrenak lasaiekiko...* Espazio hauek ez dira ikasteko gune bezala diseinatu, baizik eta aisialdirako espazio modura bakarrik, ulertu gabe aisialdian ere ikasi egiten dela. (Olano, 2007 in Larramendi, 2016).

Garapen pertsonal eta sozialarekin lotutako abildadeak garatzen dira, ikasleek berdinekiko dituzten erlazio eta taldean integratzeko gaitasunean eragina dutenak. Tutoretza orduetan irakasleekin errespetua, lankidetzaz, solidaritatea eta berdintasuna bezalako balioen inguruan ikasitakoa ez da barneratzen, praktikan jartzen ez bada. Jarrera horiek eskola ordutegi guztian zehar bermatu behar diren arren, jolastokia leku ezin hobea da horretarako, umeez beren izatea modu libreagoan adierazten baitute hor irakasleen gidaritzapean egon gabe (Olano, 2007 in Larramendi, 2016).

Kontzienteki pentsatua eta diseinatua izan ez arren, esan daiteke patioak ere baduela bere curriculum, ezkutukoa gehienetan. Izan ere, eskola-egunaren baitako denboralibrerik gehiena bertan igarotzen dute ikasleek eta bertan gertatzen dira haurren arteko harreman ez-formal esanguratsuenak, hau da espazio publikoko rolak eta balioak erreproduzitzen dira. Hortaz, patioaren gaian eskurik ez hartzea edota ezer ez egitea, asko egitea izan daiteke: horrek gauzak lehen bezala jarraitzea eta mantentzea esan nahiko luke, haur guztien premiak eta aniztasuna kontuan izan gabe (Auzmendi et al., 2018).

Gure eskoletako eguneroko bizitzan, ikasleen sozializazioan eragina duten hartu-emanak gertatzen dira: elkarrizketetan aurreiritziak adierazten dira; jolastokian edo korridorean gatazkak sortzen dira; genero-estereotipoak sustatzen dituzten komentarioak egiten dira, hain zuzen ere jarrera batzuei ala besteei balioa ematen diotenak... Horrelako egoerei ematen zaien erantzun motak, bai helduon aldetik, bai ikaskideen aldetik ere, indarkeriarik gabeko eskola bat sortzen lagunduko digu, edo aitzitik, indarkeria betikotu ala areagotu dezakete. Jaiotzen garen unetik aurrera sozializazio izeneko prozesuan murgilduta bai gaude (Antolín et al., 2017).

Espazioaren analisisa sakona izan behar da: mutilen eta nesken arteko ezberdintasun ezaz gain, eskoletan ematen den indarkeriari buruzko hausnarketa ere egin beharra dago; halaber, hainbat azterlan eta ikerketen arabera, eskoletan gertatzen diren gatazken % 90aren oinarria genero-indarkeria eta neska zein mutilen sozializazio afektibo-sexuala baitira. Ondorenez, ezinbestekoa da ulertzea, jolaslekuetan berdintasuna lortu nahi baldin bada, lehentasuna ikasleen arteko harremanak lantzeari eman behar zaiola (Antolín et al., 2017).

2.2.3. *Kultura motorraren pobretzea*

Umeei patioan igarotzen duten denbora, kultura motorraren parte dela esan daiteke, hau da aisia eta denbora librerako hezkuntzaren parte. Bertan jolastu eta kirol-jarduerak aurrera eramaten direnez, jolastokia kompetentzia motorra hobetzeko bitarteko bat da. Aldi berean lankidetzaren eta parte-hartzearen bultzatzen dira, eta elkartasuna, elkarlana eta diskriminazio eza sustatzeko jarrerak garatzen dira.

Ikasleekin kultura motorra lantzearen helburuetako bat ikasleek jolasterakoan eta jarduera fisikoa egitean gero eta autonomia handiagoa izatea da. Lehen hezkuntzako gaitasun kognitiboak handitzen doazenez, ikasle bakoitzak ze nolako jarduera aurrera eraman erabaki ahalko du, bere gaitasunen, interesen eta beharren arabera.

Baina, kirol inbasioaren ondorioz haurrek gero eta motrizitatearen inplikazio txikiagoa daukate. Kirol hegemoniaren ondorioz, jolas tradizionalak bigarren mailan geratzen dira. Desorekatua dagoen patioaren banaketa espazialak, ikasle askok patioaren dinamikaren parte ez izatea eragiten du. Modu horretan kultura motorraren pobretzea gertatzen da. Jolas motorra desagertzen doa eta jolas tradizional asko egoera berdinean daude.

Jolastokiak parte hartzeko eta ikasteko aukera gutxi eskaintzen dituzenez, neska eta mutila asko baztertuak sentitzen dira jolas orduan, batzuetan ikasleak beraien lagunengandik arbuia izaten dira (MEC, 2007 in Garay, Vizcarra eta Ugalde, 2017).

Patioak berdintasun eta eraldaketarako espazioak izan beharko liriteke, baina egitan gizartearen balio hegemonikoak erreproduzitzen dituzte, eta ez dute soilik emakume-gizon dikotomia indartzen, gizon molde nagusitik at geratzen den pertsona ororen bazterketa ere, aniztasunari ez ikusiarena eginez (Larramendi, 2016).

Ikerketek dioten moduan 9 – 11 urte bitarteko haurrak, nahiko aktiboak dira patio orduetan, bertan egunero egin beharreko jarduera fisikoaren %23-a egiten bai dutelako. Baina jolas orduetan ikasleek egiten dituzten aisialdi jarduerak aztertuz gero, ondoriozta dezakegu mutilak, neskak baino energia gastu handiago egiten dutela (Escalante et al., 2011 in García, 2016; Serra, 2014) horregatik sedentarisismoaren ehunekoa neskengan bikoitza da, nesken %16,3 mutilen %8.3-ren parean (García, 2016).

Orokorrean desberdintasunak nabaritu dira mutilek eta neskek egiten dituzten jardueretan (Macdonald et al., 2005; Nebot et al., 1991 in García, 2016). Mutikoek talde eta intentsitate altuko kirol lehiakorretan aritzen dira, aldiz neskek intentsitate gutxiagoko jarduera kooperatiboagoetan (hitz egitea, paseoak ematea, soka saltoan aritzea...) jolas ordua lagunekin sozializatzeko aukera paregabe bezala ikusten dutelako (García, 2016).

Azkeneko urteetan osasun arazoak areagotu dira sedentarismoa eta ohitura osasuntsu faltagatik, batez ere umeetan (Jackson, Morrow, Hill eta Dishman, 2003 in Ezquerro, 2016). Sedentarismoaren fenomenoak poliki-poliki neurritz gorakoa bilakatzen ari da eta osasun publikorako arazo larria bilakatu da, inaktibitate luzea gaixotasun ezberdinen arrisku faktore garrantzitsuenetako bat delako (Serra, 2014).

Espainia munduko herrialdeetatik haur gainpisu eta obesitate tasa altuenetarikoa daukana da (Casas et al. 2016 in García, 2016) hamar umetik, hiruk gainpisua bai daukate. Gainera, 2011/2012-ko Nazioarteko Osasun Inkestaren emaitzetan islatua geratu zen Espainia mailan haur kopuru osoaren %20-ak jokaera nahasteren bat daukala eta arazo hori zuzenki erlazionatu daiteke aparatulu lokomotoraren garapen ezarekin (García, 2016).

Umeek jarduera fisiko nahikoa egiten ez dutenez, ezin dituzte behar adina kaloria erre eta ondorioz osasun arazoak sortzen dira (Jackson, Morrow, Hill eta Dishman, 2003 in Ezquerro, 2016). OMS-ek dio arazo horien prebentzioa haurtzaroan hasi behar dela, oinarrizko ohitura osasuntsuak sustatuz (WHO, 1998), horregatik eskolak paper garrantzitsua hartzen du (Ronson eta MacDougall, 2005) ikasleek bertan denbora pilo igarotzen dutelako eta eskola denboraren barruan denbora ez-kurrikularra, hau da patioan igarotzen dena, aukera paregabea da jarduera fisikoa aurrera eramateko (García, 2016).

OMS-ek dio gomendagarria dela 5 eta 17 urte bitarteko haurrek egunean ordu bateko intentsitate ertain edo altuko jarduera fisikoa egitea. Halaber, astean hirutan aparatulu lokomotoria indartzen duten jarduerak egitea gomendagarria da (OMS, 2010; WHO 2010) eta haur askok ez dituzte minimo horiek betetzen.

Jarduera fisikoaren gehikuntza eta sedentarismoaren murrizketa, gizentasuneko epidemiari aurka egiteko gakoa da (Fernández, 2015). Hortaz, Igor Garciaren hitzetan *“umeek jarduera fisikoa egitea eta bizitza osasuntsu bat eramatea oso garrantzitsua da”*.

Nahiz eta kirol instalakuntzak eduki, patioak mugatuak daude jarduera fisikoaren sustapenean, ikasleek beti ez bai daukate inongo interesik gidatutako kirol horietan (Dyment eta Bell, 2008). Hau da, egoten diren futbol zelai edo saskibaloiko kantzak bezalako kirol hornidurak patioan izateak ez du zertan haurren jarduera fisikoaren maila igo behar. Horiek lehiakorrek eta intentsitate handikoak direnez, hain aktiboak ez diren ikasleak

albo batera uzten ditu, gainera gehienetan horiek izaten dira mugimenduan egotea gehien behar duten neskak (García, 2016).

Esan daiteke jarduera fisikoaren modeloa sexismoan oinarritzen dela. Hortaz jolastokien atontzeak eta altzariak estereotipo sexistetan oinarrituak daude (Serra, 2014). Gurea bezalako gizarte patriarkal batean, sexu bat bestearen gainetik gailentzen duen kultura sexistak espazioen egituraketan izugarritzko eragina dauka, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak indartzen dituzten praktikak sortuz (Weisman 1994; McDowell, 2000 in Saldaña, 2018).

Aipatutakoaz gain, hainbat arrazoirengatik, azken hamarkadetan zehar, patioaren funtzioak eta horren gozamina gutxitu egin dira. Arriskuaren gaur egungo nozioak zenbait joko benetan aspergarriak izatea eragin duelako (Lafuente eta Horrillo, d.g.). Aspertuta egonda inaktibitatea handiagoa izango da. Lehen hezkuntzan mailak igo ahala neskak gero eta jarduera pasiboagoak egiten dituzte eta jolasak albo batera uzten dituzte. Hauek patiotik ibiltzen dira paseoak ematen, liskarrak alboratuz eta lehiakortasuna eskatzen ez duten jolasetan aritzen dira (Serra, 2014).

Inaktibitatearen inguruan dauden arazoak ikusita, patioaren tamaina garrantzi handia daukala onartzekoa da, kontutan izanda geroz eta espazio handiagoa orduan eta jarduera fisikoa eta mugimendua sustatzeko aukera gehiago; hortaz sedentarismo, obesitate eta gain pisuari aurre egiteko aukera gehiago. Baina ez da bakarrik tamaina kontutan izan behar, baizik eta kalitatea. (García, 2016). Inaktibo egoteak, hau da ez jolasteak haurra bizitzari aurre egiteko mentalki eta fisikoki ustekabeen uzten du. Onura izugarriak lor daitezke egunero haurrentzako jolasteko denbora eta espazioa nahikoa baldin badago (Play England Freedom to play, 2019).

Ebazpen bat beharrezkoa da funtsezko gai hauek: osasun fisiko zein psikologiko, obesitatea eta eskola baztertzeko arazo nagusiak... saihesten laguntzeko (Play England Freedom to play, 2019); patioaren egituraketak eta bertako hornikuntza hezitzaile kantitateak eragina izango dutelako haurren jarduera fisikoaren sustapenean (García, 2016).

2.3. Beste errealitate bat ere posible bada

Gizarte justuagoa eta hezkidetzan oinarritutakoa nahi baldin badugu, beharrezkoa da eskoletatik espazioetan nesken presentzia eta ikusgarritasun fisiko eta sinbolikoa bermatzea. Eskola ez da gizarte balioak transmititu behar dituen bakarra, baina egia da haurrak bertan igarotzen dituzten ordu kopuru handiak kontutan izanda, ezin dugula alde batera utzi honek aldaketak sortzeko izan dezakeen potentzial handia. Arkitektura hezkuntza, espazioen eraldaketa kolektiboan funtsezkoa da *“Arkitektura Hezitzailea”* kontutan izatea, genero

desberdintasunak nola artikulatzen diren ulertzeko eta horiekin bukatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izateko (Saldaña, 2018) baita motrizitate maila ikasleen artean handitu ahal izateko.

Ikasleek geletan mugatuagoak dauden eta arau zurrunagoak dituzten bitartean, patioan hezitzaileek gutxiago esku hartzen dute eta ikasleek askatasun gehiago izaten dute. Horrela, patioan gela barruan baino argiago ezartzen dira gizarte- eta kultura-rolak (Rönnlund, 2015 in Saldaña, 2018). Weisman-en (1994) hitzetara, aitortu behar dugu espazio soziala eta espazio fisikoa elkar lotuta doazela eta elkarri eraikitzen direla.

Genero hirigintza perspektibak, espazioaren jabetze ideian oinarritzen da, hau da, espazioan kokatzeko eta identifikatzeko erabiltzen dugun prozesuan oinarritzen da. Hortaz patioaren erabilera edo banaketa aldatzen duen edozein ekintza edo prozesu gizarte aldaketa ekarriko du (Saldaña, 2018). Espazioen diseinuak eragin handia dauka umeen portaeran, bai eta hori aldatzeko ahalmena ere (Larramendi, 2016).

Eraldaketa bat beharrezkoa denez, asko dira jolastokiaren erabilera arauak garatu dituzten ikastetxeak, espazioaren erabilera desberdinduan oinarrituta. Erabilera arau hauek futbola eta baloia hartu ohi dute oinarri: baloia jolastokitik kenduz edo honen banaketa erregulatuz (Vives eta Galarraga, 2015) aipatu izandako kirol inbasioaren ondorioz. Helburua ez da pilota-jokoak desagerraraztea, baizik eta maskulinitatearekin hain lotuta ez dauden joko eta ekintzak sustatzea, futbolari esleitutako boterea gutxitzea eta motrizitate pertzentila igotzea; adibidez, zelaia mugatzen duten marrak lausotuz edo desagerraraziz (Larramendi, 2016).

2.3.1. *Euskal Herria mailan*

Azkenengo hamarkadetan Euskal Herrian patioa berrantolatzeke edo dinamizatzeko saiakera esperientziak egon dira. Zenbait eskola hasi dira jada patioaren erabilera arautzen baita ere, jolasak txandakaturik, espazioen banaketa erregulatuz eta futbolera jokatzeke egunak mugatuz. Arauak ezartzearekin batera ikasleei jolas berriak erakustea ezinbestekoa da, mistoak direnak (adina, sexua, arraza...) eta lehiari oinarritu beharrean lankidetzaz bezalako balioak sustatzen dituztenak (Hernaniko Udala, 2003 in Larramendi, 2016). Horien artean Gipuzkoa aldean hainbat jolaslekuen proiektu pedagogiko berritzaileak martxan jarri dituzte zenbait ikastetxetan (Garay, Vizcarra eta Ugalde, 2017).

Horien artean Villabonako Fleming herri eskolan. Planteatu duten jolaslekua haur guztiek gozatzeko lekua da. Horretarako bestelako diseinu bat egin zuten, eta orain haurrak protagonistak eta indibiduo aktiboak dira, ikasleen jardura fisiko maila handituz. Ondorioz haurrei beraien beharrik asetzeko elementuak (elementu naturalak, rokodromoa, slack-line, gurpilak, mini-frontoia...) eskaini zaizkie, beraien emozioetan oinarritutako jolas

parkea eginez ikasleen garapen psikomotorra indartzeko nahiarekin. Patioa ikertzeko, harremantzeko, euskaraz aritzeko, amesteko, esperientziak bizitzeko ... espazioan bilakatu dute, baina horretarako auzolanean aritzea beharrezkoa izan da (Fleming herri eskola, 2017).

Elgoibarren, 2003-an Elgoberdin programak eskoletako espazioak nola erabiltzen diren aztertu eta genero-adierazlea erabakigarria dela ondorioztatu zuen. Garbi geratu da jolastokian espazioaren banaketa sexista dela oraindik ere. Jolasen hierarkiagatik, nesken eta mutilen jokabideengatik edo jolastokiaren espazioa antolatu gabe egoteagatik, mutilak erdialdean kokatzen dira eta neskak bazterretan. Hortaz “*baloi gabeko eguna*” ezartzea erabaki zuten (Vives, 2014b; Garay, Vizcarra eta Ugalde, 2017).

Donostiko Ibai ikastolan astero futbolera jolastu ezin diren hiru egun jarri dituzte. Egun bakoitzean ikasleei bestelako baliabide eta aukera desberdinak eskaini egiten zaizkie: lehenengoan ezin da materialik erabili, bigarrenean normalean erabiltzen ez dituzten materialekin jolastu behar dute eta hirugarrenean torneo bat egiten da, ikasturtean zehar kirol maioritarioak ez direnen torneoak egiten baitituzte. Hasieran ikasleek ez zuten futbola kendu nahi eta bakarrik neskak ilusio handiarekin hartu zuten, baina denborarekin ondo egokitzen joan dira (Fernández eta Eizaguirre, 2014).

Araban, hain zuzen ere Gasteizen, ikastetxe desberdinetan erabaki dute neurriak hartzea. Horietako bat San Prudentzio ikastola da eta bertako lehen aipatu izan den Igor García deituriko irakasleak dio ezin dugula ahaztu patioa denbora libre dela eta ikasleak nahi duten jarduera egiteko askatasuna izan behar dutela. Horregatik ez da beharrezkoa futbola debekatzea, baina bai ikusarazi horretaz gain askoz aukera gehiago daudela. Egia da umeak oso bideratuak egon direla oso txikitatik kirol, joko eta jarduera maioritarioak egitera, horiek txikitatik ikasi egiten dituztelako, gainera denbora igaro ahala barneratuagoak izaten dituzte.

Ohitura horiei pisua murriztu aldera San Prudentzian, tutoretza orduetan tutoreek ikasleei hogeitahamar joko eta jolas desberdin proposatu egin zieten horien artean klase bakoitzak hiru aukeratu zezan eta ikastetxe osoko ikasleen iritziarekin patioaren egituraketa eta dinamika aldatzeko. Aukeratutako jardueren artean baldintza bakarra kirol maioritarioak ez izatea izan zen, hau da ez futbola, ez saskibaloia.

Informazioa behin bereganatuta, patioa txoko desberdinetan banatu eta irakasleen laguntzarekin horiek antolatu eta dinamizatu egin zituzten patio hezkidetzailleagoa lortuz. Hasieran irakasleak dinamizatzaileak izanda, ikasleek patioa nola dagoen bereizia ikasiko dute, espazio bakoitzean dauden material, jolas eta arauak etorkizun ez oso urrun batean modu autonomo batean horiek beraien kabuz aurrera eramateko.

Modu honetan ikasleek ardurak hartzen ikasiko dute, irakasleak dinamizatzaile papera uzten dutenean umeei hartu beharko dutelako material desberdinen kudeaketaren ardura. Autonomia landu egingo da baita ere haurrak txoko bakoitzeko arduradunak izaten joango direlako baita ere. Beraiek inolako gidarik gabe jolasten arituko dira.

Beste alde batetik, Ttipi Studioko kideek (Ane Abarrategik, Manuela Abasolok eta Itsaso Larramendik) patioetako errealitatea zein zen ikusirik, espazio horiek fisikoki zein filosofikoki eraldatzeko proiektu bat martxan jartzea erabaki zuten, “*Elkartoki proiektua*”, hain zuzen ere. Eskoletako jolastokiak modu parte-hartzailean eraldatzea helburu duen proiektu pedagogiko eta parte-hartzailea (3.1.1. *puntuaz azalduta*) da eta denontzako patioa elkarrekin diseinatzeko egitasmoa ari da garatzen; jabeturik “*patio guztiak berdinak direla*”, eta horietan sortzen diren harreman gehienak ez direla kalitatekoak (Antolín et al., 2017; Auzmendi et al., 2018).

Horretarako, ikasleak prozesuaren erdigunean jartzen ditu. Umea erdigunean jartzearen eta haiekin prozesu bat egitearen xedeak: lehenik, patioan zer-nolako bizipenak dituzten ikustea eta nolako harremanak garatzen dituzten jakitea da eta bigarrenik, sorkuntza eta diseinu tailerren bitartez ikasleek eurek eskolako patioaren espazioaren egituraren eta erabileraren eragina izatea (Auzmendi et al., 2018). Elkartoki azken lau urteetan, proiektua martxan jarri zenetik, bederatzi eskoletan martxan jarri da, horien artean bat Gasteizko Abendaño ikastola.

Gasteizko, Duranako Ikasbidea Ikastolako patioa ez zen espazio neutro bat, eta bertan era bateko zein besteko botere-harremanak ematen ziren. Jolastokia ez zuten ikasle guziek modu berean erabiltzen: mutilak (vs. neskek) eta nagusiak (vs. txikiak) espazio horretako ‘jabeak’ ziren. Orduan 2. batxilergoko ikasleak ikastetxeko jolastokia bizikidetzarako oso espazio garrantzitsua dela konturatu ziren eta beraz, bertan gertatzen zen guztiari arreta jarri behar zitzaioela ondorioztatu zuten, eskolako kideen arteko harremanak osasuntsuak izateko.

Patioa esparru hezitzaile bat izateko eta ez haurrak hor utzi eta korrika egiteko eremu bat ez izateko ikasleek proiektu bat egin eta klaustrora eraman zuten. Momentu horretan Nondik Arkitektura Estudioaren proposamen bat jaso zuten, patioen eraldaketa jorrazteko proiektu bat planteatuz, eta hori aurrera eraman zuten. Prozesua aurrera eraman ahal izateko irakasleen eta ikasleen artean aipatu izan dugun parte-hartze prozesua aurrera eramatea erabaki zuten. Behin patioaren diagnosis egin eta birmoldaketarako ideiak jaso ostean, eraldaketa prozesuari ekin ahal izateko (Auzmendi et al., 2018).

Hezkuntza sailak parlamentuan hezkidetzaren plan berri bat aurkeztu zuen, patioaren egituraketa sexistarekin akatzeko helburuarekin. Proiektu hori 2015- 2016 ikasturtean aurrera eraman zen, eta horretan irakasleek formakuntza espezifiko eskuratu zuten

gaiaren inguruan, bai eta ikastetxe bakoitzean hezkidetzaren arduradun bat jarri zen eta esperientzia pilotuak egin ziren (Fernández eta Eizaguirre, 2014). Hala ere gaur egungo egoera ikusita ez dut horren emaitzarik ikusten.

2.3.2. Espainia mailan

Madrilen, “*Micos*” proiektua aurrera eraman izan da, bertako hezkuntza gizartearekin eta auzoarekin ikerketa bat egitea erabaki zen eta erabili izandako metodologia parte-hartzailea izan zen. 27 ikastetxetan 5.000 ikasle aztertu eta lortu izandako diagnostikoaren aburuz ikasleriaren (%10,24ak) hiru metro karratuko espazioa dauka patioan. Egoera hori ikusita patioa berrantolatzeko proiektu bat Madrilgo hiru ikastetxeetan martxan jartzea erabaki zuten: CEIP Daniel Vázquez Díaz, CEIP Juan Sebastián Elcano eta CEIP Ramón M^a del Valle Inclánen (Segura del Pozo, 2017).

Galizian, CEIP Sanjurjo de Carricarte ikastetxean, Elkartokik eskaintzen duen proiektuaren antzekoa den programa bat aurrera eraman izan da baita ere “*O Noso Patio*”. Eskola tradizionala espazio atsegin eta aldakorrean bihurtzeko erabilitako diseinu sistema, parte-hartzailea izan da. Aldaketa prozesua hezkuntza-komunitate osoarekin batera, irakasleak, zuzendariak, ikasleak, gurasoak garatu da. Eraldaketa prozesuak administrazio publikoa gainditu du eta beti izan ditu neskek eta mutilak protagonistatzat, beraien ahots propioa emanez euren beharrei, interesei eta kezkei erantzun ahal izateko. Jolasteko espazioari bestelako erabilera eman zaio landare egituren, baratzaren, horma-irudien ... instalazioarekin. Prozesua bera lankidetzan, negoziazioan eta eraikuntzan ikasteko aukera bat da.

Galiziarekin jarraituz, Pontevedrako Villaverde- Mourente ikastetxean futbola debekatu egin zuten espazio faltagatik eta egoeraren ondorioak oso positiboak izan ziren. Egun batetik bestera patioa espazio atseginagoan bilakatu zen. Programa aplikatu baino lehen espazioaren %80-an betiko mutilak futboleak aritzen ziren, baina neurria hartu ondoren ikasleria guztiak patioa modu berdinean erabiltzeko aukera zeukanez egoera guztiz aldatu zen (Gallastegui, 2018).

Valentzia autonomia erkidegoan badaude Princesa de Asturias eta Clara Campoamor ikastetxeak Helche herrian, non hezitzaileek jarduera desberdinak antolatu egiten dituzten ikasleen partehartzea eta berdintasuna sustatze aldera. Ikasleek egunero zonalde eta jarduera desberdinak dituzte aukeratzeko (*labirintoak, egurrezko ibilbideak, palletekin eginiko itsasontzia, baratza ekologikoa...*) eta antolaketa eta funtzionamendu horri esker haurren arteko harremanak, sozialazioa eta talde lana asko handitu egin da. Ikastetxe horretan hilean egun batean bakarrik futboleak jolastu daitezke eta ikasleek oso ondo onartu dituzte eskaini egiten zaizkien alternatiba desberdinak (Mas, 2019).

Huelbako Molière ikastetxean, antzeko proiektu berritzaile bat martzan jarri dute baita ere. Patio orduen denbora ahalik eta probetzuzkoagoa izateko, bertako hezitzaileek patioa arazoan konponketaren bidez ikaskuntza eta elkarbizitza sustatzeko leku eta denbora ezin hobea dela sinisten dutelako (Morán, 2018).

Lanzaroten, Sergio Espinosak *“Proyecto Recreate”* patio aktiboak dinamizatzen hasi da. G.H.-ko irakasle hau jolas orduetan ikastetxetik gertu dauden baliabideak erabiliz ibilbideak prestatu egiten ditu ikasleekin batera egiteko. Ariketa hau osasuntsua da eta kurtsoan zehar haurrak gehitzen doazen kilometro kopuruak proiektuari *“Desafío 200”* izena ematen dio.

Proiektu honetan parte hartzen duten ikasleak puntuak batzen joaten dira eta poliki-poliki mailaz igotzen doaz. Egiten duten ibilbide bakoitzeko puntuak jasotzen dituzte eta kolore bateko eskumuturra jaso egiten dute, koloreak adierazi egiten du zein mailatan dauden. Azkenengo maila *“beltza”* da, hortik aurrera ez daude gehiago, arte martzialetan bezala, kolore hori maximoa esan nahi du. Beraz azkenengo maila horretara heltzean diploma bat jaso egiten dute beraien eskuhartzea, partehartzea eta inplikazioa goraiatzeko asmoz. Azkenik proiektuari amaiera emateko, eta kurtso osoan egindako esfortzuak zentzua izan dezan, *“Correcaminos”* ibilaldia egiten da.

Proiektuaren helburua patio aktiboak sortzea da, ikasleak lanpetuak egotea, aktiboki parte hartzea. Mota honetako proiektuak osasuna sustatzeaz gainera, komunitateari mesede egiten dio alde batetik hezkuntzaren bizitza sustatzeko sare berriak sortzen direlako; bestetik, gizabanako desberdinen artean harremanak sustatzen direlako; horietaz gain, inguruari horrek duen balioa ematen zaiolako, horren erabilgarritasuna goraiatuz.

Batzelonan, El Martinet ikastetxe publikoa, Ripollet herrian dagoena, 2004. urtean sortu zuten eta bere patioan kirol maioritarioen zelaiak ez jartzea erabaki zuten beraien proiektu hezitzailea berritzailea zelako. Bertan ez daude irakasgai desberdinik, baina nahiz eta G.H. ko irakasgairik ez izan, ez dago inolako sedentarismorik, haurrak ez dituzte sei ordu eserita ematen, ikasleak barruko eta kanpoko ikastetxeko espazioetatik ibili egiten dira. Eskola tradizionalen kontra daude eta ez dituzte kirol tradizionalak sustatzen, horien ordez kooperatzaileak diren eta aire librean egiten diren kirolak sustatu egiten dira beraien %100-a naturala den patioan. Instituzioak arazoak izan ditu gobernuan egon diren partidu politikoekin, patio modelo horren kontra zihoazelako nahiz eta hezkuntza kontseilaritzak onartu izana (Torres, 2019).

Hamar urte baino gehiago daramatzate *“El Safareig”* proiektua testuinguru desberdinetan aplikatzen eta gaur egun berrehun ikastetxe baino gehiagori laguntzen diete beren patioak berrantolatzen kontuan izanda natura, hezkuntza, osasuna eta ongizatea (Cols eta Fernández, 2016).

Espainiatik kanpo gaur egungo bestelako adibideak: Ekuadorreko Mauricio eta Rebeca Wild-en esperientzia; Kanpoko Bizitzaren Danimarkako eta Alemaniako esperientziak; Francesco Tonuccik egindako haurrentzako espazio naturalen beharraren deialdia; "Hezkuntza aire librean" proiektua sustatzen duen Boloniako hiria; Milango Bambini eta Natura Elkartea... guzti horiek bizi-espazio berdeagoak, bizigarriagoak, gizatiarragoak egiteko behar handia dagoela erakusten digute (Cols eta Fernández, 2016).

Leticia Gómezek dioen moduan oso zaila da gailenduta dagoen pelotaren kulturarekin bukatzea eta asko dago egiteke oraindik hori lortzeko (Mas, 2019) eta guztia gure esku dago!

2. ATALA: BESTE PATIO HEZIGARRIAGO BAT POSIBLE BADA: PROPOSAMEN PERSONTALA

3. NOLA BIDERATU ERALDAKETA

3.1. Patia hezigarriagoa bihurtzeko irizpideak

Honaino azaldu izan den errealitateak erakusten du patioak begiratzeko eta artikulatzeko modu berri bat topatu beharra dagoela, hau da aldaketa baten aldeko oihuak gero eta nabarmenagoak direla. Ikuskera tradizionalarekin apurtu eta patioa hezkuntza-espazio gisa ikusi beharra dago (Cols eta Fernández, 2016).

Egun dauden jolastoki grisak berritzea beharrezkoa da, bizitza daukaten patio koloretsuak sortuz (Cols eta Fernández, 2016), ikasle guztien premiak asetuko dituztenak (Auzmendi et al., 2018), ondo pasatzeko eta ikasle guztiak elkarrekin harremantzeko, ikasteko eta zentzumen guztiekin gozatzeko (Cols eta Fernández, 2016), baita motrizitate maila handitzeko. Bilakatu dezagun patioa joko batean, eta joko mugimenduzko abentura batean, non ikasleek modu bolondres batean parte hartu ahal izango duten (Mazón eta García, 2005).

Espazioa demokratizatzeko birbanatze berri bat beharrezkoa da, beti ere kontutan izanda patioa aisialdi librerako lekua den heinean ikaskuntza emateko lekua ere badela (Giménez, 2018 b). Jolaslekuaren kondizio hezitzaile eta espaziala kontutan izanik, haurra esperimendatzeko, abenturak bizitzeko eta harremantzeko aukerak izan behar ditu jolas orduan; hau da ikasten jarraitu behar du (Mazón eta García, 2005).

Baina eskolaren kanpoko espazioaren inguruko ikuspuntua aldatzea behar beharrezkoa den izugarritzko erronka bat da. Hori eraldatzekotan, patioa barruko espazioa bezala hezkuntza proiektuaren barruan sartu ahalko genuke (Cols eta Fernández, 2016; Garay, Vizcarra eta Ugalde, 2017) eta bertan proposatzen diren ariketa eta jokoak inklusiboak eta ez baztertzailak (Giménez, 2018b; Mas, 2019) izan beharko dira balore demokratikoak, inklusioa, ikusgarritasuna, zeharkakotasuna eta parekotasuna (Giménez, 2018a; Mas, 2019) sustatze aldera.

Hezitzaileok ulertu beharra dugu, alde batetik patioak umearen garapenean eta ikaskuntza eta baloreen indartzean lagundu dezakeela, adibidez autoestimuan edo arduraren (Serra, 2014) eta bestetik, umeak jolasten duten bitartean ikasten ari direla. Horregatik oso garrantzitsua da ikastetxearen kanpoko espazio hori *“ikasten jarraitzeko esparru”* bezala ikustea.

Horretarako, Tonucci-ren ideia jarraituz, patioa ikastetxeko gela batean bilakatuko da. Espazio atsegina, suspergarria eta aldi berean umea ikertzera gonbidatzen duena eta hurrek

jolasean aritzeko eta ikertzeko daukaten instintu naturala suspertzen duena, umea eta natura elkartuz (Clemente, 2017).

Modu horretan ikasleek bizipen hezitzaileak izateko probabilitate askoz handiagoa izango dute; horien artean hona hemen zerrendatxo bat: parte hartze zoriontsua izatea, ikaskideak onartzea, kode berriak erabiltzea, egoera desberdinei konponbideak ematea, bakoitzak bere baliabide sortzaile eta fisikoak biltzea, estrategia berriak aurkitzea, talde lana beharrezkoa dela konturatzea eta horretan parte hartzea, haurrak inguruan duen espazioa antolatzea, ikaskideak laguntzea eta animatzea, emozionatzea, berea eta bere lagunak errealitateak egiaztatzea, arriskuak hartzea, bakoitza bere limiteak kalkulatzeko, gozatzea, erabakiak hartzea, gatazkei konponbide bat bilatzea... orokorrean bizipen pozgarri bat izatea laguntasunean (Mazón eta García, 2005).

Lortu nahi den patio hezitzailea zer den azaldu eta ulertu ostean, patio hezigarriago bat lortzeko hainbat irizpide aipatu izango dira hurrengo puntuetan zehar. Hona hemen lortu nahi dugun patioa eta hori lortzeko jarraitu beharreko irizpideen gida. Honakoak betetzea beharrezkoa izango da jolastoki hezitzaile bat lortu aldera.

3.1.1. Parte-hartzailea

Eskola bakoitza bakarra eta berezia da eta horregatik patioaren eraldaketa eta berriketa prozesua nondik hasten garen eta nora joan nahi dugun kontzientziarekin hasten da. Begi aurrean dugun errealitatea zein den jakitea beharrezkoa izango da, hezkuntza globalago, esperimantalago eta bizigarriago baten alde egiteko, non talde heterogeneoak sortzen diren (Cols eta Fernández, 2016).

Lehen aipatutako San Prudentzio ikastolan Gorputz Hezkuntzako Igor Garcia irakasleak azaltzen du patio hezitzaile eta inklusiboa lortzeko, non ikasle guztiek jolasteko aukera duten, lehenengo pausua sentsibilizazio fasea dela. Beharrezkoa da ikasle, irakasle zein familiak patioan sortzen diren liskarraz eta bertan dagoen errealitateaz konturatzea.

Eskola, gizarte- ehun bat izango balitz bezala ulertu beharra dago, talde, herri edo hiri baten parte izatea sentitzea eragiten duelako, jendearen arteko loturak sortuz (Cols eta Fernández, 2016). Ondorioz, jolastokien inguruan hausnartu eta horietan berrantolaketak eta planteamendu berriak egin nahi izatekotan hezkuntza-komunitate guztiarekin batera egin beharko liriateke (Cols eta Fernández, 2016; Soto, 2017). Virginia Navarro Martinezen hitzetan *“Patioaren diseinu eta eraikuntzak hezkuntza-komunitateko kide guztien desioak kontutan hartu beharko lituzke”* (Antolín et al., 2017). Beraz, eskoletako kanpoko espazioa eraldatzeko eskariak, benetako harreman eta kohesio sare bat sortzeko erronka eta aukera ugari planteatzen dizkigu (Cols eta Fernández, 2016).

Bide bat irekitzen duen lan taldea edo batzordea, sortzea oso hasiera egokia izan daiteke, modu horretan irakasleak, ikasleak, familiak, udalerriko politika kudeatzaileak... hartzen dituen proiektua sortuz (Cols eta Fernández, 2016). Espazioa haurrentzat sortuko da, dinamika desberdinak erabiliz, horien artean design thinking, sorkuntza, parte-hartze prozesuak, besteak beste (Navarro in Antolín et al., 2017).

Kanpoaldeko espazioen aldaketak, aldaketa pedagogikoekin batera aldatu egiten dira. Diseinu simple bat egiteaz eta joko-elementu desberdinak instalatzeaz haratago dago hezkuntza planteamendua, horrek hitz egiteko, eztabaidatzeko eta hausnartzeko aukera ematen bai du. Prozesua elkarrizketa motel bat izan behar da eta haurrak beraien ikaskuntzaren protagonistak izan beharko dira. Modu horretan espazio atseginak, naturalak eta antolatzeko errazak lortzeko erreminta desberdinak lortuko dira, bizikidetz-espazio egokia lortuz non harreman desberdinak emango diren (Cols eta Fernández, 2016).

Patioa, balio hezitzaileak barneratzeko eta harreman gizatiarrak sustatuko dituen eremua izateko, haurrak patioan benetan ikasten ari diren horren inguruan eta barneratzen ari diren balioen gainean gogoeta egitea beharrezkoa da (Auzmendi et al., 2018). Jolastokia aldatzeko prozesua egiten denean begirada beti umeengan jarri beharra dago. Sortzen diren proposamenak zentzuz proposatu beharko dira, oinarri batekin eta elkarrekin pentsatuz, hau da haur eta helduak batera, parte hartzaile guztiek ahotsa izan dezaten (Clemente, 2017).

Irakaslegoa patioa begiztatu beharrean, jolastokiaren plangintzan eta gestioan aktiboki inplikatu behar da, beti ere ikasleen laguntzarekin (Gallastegui, 2018). Irakasleen esku hartzea jolas orduetan, ikasleak motibatu ditzake. Hezitzaileek programatutako jokoetan boluntarioki parte hartzeak, lagundu diezaike joko eta jolas desberdinek eman al dizkieten asebetetzeak ezagutzera (Mazón eta García, 2005).

Prozesu osoan zehar komunitate osoko partehartzea ezinbestekoa da, batik bat ikasleena, ideiak emateko, patioan gaizki doana jakiteko edo aldatu nahi dutena jakiteko (Gallastegui, 2018). Aldaketa edo berrantolaketa aurrera eramaterakoan metodologia parte-hartzailea edo eskuhartzailea erabili egingo da gizarte aldaketarako.

Aurretik aipatu bezala patioan genero desberdintasunak daude eta horiek izango dira metodologia honen abiapuntua, jolastokiaren egituraketa eragin zuzena daukalako desberdintasun horien erreprodukzioan (Saldaña, 2018). Patioan ematen diren jarduerak fisikoak zentzuzkoak eta bidezkoak izateko (Serra, 2014), generoaren ikuspegitik patioen analisi kolektibo bat egiteko (Saldaña, 2018) eta eredu kultural femeninoekin apurtzen duten ariketak proposatzeko, beharra dago (Serra, 2014).

Prozesuan beharrezkoa da guztion arreta, behaketa, harrera, entzuteko gaitasuna, familien eskakizunen alde egitea, irakasle zein haurren borondatea kontutan hartzea ... (Cols eta Fernández, 2016). Funtzionatzen duten patioak sortzeko haurren inplikazio prozesua behar-beharrezkoa da. Ikasleek eskatu dutena entzutea, haien beharretatik haratago joatea, elkarlanean diseinatzea eta lan egitea, dauzkagun baliabide posibleak kontutan izatea, probatzea eta txarto ateraz gero hori birmoldatzea... beharrezkoa izango da. Nork jakingo du haurrak baino hobe, zertara jolastu nahi duten? Edo eta ze jolas gustatzen zaien? Azken finean beraiek bai dira espazio horien erabiltzaile zuzenak (Chaves, 2013; Clemente, 2017). Gainera, azkenengo ikerketek erakutsi izan dituzte, haurrak beraien espazioen eraldaketan parte hartzeak ekar ditzakeen onura pedagogikoak (Navarro in Antolín et al., 2017).

Patioaren diseinua eta eraldaketa ariketa ziklikoa izan behar da. Patioa ezin da diseinu itxia eta iraunkorra izan, bestela erabaki hau pertsona multzo batekin eta une jakin batean estekatuta egongo litzateke, epe laburrean berrikustea edo aldatzea saihestuz. Eskolako parkeak une bakoitzeko gizartearen behar sozialei erantzun beharko die, hau da denborarekin eboluzionatzen joan beharko da (Antolín et al., 2017).

Jolastokiaren eraldaketa prozesua aurrera eraman ahal izateko beharrezkoa da; denbora; trebakuntza; hezkuntza-eragile guztien arteko elkarrizketa; giza baliabide eta baliabide ekonomikoak; irizpide batzuk jarraitzea, horien artean etiko, estetiko, ekonomiko, iraunkor, ingurumena errespetatzen dutenak eta mantentzea posible direnak. Baina batez ere ilusioa, espazio ederra, osasuntsua eta ongizatea eragiteko (Cols eta Fernández, 2016).

Hasteko, patioa aldatzeko proiektua sustatzeaz arduratuko diren pertsonaz osatutako talde sustatzailea sortu beharko da. Hauen zeregin nagusia proiektuaren jarraipena egitea, berau zabaltzea eta martxan jartzeko beharrezko baliabideak bilatzea izango da (Antolín et al., 2017). Talde partehartzaileak proiektuan laguntzeko prest dauden pertsonak izango dira eta horiek konpromiso maila ezberdina har dezakete: *koordinazioan lagundu, ekintza zehatzetarako laguntza eskaini, baliabideak eskuratzen lagundu, etab.* Eskola barruko talde guztiekin aliantzak sortu beharko dira: *zuzendaritza taldea, irakasle eta tutoreak, begiraleak eta familiak.* Honekin batera, eskolak martxan dituen gainontzeko proiektuekin uztartzeko aukerak aztertu beharko lirateke, esaterako, *Agenda21, Hezkidetza, etab.* (Antolín et al., 2017).

Aipatutako prozesu metodologikoa hainbat kasutan erabili izan da emaitza positiboak lortuz. Adibidez, 2.3.1. eta 2.3.2. puntuetan aipatu izandako hainbat proiektutan: Micos, Elkartoki, O Noso Patio... beste askoren artean.

3.1.2. [Hezkidetzaila](#)

Hainbat ikastetxetan hasiak dira patioaren inguruan hausnartzen, espazioaren antolaketarako modu berriak planteatzen, eta eraldaketak gauzatzen (Auzmendi et al., 2018). 2005- 2009 urteen artean Austriako 20 ikastetxetan «*Eskola patioak eta generoaren arteko harremanak*» ikerketa garatu zuten, haurren osasuna, eskoletako ingurune fisikoak neska eta mutilei eskaintzen dien baldintzekin alderatuz (Vives eta Galarraga, 2015) jolas orduan neska eta mutilek nola jokatzaren duten eta umeen patio jarduna baldintzatzen duten eragileak zeintzuk diren jakiteko.

Patioa denborazko espazio bat izateaz gain harreman sozialekin erlazio estua dauka (Serra, 2014), horregatik jolastokia haurrentzako sozializatzailea izan behar da, hau da ikasleen artean harremanak sustatzen dituenak.

Ikerketak azalatu zuen ondorio nagusia, Euskal planak egiaztatzen duen eta lan honen bigarren puntuan azaldu den errealitate berdina da: patioaren zona desberdinen banaketa guztiz sexista da, hau da neska eta mutilek portaera oso estereotipatuak izaten dute. Desoreka oso handia dago futbolari edo bestelako jardueri eskaintzen zaizkien baliabide eta bideen artean. Ondorioz, neska zein mutilentzat ingurune egokiak bultzatzeko eskoletako kanpo espazioek genero ikuspuntu berritzaile eta pedagogikoekin bateratutako era askotako espazio irekiak eskaini beharko lituzkete, estereotipo horiei aurre egin ahal izateko; eta patioa ikasle guztien mutil zein nesken beharrei, gustu eta espektatibei erantzuna eman beharko lieke (Fernández eta Eizaguirre, 2014; Gallastegui, 2018; Vives, 2014; Vives eta Galarraga, 2015).

Aurrekari hauekin ez da harritzekoa Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailek sorturiko «*Hezkuntza sisteman hezkidetzaren eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida*»-n honako puntu hau azaltzea (Vives eta Galarraga, 2015):

“Zenbait azterlanek eskoletako espazioak aztertu dituzte, baita nola erabiltzen diren ere, eta ondorioztatu dute genero adierazlea erabakigarria dela. Garbi geratu da jolastokian eta jolasteko eremuetan espazioaren banaketa sexista dela oraindik ere. Jolasen hierarkiagatik, nesken eta mutilen jokabideengatik edo jolastokiaren espazioa antolatu gabe egoteagatik, mutilak erdialdean kokatzen dira eta neskak bazterretan” (Vives eta Galarraga, 2015).

Jolas orduak eraldatzeko behar bat dagoela esaterako orduan, benetan esan nahi dena, bere abantaileri etekina atera behar dizkiegula esan nahi du. Hau da, denbora horretan agertzen den gehiegizko futbola, agresibitatea, lehiakortasuna, jokaera sexistak eta dagoen sormen eskasari aurre egin beharra dagoela (Mazón eta García, 2005). Berdintasunera bideratutako eraldaketa soziala edo transformazioa gertatzeko, elementu dinamizatzaile desberdinak erabili beharko dira. Modu horretan patioaren barruan ekitate eta berdintasun printzipioak betetzea, parte hartzerako orduan aukera izatea, ikasleria guztiaren garapen iraunkorra garatzea... lortu daiteke (Giménez, 2018b).

Espazioaren eraldaketaren helburu nagusietako bat hierarkiak apurtzea da erabileran gertatzen diren genero-estereotipoekin bukatuz (Larramendi, 2016) patio hezkidetzailen alde eginez, non haur guztien arteko berdintasuna goستن den (Mas, 2019). Bestelako helburu garrantzitsua ikasleen partaidetza aktiboaren bidez ezagutza eskuratzea da, baita berdintasun printzipioen, aniztasunaren, lankidetzaren, justiziaren eta errespetuaren pean komunitatean bizitzeko prestatzea (Saldaña, 2018).

3.1.3. Pilotekin jolasteko espazioaren mugaketa

Pilotekin jolasteko espazioak, pistak edo zelaiak gehienez patio osoaren %50a hartu beharkok zuen gehienez. Modu horretan ikasleek beste kideekiko lehiakortasuna gutxituko lukete eta kooperazioa gehiago sustatuko litzateke. Horrela patioaren espazio zentral eta hoberenak beti haur berdinek menderatzearen errealitatea apurtuko da (Saldaña, 2018) eta horretarako oso baliabide ona izan daiteke G.H.-n Unitate Didaktikoak (U.D.) sortzea.

Idea horren aplikagarritasuna Huelbako Molière ikastetxean ikus daiteke. Bertan Gorputz Hezkuntzako hezitzaileak *“Nirekin jolastu nahi?”* U.D.-a diseinatu zuen bere klaseetan aurrera eramateko, beti ere patioaren dinamikarekin elkarlotuz. Gorputz Heziketan egiten dituzten joko eta dinamika asko, gero patioan aurrera eramateko baliabide bilkatzen dituzte, hortaz bata bestearekin konplementatu egiten dira. Modu horretan ikasleek klasean ikasten dituzten arau eta joko berriak gero modu autonomo batean aurrera eramateko gai izango dira. U.D.-a aplikatu ondoren ikusi zuten ikasleria gehiago inplikatu zela patioaren dinamikaren barruan, patio inklusiboagoa lortuz, non ikasleria guztia parte hartu zuen modu aktiboago batean (Morán, 2018).

3.1.4. Aktiboa

Patioa, jolas librea bere osotasunean garatzen den lekua bezala goستن duten bestelako autoreek, Martínez et al.-ek, honako definizioa ematen dute *“patioa egunerokotasuneko momentu berezia da, trebetasun motorren inguruan artikulatutako elementu desberdinetaz osatutako eskola- kulturaren osagai bat”* (Serra, 2014). Horregatik, toki hauen diseinuek eta ezaugarri fisikoek eta hauen kudeaketa ereduak umeen jokaeran eta jarreretan eragin handia duten mezuak eta ikasketak transmititzen dituzte (Antolín et al., 2017).

Eskola patioak funtsezkoak dira haurren gizarte garapenerako eta gorputz hezkuntza lantzeko tresna moduan (Vives, 2014). Pellegrinik garatutako eta Watkinson et al.-ek jasotako teorien arabera patioan jarduera fisikoaren inklusioa egiteak haurren osasunean eta garapen fisiko, sozial eta kognitiboan, inplikazio garrantzitsuak izan ditzake (Serra, 2014).

Beraz, arazo bilakatu diren haurtzaroko osasun erronkak betetzeko aukera paregabea izan daiteke patioa (García, 2016) bizimodu sedentarioaren mehatxuaren

aurrean, helburua izanik jarduera fisikoaren maila igotzeko espazio egoki bat eraikitzea (Contreras, Prieto, Leon eta Infantes, 2018). Hau da, patioa berreraikitze eta berrantolatzearen alde egin behar da, patioa jarduera fisikoa egiteko funtsezko espazioetako bat izateko (Sallis, 1995 in Contreras, Prieto, Leon eta Infante, 2018).

OMS-eko Osasun Publikoko Aldizkari Panamerikanoan argitaratutako New York-en egindako ikerketa batean ondorioztatu zuten ikastetxetako patioetan programa hezitzaileak aplikatuz gero ikasleen jarduera fisiko aktiboaren ehunekoa %52-a igo egiten dela dinamizatzaile moduan irakasle bat egoten denean eta % 44-a igo egiten dela dinamizatzeke hezitzailerik gabe (OPS eta OMS, 2019).

Pertzentil horiek ikusita patioa, funtsezkoa da nazioarteko erakundeek proposatutako jarduera fisiko mailak lortzeko (Martínez et al., 2012 in Contreras, Prieto, Leon eta Infantes, 2018), bai Gorputz Hezkuntzako eremuan, bai jolas orduan zehar (Contreras, Prieto, Leon eta Infantes, 2018).

Danimarkako eskoletan, Drøn på skolegården deituriko kanpaina bat egin da, jarduera fisikoaren ikuspuntutik ezagutza eta ikuspegi berriak sortu eta bultzatzeko. Bere helburua eskola orduetan nahiz eskola orduetatik kanpo jolastokien inguruan hausnarketak egin eta jarduera fisikoa eta jolasa sustatuko dituzten irizpide berriak sortzea da. Jarduera fisikoaren sustatzea espazio eta jolaserako ekipamendu berriztatzaileak eraikiz lortu nahi da kasu hauetan, haurrak eta gazteak jolastera eta mugitzera gonbidatuz (Vives eta Galarraga, 2015).

Ikerketa burutzeko bi metodologia erabili ziren, alde batetik kuantitatiboa (GPS, azalerometroa eta monitore kardiako bidezko neurketak) eta bestetik lan honetan proposatzen dudan metodologia kualitatiboa, behaketaren eta elkarrizketen bitartez egiten dena (Vives eta Galarraga, 2015).

3.1.5. Zonalde desberdinak

Azaldu egin den patio hezitzaile, hezkidetzaille eta aktiboa lortze aldera gorago aipatu izan dugun Austrian egindako ikerketak dio kanpoko espazioen garapen egokirako, beste alor batzuekin batera, espazioen banaketa eta ezberdintzea egitea beharrezkoa dela: mugitzeko, komunikaziorako, erlaxatzeko, ikasteko, ikertzeko... espazio desberdinak sortuz besteak beste (Vives eta Galarraga, 2015).

Ikastetxeen patioak ikasle guztiei jolasteko aukera eskaini behar die, horregatik jarduera, kirol eta joko-jolas desberdinak aurrera eramanez ahal izateko zonalde desberdinak egon beharko liriateke. Modu horretan ikasle guztiak aktiboki integratuak egotea lortu daiteke (Mazón eta García, 2005; Soto, 2017). Asialdirako joko eta jolas anitzak dituen mugatutako eta antolatutako espazio batek, haurrei gehien gustoko duten jarduera hautatzeko eta horretan aritzeko askatasuna ematen die. Modu horretan ikasleria guztiak

onurak izango lituzke sozializatzeko eta beste umeeekin harremantzeko, baita jolasteko aukera handiagoak ere (Morán, 2018).

Patia txoko desberdinetan antolatuta egonez gero, aniztasuna egoteko aukera gehiago egongo da eta ez betiko kirol maioritarioak patio osoko espazioa hartzeko. Antolaketa orekatua lortzeko beharrezkoa da guztion artean arategi bat adostea, bizikidetzaz hobetzeko asmoz. Arau horiek finkatu ahal izateko aurretik hausnarketa bat egitea beharrezkoa da patio orduetan ikasleek izan dituzten bizipen, arazo, liskar eta pertzepzioak kontutan hartzeko.

Adin, kurtso eta gela desberdineko ikasleak beraien artean harremantzeko estrategia ezin hobea izango da, baita ere; patio aberasgarriagoak lortuz. Bai eta neskak eta mutilak gehiago nahasteko estrategia ona, generoarengatik sortzen diren desberdintasunak alboratuz. Ikusiko da orokorrean ikasleria guztia motibatuagoa dagola horrelako patioetan, aktibotasun eta parte hartze handiagoa dagoelako. Gainera sormena eta irudimena lantzeko aukera gehiago izango dituzte.

Amparo Tomé soziologo feministak etorkizuneko apustu bat egiten du, "*Patia tridimentsionalena*" non ongi desberdindutako zonaldeak bereizten dituen. Lehenengoa joko motorra bideratua non jarduera fisikoa sustatzen den (Gallastegui, 2018). Mugimendua eragiten duen espazioa izango denez, haur askok euren psikomotrizitatea garatzeko eta mugitzeko aukera izango dute. Horretarako eskalatzeko guneak, korrika egitekoak, saltoka ibiltzekoak, zirkuitu ezberdinak... jarri daitezke. Espazio horretan kirol eta jolas desberdinak egiteko aukera eskainiko da baita ere, patioan futbolaz gain, bestelako kirolak ez ezik, belaunaldiz belaunaldi transmititu diren jolasak egiteko aukerak irekitzea ere egokia da; hala nola, soka-saltoa, ezkutaketako jolasak, harrapaketa, pilotakoak... (Auzmendi et al., 2018).

Bigarren zonalde bat lasaitasunera bideratua egongo da, hitz egiteko eta joko-jolas lasiak aurrera eramateko egokia (Gallastegui, 2018). Haurren garapenerako fase batean jolas-sinbolikoak berebiziko garrantzia hartzen du, eta, beraz, ahal izanez gero horretarako eremuak ezartzea aholkatzen dute adituek. Beti ere, material egituratu gabeak eta naturalak lehenetsiz; eta aldi berean, era bateko zein besteko txokoak, gordelekuak eta intimitatean egoteko eremuak sortuz (Auzmendi et al., 2018).

Oro har gelan geldirik egon arren, patio orduan ere zenbait hurrek lasai egotea, pasiatzea edo kontutan aritzea nahiago izaten dute. Denbora libre hori modu ludikoan eta lasaian igartzeko ezin egokiagoak izan daitezke mahai-jokoak. Horiek patiora ateratzea aukera paregabea da, gainera eskola gehienetan eskuragarri egon ohi dira (Auzmendi et al., 2018).

Hirugarren eta azkenengo zona mota, naturarekin kontaktuan egotekoa da, baratza, landaredia, animaliak agertuko diren zonaldea (Gallastegui, 2018). Bertan aukera anitzak izango dituztenez, bizikidetzaz hobetu eta dialogoa handitu egingo da eta haurrak zioriontsuagoak egongo dira (Giménez, 2018a). Naturarekin kontaktua izatea garrantzitsua da eta bereziki eskolako lehen urteetan; horretarako, eskolako patioan espazio berdeei leku egin dakieke eta egurrez, landarez, harriz... hornitu.

Natura gehiago behar dela aldarrikatu egiten du Mikel Olaizolak; berdeguneak, zuhaitzak, baratza... gure ikasleek natura zaintzea, ematen diren aldaketez jabetzea, prozesu ezberdinak ikusi eta bizitzea eragiten dutela esanez (Antolín et al., 2017). Adibidez, "O Noso Patio" programak defendatzen du berdea patioan egotea espazioaren humanizazioari laguntzen diola, zenbat eta berde gehiago, estres gutxiago eta erresilientzia eta garapen kognitibo handiagoa (García, 2016).

Zentzu horretan, jolaserako, esploraziorako eta esperimentazio indibidual nahiz kolektiborako aukera handia ematen duen antzeko eremua hondartegia izan ohi da. Eskola zenbaitetan, berriz, baratzak ezartzen ere ari dira naturaren eta bizitzaren zikloak esperimentatzeko ez ezik, zaintzen ikasteko ere balio dutelako (Auzmendi et al., 2018).

Egituraren ikuspegi orokorra izatea beharrezkoa da espazio atseginak, polisentsorialak, dibertsifikatuak, landaredia daukatenak, zuhaitzak, bankuak, plataformak dituztenak ... joko asmatzailea sustatzen lagunduko dutenak eraiki ahal izateko (Cols eta Fernández, 2016).

3.1.6. Jolas arriskutsua

70. hamarkadaren amaieran, guraso asko beldurtu egin ziren patioek ekar zitzaketan arriskuengatik. Jolasteko espazioak aldatu ziren eta altzairuzko jolastokiak gomazko gainazal handiengatik aldatu ziren (Barry, 2018). Modu horretan, patioetan erorketak balaztatzen dituzten gomazko zelaigune handiak jarri ziren (The Community Design Collaborative, 2016). Horrek patio berrien kostua asko handitu zuen.

Errealitate horren aurrean Britainia Handiko hezitzaile askok diote gaur egungo kulturak haurrak gehiegi babesten dituela, haurtzaroko arrisku osasuntsuak eliminatuz (Barry, 2018). Egi osoa, gaur egun, arrisku guztiak kendu eta haurrentzako mundu segurua bultzatzen da, jolas arriskutsua desagertuz doan heinean (Grove, 2018 eta Bolt, 2019). Gizarteak obsesio bat dauka haurrak seguru mantentzearekin eta arriskua murrituarekin (Beate Hansen, 2010; Bolt, 2019; The Community Design Collaborative, 2016). Gainera haurren jokoan gehiegizko segurtasun ikuspegia arazo larria izan daiteke, txikiak erronka eta estimulua behar dituztelako fisikoki eta adimena garatzeko (Beate Hansen, 2010).

Bizitza arriskugarria da, bizitza min egiten du eta jolasa hurrek bizitzaren inguruan ikasteko daukaten erreminta da. Hortaz planteatu behar dugun zalantza da, haurrak seguru mantetzeak zaindu edo kalte egiten dien (The Community Design Collaborative, 2016). Txikiak diren heinean mugatutako arriskuen aurrean jartzeak, bizi irauten laguntzen die. Hughesek esaten duen moduan *“umeari ez bazaio arriskua eta gaitasun sortzaileak garatzeko espazioa eskaintzen, noiz hartuko ditu arriskuak, nagusia denean? bertan hare gutxiago”* (Barry, 2018).

Beraz, jolas parkeetan segurtasuna nahi den arren, horrek ez dio jolasari gehiegi laguntzen (Vives eta Galarraga, 2015). Arazoa da, segurtasuna lortzen saiatzerakoan ondorio okerrago bat agertzen dela, asperdura. Asperraldia ez da zerbait negatiboa, baina gaur egun patioetan agertzen ari den aspertzea zerbait berria da (The Community Design Collaborative, 2016). Ondorenez, arrisku maila bat daukan patioa erakargarriagoa izango da, ikasleengan lorpen sentimendua eragingo duelako.

Patioak arriskutsuagoak egitea jarduera fisikoa sustatze aldera, British Columbiako Unibertsitateko eta B.C. Haur Hospitaleko Haur eta Familia intitutuak egindako ikerketek diote, arriskua haurtzaroko garapenerako oinarritzko esperientzia izan behar dela. Mariana Brussoni bezalako ikertzaileek diotenez erresilientzia, konfiantza, sormena, harreman sozialak, ausardia eta funtsezko trebetasunak garatzeko eta eraikitze erabilgarria delako (Barry, 2018; Brussoni, 2015; Grove, 2018 eta Osler, 2016). Arriskua dagoen esparru batean jolasterakoan hurrek beraien mugak hobeto ulertzeko eta kudeatzeko aukera izango dute. Beren trebetasunen inguruan konfiantza garatuko dute eta motrizitatean kompetenteagoak izateko aukera handiagoa izango dute (Grove, 2018).

Arriskuak hartzea haurren jolasaren zati natural bat da (Aldis, 1975; Smith, 1998 eta Stephenson, 2003 in Beate Hansen, 2010) eta menderatu arte beldurtu egiten duen esperientzia berri eta zirrargarri bat (The Community Design Collaborative, 2016). Ellen Beate Hansen Sandsetereren, *“Scaryfunny”* tesian azaltzen da hurrek maiz jolas fisikoak, erronka dutenak eta arriskutsuak direnak hautatzen eta burutzen dituztela, beldurra, euforia eta emozioekin lotura daukatelako, hurrek sentimendu nahasi hori, zorion-beldurti sentimendua, gustuko bai dute (daudelako (Aldis, 1975; Smith, 1998; Stephenson, 2003 in Beate Hansen, 2010; Beate Hansen, 2010).

Tumbling Bay Playground-etan, zuhaitzetako etxe altuak, zubi mugikariak, adar naturalez osatutako eskalatzeko dorre altuak, belar luzea, area ... ezarriak daude eta Ingalaterrako, Shoeburyness herrialdeko ikastetxeak arriskuaren alde egiten du baita ere eta bertako patioan labanak, zerrak, erreminta desberdinak ... dituzte hori bai beti hezitzaileen begiztapenean (Barry, 2018).

Ingelesek arriskua onartu zuten eta orain “*abentura patioak*” bezala izendatuak izan diren jolaslekuak egiten hasi ziren. Modelo hori jarraitzen duten espazioak oso gutxi dira oraindik eta 9-13 urte bitarteko haurrei bideratuak egoten dira. Espazio horiek garapenerako eta dibertitzeko aukera paregabeak ematen bai dute (The Community Design Collaborative, 2016).

Harritzeko da, mota honetako patioak istripu tasa oso baxua izatea. Arrazoa da umeei arriskua ulertzen dutela eta beraien portaera neurtzen dutela, emango duten pauso edo egingo duten mugimendu guztiak ebaluatuz (The Community Design Collaborative, 2016). Haurrek arriskua ikusten dutenez normalean behin egiten dute min, ez gehiago. Patioan umea arriskuak hartzeko aukera izango du kontrolatutako jolas espazio batean, eta ez erregulatu eta kontrolatu gabeko munduko edozein lekutan (Barry, 2018). Patioaren diseinuak umeei mezu argi bat transmititzen die, helduok beraiengan daukagun konfiantza maila (The Community Design Collaborative, 2016).

3.2. Daukagun patioaren azterketa sakona

Egoera zehatz batean, daukagun patioaren azterketa sakona egitea beharrezkoa izango da gero eraldaketa bat edo berriketa bat aurrera eraman ahal izateko. Horretarako Dafne Saldaña Blascok jolastokiaren ezaugarri zehatz batzuk aztertzea proposatzen du, ikasleen arteko harremanak eta espazioari berari ematen zaion erabilera zein den jakitea ahalbidetuko diguten alderdi desberdinak zeintzuk diren jakiteko. Horrela aukera izango dugu ikusteko patioa integratzailea eta aktiboa den edo ez modu kualitatibo batean (Saldaña, 2018).

Alde batetik aniztasuna neurtuko da, hau da elementu eta espazioen aniztasuna eta horien ezaugarriak. Bestetik malgutasuna, egoera eta erabilera ezberdinetara egokitzeko gaitasuna. Interrelazioa begitatzeko, harremanak, distantziak, mugak, proportzioak edo ikusgarritasuna aztertuko dira. Horiekin batera erosotasuna, pertsonen ongizatearekin eta jardueren garapen egokiarekin erlazioa daukana. Azkenik adierazgarritasuna, honekin aztertu egingo dena emakumezkoen eta gizonen agerikotasun sinbolikoa eta errealia izango da eta horrekin batera erabakiak hartzerako orduan genero bakoitzak daukan parte hartzea eta ikusgarritasuna.

Lanaren 2.3.1. puntuan aipatu izandako “*Elkartoki*” eta “*O Noso Patio*” programek, behetik goranzko sormen prozesu kolektiboan oinarritzen dira eta zera proposatzen dute: jolastokia aztertzea, horri buruzko hausnarketa egin eta esku-hartze posibleak irudikatzea, azkenik, jolastokietan ematen diren erabilera zein dinamikak aldatuko dituen eraldaketa fisikoa egiteko (Antolín et al., 2017; Auzmendi et al., 2018). Ondorenez, beraien esperientzia abiapuntutzat hartuz lau pauso proposatzen dira honako puntuan, geroago jolastokiaren berritzea egin ahal izateko: patioa aztertu, patioa ezagutu, patioa ulertu eta patioa imajinatu

baliabideak aurreikusiz. Modu horretan nahi dugun patio ideala lortu ahalko dugu, beti ere eskuragarri dauzkagun baliabideak aurreikusiz.

Hala ere, aurrera eramango den programak ez ditu lau fase horiek bete behar, eskolaren behar, denbora eta baliabideei moldatu beharko da. Aurretik diagnosis eginda badago, beste faseetara pasa gaitezke zuzenean (lan honen 4.puntutik aurrerakoak), edo batean bakarrik jarri nahi baldin bada indarra, horretan gelditzeko aukera dago. Proiektu bakoitza testuingurura egokitu behar da (Antolín et al., 2017) eta helburu nagusienetariko bat jolastokien eraldaketa fisikoa izaten den arren, horren aurretik lan asko dago, prozesu osoan indarra jarri beharra dago, hortxe gauzatzen direlako aldaketa nabarmenenak (Antolín et al., 2017).

3.2.1. Patioa aztertu

CEIP Sanjurjo de Carricarte ikastetxean aurrera eramandako “O Noso Patio” programak dio prozesuaren hasieran, informazioa eskuratzen joateko beharrezkoa dela zirkuluak eta taldeak sortzea. Modu horretan dialogo espazio desberdinak sortuko dira: familiak eta gurasoak, hezitzaileak, ikasleria eta hezitzaileak ez diren bestelako hezkuntza komunitateko kideak. Hori egin ostean talde bakoitzeko partehartzaile bakoitzak aditzera eman beharko du ze nolako inplikazio maila hartuko duen, guztion artean poliki-poliki antolatzen joateko.

Eskola barruan erreferentziazko gela edo leku bat hartzea ondo egongo litzateke baita ere. Patioa berriztatzeko leku hori izendatu egingo da eta modu horretan ikasleak gelarekiko atxikimendu sentimendua izango dute eta errealitate horrek umeak proiektuarekin gertutasun gehiago izatea eragingo du.

Prozesu hasierako batzarrak egingo dira adostu beharreko hainbat aspektu argitzeko: *Nork parte hartuko du? Talde motore bat osatuko da? Eskola osoak hartuko du parte? Zelan bermatu gainontzeko ikasleen parte hartzea? Nola integratuko da proiektua eskolan? Zenbat ordu eskainiko zaizkio? Zelan txertatu curriculumaren barruan? Nola zabalduko diogu informazioa eskola komunitate osoari?* (Antolín et al., 2017).

Behin hasiera puntua zein den jakinda ikasleekin patioaren inguruan elkarrizketak izateko tailerrak antolatzea ondo egongo legoke seme-alaben benetako sentimenduak eta beharrak ezagutzeko eta patioan ze nolako aliantza eta mehatxuak dauden jakiteko (Cols eta Fernánde, 2016). Espazio hori aztertzeke teknika desberdinak erabili daitezke, 2005-2007 urteetan Austriako 20 ikastetxetan aurrera eramandako “Eskola patioak eta generoaren arteko harremanak” ikerketan bezala: lehenengoa eta errazena behaketa zuzena, bigarrena urteko 60 jolas orduetan gertatu zenaren bideo grabaketan aztertzea eta hirugarrena irakasle eta ikasleekin elkarrizketak eta tailerrak (Vives, 2014). Horietaz gain,

bestelako dinamikak existitzen dira baita ere, adibidez rol joko bat egitea, ikasleen pertzepzioa zein den jakiteko oso aproposa dena.

Virginia Navarro Martinezek dio bost kalitate parametro kontutan izateak kalitatea ekarriko digula gure patio idealera. Horiek kontutan izateak jolaslekuen proposamenen kalitatea ahalbidetzen du (Antolín et al., 2017) horregatik patioaren azterketa egiterakoan oso baliagarriak izango dira. Horietan arreta jartzeko patio- ikuskatzaileen teknika erabili daiteke, talde heterogeneoak sortu eta patioa aztertu beharko dute, datuak aterako dira gero mahai inguru batean azaltzeko eta horien inguruan hausnartzeko. Datu horiek atera ahal izateko hona hemen parametro batzuk azterketa errazagoa izateko

➤ **Erabilerraztasuna eta mugikortasuna:** helburua eskolan jolaslekua duen mugikortasuna aztertzea da; *gurasoak batzeko bilera-gunerik al du? Inklusiboa al da, aniztasun psikiko zein fisikorako? Baita eskolako eraikinaren barne eta kanpo harremanak aztertzea; gizarte harremanetarako funtsezko tokietatik, hala nola jangela, arte-aretoa, musika gela, auditorioa, ikasgelak erraza al da bertaratzea? Hau da, eremuak elkarri egoki lotuta al daude?* (Antolín et al., 2017).

➤ **Erosotasuna eta irudia:** pertzepzioko parametroetan oinarritzen da, horien artean; *segurtasuna, garbitasuna, landaretza ugaritasuna, lekualdatzeko ematen duen aukera, leku erosoak eta eserlekuak, leku lasiak eta itzala dutenak dauzkan ala ez, erakargarritasun bisuala, uraren presentzia, usain, kolore, testura eta soinuen bitartez zentzumenen estimulazioa gertatzen den edo ez ...* (Antolín et al., 2017).

➤ **Erabilerak eta ekintzak:** kanpoko espazio egoki batek jarduera anitzak baimendu behar ditu edozein generorako eta aldi berean aniztasunerako; proposamen dibertigarriak barne-bildu behar ditu; haurrentzako erabilgarria izan behar da, hau da espazio pedagogikoa, soziala eta jolasgarria; modu iraunkorrean eta parte hartzailean garatu behar da, denboran zehar aldatuz. Bestelako alderdi garrantzitsu batzuk, *ba al dauka espazioaren diseinuak irakaskuntza-ikaskuntza mota desberdinak emateko aukera? Jarduera desberdinak egiteko aukera ematen al du, hala nola, banakako zein taldekako ikaskuntzak? Erakustaldiak eta arte-emanaldiak egiteko egokia al da?...* (Antolín et al., 2017).

➤ **Sozializazioa:** parametro honek, ingurunearekin elkar-eragiteko, erabiltzaileen arteko lankidetzak sustatzeko, dibertsitatea sustatzeko, elkarrekintza soziala sustatzeko, baita harrera espazio gisa duen ahalmena, neurtzeko gaitasuna eta ahalmena zein den ikusten lagunduko gaitu. *Patioak harremanetarako leku ugari eskaintzen al ditu, espazio lasai eta lasaigarrietatik toki zaratatsu eta dinamikoetara? Bere diseinuak eragiten al du bola-jokoek beste batzuen erabileraren menpe egotea?* (Antolín et al., 2017).

3.2.2. Patia ezaqutu

Patiaaren azterketa egin ondoren aztertu beharreko datu eta informazioa egongo da. Patiaaren inguruko beharrak eta desioak identifikatuz gero, dinamika ezberdinen bidez eskolako patiaak sortzen dituen jarrera eta sentimenduak behatu, ulertu eta hauen inguruan hausnartu ahal izango da (Antolín et al., 2017).

Hausnarketa hori bideratzeko ikastetxe osoan galdetegi bat egitea teknika ezin hobea izan daiteke. Bertan mota honetako galderak agertu daitezke: *Zer elementuak faltan daude? Zeintzuk daude soberan? Zer gehitu behar da?* Nahi duenak erantzun ahal izango du eta gero papera postontzi batean sartu. Txikienek irakurtzen eta idazten ez dakitenez beraiei bestelako teknika bat erabiliz egin ahal zaie galdetegia. Patia nola ikusten duten eta nola gustatuko litzaielike patia izatea margotzeko eskatu zaitzake.

Horrelakoak aurrera eramaten baldin badira horien jarraipen bat egitea beharrezkoa izango da, hortaz prozesua aurrera doan heinean batzarrak egin beharko dira. Horietan galdetegiaren emaitzak atera eta horien inguruan hausnartu egingo da. Bilera horiek irekiak izatea ondo egongo litzateke komunitate osoko parte hartzaileak beraien ikuspuntua eta ideiak elkar-banatu ahal izateko (Lafuente eta Horrillo, d.g.).

3.2.3. Patia ulertu

Patia aztertuta, hau da behin ikasleen eta irakasleen pertzepzioak eta bizipenak entzunda eta ezaqututa, horiek aztertu eta hausnartu egin behar dira. Modu horretan sortzen diren arazoak ulertu ahal izango ditugu konponbide bat eman ahal izateko; hona hemen aurkitu izan diren eta lehenetsi behar diren batzuk (Saldaña, 2018):

- **Kolore falta:** patiaak orokorrean oso grisak izaten dira, hortaz beharrezkoa da kolore gehiago jartzea paretetan, muralak eginez edo lurzoruan lurreko jolasak jarritz. Arbelak jartzea ideia egokia izan daiteke. Normalean zementu asko egoten da, horregatik hezitzaileok saiatu behar gara hori abegitsuagoa izatea (Saldaña, 2018).
- **Joko, jolas eta material falta:** haurrak beti joko eta jolas berdinetan aritu egiten dira. Hortaz material desberdinak eta berriak eskura ematea ideia egokia izan daiteke, baita eraikuntza desberdinak jartzea ere (Saldaña, 2018).
- **Segregazioa:** patiaaren gehiengo espazioa pilotekin jolasteko kirol pistek hartzen dute segregazioa eraginez. Egoerak estereotipoak indartzera laguntzen du eta arazo askoren sortzailea da. Egoera orekatu beharra dagoenez ikastetxe batzuetan pilota gabeko eguna ezarri egin da, baina hori ez da nahikoa egoerari aurre egiteko (Saldaña, 2018).

- **Intimitaterako espazio falta:** jarduera fisiko gutxiko ariketak egiteko edo eta lasai asko egoteko espazioen falta dago, non esertzeko, irakurtzeko, hitz egiteko edo hamaiketakoa lasai hartzeko aukera dagoen (Saldaña, 2018).
- **Landaredi falta:** landare, zuhaitz, belar, natura ... falta dago, gehienetan ez garelako konturatzen landarediak izan dezakeen alderdi hezitzaileaz (Saldaña, 2018).
- **Arau falta:** normalean ez daude inolako araurik ezta zonalde mugatzailearik patioetan eta segregazioa agertu egiten da adin eta generoaren arabera. Errealitate horri aurre egiteko bizikidetzeta eta zona desberdinetan bete beharreko arauak jartzea beharrezkoa da. Arauekin orekatuagoa egongo litzateke eta neskak eta mutilak baterako arituko lirateke. Modu horretan ikasle orok zona guztietan jolastu ahal izango du baina zona bakoitzak bere arau propioak izango ditu (Saldaña, 2018). Hezkidetzaren laguntzaz ikasleek ikastetxera dakartzaten genero rolei aurre egingo zaie, espazioa zonalde desberdinetan banatuz, modu horretan ikasleria guztiaren behar desberdinetara erantzun ahal izateko. Ez da jardueren inolako nagusitasunik egongo (Giménez, 2018a).

Interesgarria da jarduera espezifikotarako espazioak ezberdintzea: mugitzeko, komunikaziorako, erlaxatzeko, ikasteko... hezkuntza soziala, pertsonala eta naturarekikoa ahalbidetuko dituzten guneak aurreikustea, guztiei garrantzia bera emanez. Zentzu horretan aipatzekoa da Danimarkako Skade eskolan Rosan Bosch arkitektura estudioak diseinatutako jolas-eremua. Adin ezberdinetako umeak ariketa fisikoa egitera bultzatzea helburu duena (Larramendi, 2016).

- **Jarduera espezifikoak:** patioaren estrukturazioak eragiten du umeak ariketa eta kirol zehatz batzuetara jolastea, beraien aukerak eta sormena mugatuz. Horregatik Dafne Saldañak esaten duen bezala: *“Jarduera desberdinak aurrera eramateko aukera eman ahal izateko patioa malgua izan behar da, jarduera eta joko-jolas espezifikoak gidatzen ez dituen”* (Gallastegui, 2018).
- **Gatazkak:** patio orduetan ikasleak libre aritzen dira eta askotan liskarrak, arazoak, borroka eta gatazkak sortzen dira ikasleen artean. Horregatik indarkeriarik gabeko testuinguruak sortzea ondo egongo litzateke, horrek esan nahi du eskolan inork ezingo duela inor jo, edo norbaitek jo egiten badu, gainerako ikaskideek jokabide hori ukatu edo gaitzetsi egingo dutela. Indarkeriarik gabeko jolastoki seguruetan ikasleek aukera gehiago izango dituzte hobeto ikasteko, solidaritatea zer den ikasteko eta ulertzeko aukera gehiago izango dituztela zoriontsu izateko. Halaber, esan nahi du aukera paregabea dela etorkizuneko herritar justu eta zoriontsuagoak hezteko, eta batez ere, pertsona horiek askatasuna izango dutela edozein indarkeriatik libre dauden harremanak aukeratzeko, genero-indarkeriatik libre daudenak barne (Antolín et al., 2017).

3.2.4. *Patioa imajinatu baliabideak aurreikusiz*

Virginia Navarro Martinezek dio gizarte, jolas eta pedagogia alderdiak kontutan hartzen baditugu patio ideala eta arrakastatsua imajinatzea posible izango dela. Hortaz, interesgarria izango litzateke erabiltzaile bakoitzak jolaslekua beren ezagutza potentzialen arabera imajinatzea: irakasleek izan nahi duten espazio pedagogikoa, ikasleek jolasteko eta harremantzeko nahi duten espazio dibertigarria eta gurasoak administrazioarekin batera belaunaldien arteko parkea eta eskolaz kanpoko orduetan auzoarekin lotura aktiboa izateko espazioa (Antolín et al., 2017).

Irudimena lantzea eta bestelako errealitateak imajinatzea sekulako garrantzia du. Horregatik egin beharrekoa ez da futbol zelaia edo bankuak jartzea erabakitzea, baizik eta zerbait erabat diferentea asmatzea. Bakoitzaren barneko premia, nahi eta desioen isla izango dena (Auzmendi et al., 2018) errealitateari aurre eginez (Antolín et al., 2017). Urrats hau aurrera eramateko “*O Noso Patio*” programan ikasleei ipuin bat irakurri zitzairen gaiarekin lotura zeukana beraien sormena aktibatzeke xedearekin, patio ideala imajinatzeke, galdera pizgarriak erabiliz. Ondoren maketa lehiaketa tailer bat antolatu zen eta oso emaitza onak izan zituen. Haurrek beraien lantxoetan patioa eraldatzeko eta hobetzeko adibide pilo eman zituzten.

Ttipi Studioko kideen esanetan, garrantzitsua da utopiak eraikitzea eta utopien diseinu horretan haurrei protagonismoa ematea. Baina horrez gain, eskola bakoitzak bere proiektu pedagogikoaren arabera zer-nolako utopia daukan ere ikertu behar du, patioa eskola bakoitzeko proiektu pedagogikoan txertatuta egon behar delako (Auzmendi et al., 2018) eta proposatzen diren ideiak eskuragarriak izan behar direlako.

Norbanakoaren desioa, erronka kolektibo batean bihurtzea lortu beharra dago. Lluís Sabadellek bere aurre-sorkuntza prozesuan definitu bezala, erronka definitzea prozesuaren puntu garrantzitsuenetako bat da. Erronkak argi eta garbi zehaztu behar du zein den gure proiektuaren azken xedea eta kontutan hartu baldintza eta limite material, ekonomiko eta espazialak, gainera aldatu ezin diren alderdiak egon daitezke, hortaz horiek baztertu beharra dago (Antolín et al., 2017). Espazioak dauzkan mugak detektatzea funtsezkoa da. Ikastetxeak momentu horretan dituen baliabideak aurreikusi beharko dira: *pertsonak, denbora, materialak, jakintza espezifikoa eta dirua* beste batzuen artean (Antolín et al., 2017).

Proiektua ekonomikoki bideragarria eta pedagogikoki interesgarria izan dadin, ezinbestekoa da eskura dauden materialak berrerabiltzea, hau da, ingurunean dauden materialak eta baliabideak lokalizatzea. Buenos Aireseko 77 Kolektiboaren irakasleek esaten duten bezala: “*Eskura daukagunarekin eraikitzea, irudimena aktibatzeaz gain ametsak betetzea ahalbidetzen duen, lan filosofia bat da*”. Ziur asko, eskura dauden

materialak berrerabili ordez berriak erabiliz gero prozesua ez dela hain interesgarria izango (Lafuente eta Horrillo, d.g.).

Espazioa berrantolatzerako orduan, lekuko material naturalak izango dira espazio sentsorialak sortuko dituztenak, *musika, antzerkia, paseoak, elkarrizketak, proiektuen eraikuntzak, baratza...* agertuz (Cols eta Fernánde, 2016). Horretarako erabili daitezkeen lehengaiak: *metalak, egur gogorak estrukturak egin ahal izateko oso erabiliak diren Euro palletak eta pneumatikoak* (Lafuente eta Horrillo, d.g.).

Material berrerabiliekin lan egingo denez ez da diru asko behar izango, baina bai elementu minimo batzuk, horien artean pintura, torlojuak... diru hau lortzeko diru bilketa bat egin daiteke jaialdiren bat prestatuz. Bestalde, programan parte hartuko duten guraso, irakasle zein bestelako pertsonak beraien etxeko erremintak partekatzea egokia izango litzateke dirua horretan erabili behar ez izateko (Lafuente eta Horrillo, d.g.).

3.3. Modu kolektiboan transformatu

Patioa aztertu, ezagutu, ulertu eta baliabideak aurreikusiz imajinatu ondoren hori aldatzera pasa gaitezke, hau da transformatzera edo eta berrantolatzera. Patio batean esku hartze bat bideratzeko orduan bi motakoa izan daiteke. Alde batetik, antolaketa eta funtzionamendua bideratzea arauak jartzen edo eta joko eta jolas antolatuak jartzen, derrigorrezkoak ez direnak eta bestetik libreak direnak. Estrategia honekin beti jolas libre berdinetan aritzen diren edo eta beti bakarrik aritzen diren ikaslee horietan eragin nahi da (Morán, 2018). Prozesu horretan dinamizatzailearen irudia funtsezkoa izango da, proposamen horiek modu eraginkorrean ezartzeko. Ondorioz, patio-orduetan zaintzaile-lana egiten duten pertsonen parte-hartzea eta prestakuntza espezifikoak bermatu behar dira. Patioa ikasteko eta harremanak, emozioak eta jokabideak lantzeko espazioa dela ulertzen bada, arduradunak diren pertsonak ere prozesu eraldatzaile horren parte izan beharko dira (Larramendi, 2016).

Baina esan daiteke, hezitzaileen esku-hartze horrek patioaren askatasun ideiaaren kontra joan daitekeela (Serra, 2014), horregatik ikastetxe batzuk patioaren antolaketa egituratzeaz haratago joan dira eta fisikoki aldatzearen alde egin dute (Gallastegui, 2018). Patioaren eszenatoki desiratuak asmatu eta berauek espazioan lekua hartuko duten artefaktu edo interbentzio artistiko zein arkitektonikoetan islatzea da helburua (Antolín et al., 2017). Horiek hiru motakoak izan daitezke:

Lehenengoa euskarri fisikoena izango litzateke, horrek barne-biltzen dituen elementuen artean: *espaloiak, topografiak, zuhaitzak, ura, saneamendua, landaretza...* daude. Honen aldaketaren alde egitea esan nahi du pentsatzea patioa ez dela erabilerengatik bereizita egon behar, baizik eta ingurune desberdinengatik. Modu horretan bakarrik lortuko da espazio

balioaniztuna izatea. Aurrekontu handiena eskatzen duen esku-hartzea izango litzateke, baita espazioaren kalitatea nabarmenduko lukeena ere (Antolín et al., 2017).

Azpiegiturak aldatzea soilik helburu izatea edota ahalik eta baliabide gehien jartzea patioan, etxea teilatutik eraikitzen hastea bezala izan daiteke. Eraldaketarako funtsa, bertan dauden pertsonen artean eraikitzen diren harremanak aztertzea da. Patioaren inguruan edozein eraldaketa prozesu hasi baino lehen, abiapuntuko galdera batekin hastea proposatzen dute Abarrategik, Abasolok eta Larramendik: *Zer-nolako harremanak sustatu nahi ditugu patio orduetan? Zer-nolako dinamikak emango dira patioko kolektiboaren baitan?* Horrexegatik, prozesuan zehar indibidualitatearekin eta kolektibitatearekin loturiko desioak lantzeko ariketak egin beharko dira: *Niri zer gustatzen zait egitea? Non egoten naiz patioan? Norekin? Nola sentitzen naiz eroso?* (Auzmendi et al., 2018).

Bigarren mota, euskarri fisikoari gehitzen zaizkion elementuak aldatzea, hau da altzariak: *saskiak, porteriak, eserlekuak, iturriak, kulunkak, biltegiak, pergolak, etab.* Denbora luzez jarrita egoten dira espazioan zehar, baina denborarekin aldatzen joan behar dira (Antolín et al., 2017).

Hirugarren mota iragankorra izango litzateke. Premia zehatz bati erantzuteko euskarri fisikoari gehitzen zaizkion elementuak aldatzea: *lurrean margotutako jolasak eta marrazkiak, auto-eraikitako elementuak, esku-hartze artistikoak, hormetako egiturak, eserlekuak...* Hauek denboran zehar aldaera pilo izan ditzakete. Bestalde, jarduera berritzaileen proposamen aberatsa egiteak espazioari bizitasuna emango dio: *festak, antzezlanak, kanpoan ipuin irakurketak egitea, auzoko bilerak...* (Antolín et al., 2017).

Nahiz eta zenbait ikastetxetan aldaketak egiten hasiak diren, oro har, eskoletako patioetan egin diren esku-hartzeak, azpiegiturei dagokienez nahiz antolatutako joko-jolasei dagokienez, oso urriak dira (Auzmendi et al., 2018).

Transformatzerako orduan argi gelditu da, artefaktuak espazioan eraiki eta eskola komunitate osoarekin espazio berriak martxan jartzea dela helburua. Baina horrelakoak abian jartzeko orduan, bi premisa hartu behar dira kontuan: alde batetik, genero berdintasuna, harremanak, partaidetza eta mugimendua (balore horiek hartzen baititu oinarritzat proiektuak); eta bestetik, esparru malgua eskaintzea proiektua ikastetxe bakoitzaren aukera eta premietara ahalik eta gehien egokitzeko, era horretan, proiektua ikastetxearen nortasunaren atal bihurtu dadin (Antolín et al., 2017).

Prozesuaren diseinua eta baliabideak zehaztu ondoren prozesua guztion artean aurrera eramatea baino ez da falta, erantzukizunez eta imajinatutakoa ahalik eta gehien errespetatuz. Prozesua abiatzeko ilusioa pizteko eta eskola komunitate guztia informatzeko estrategiak beharko dira (Antolín et al., 2017).

“O Noso Patio” eskuhartzean jaialdi bat antolatu zuten jendearengan grina pizteko. Gero guztion artean komunikatzeko eta guztiaz berri emateko mailing egin zuten, hau da e-mailaren bidez kontaktuan egon. Gainera ikasleengan ilusioa mantentzeko youtuben telebista kanal bat sortu zuten eta bertan proiektuaren atal desberdinen berri ematen joan ziren umeen partehartze zuzenarekin, beraiek bai ziren horren bideratzaileak.

Behin prozesua martxan jarrita dagoela, falta den bakarra antolatu egindako guzti hori eraikitzea eta birmoldatzea izango litzateke, patio eraldatu berri bat lortze aldera. Modu horretan filosofiak patioan aldaketak dakartzan bezala, patioko aldaketek ere aldaketa filosofikoa eta ideologikoa ekarriko dute heziketa-komunitate osoarengan.

3.4. Ondorioak eta ebaluaketa

Patioaren inguruko eskuhartze proiektu bat eginez gero milaka bizipen agertuko dira. Ibilbide luzea da, batzarrak, informazio saioak, tailerrak, auzolanak, askariak... eta barre egiteko, haserretzeko, jolasteko... denbora egongo da (Auzmendi et al., 2018).

Patioan aldaketak egitekotan, hainbat ondorio agertuko dira. Patioan haurrak sosegu handiagoz ibiliko dira, liskarrak gutxituko dira, jolas mota gehiagotan arituko dira, naturarekin kontaktuan egongo dira, orokorrean goxotasun handiagoa egongo da inguruan (Morán, 2018) eta motrizitate maila handituko da.

Prozesu osoan zehar ebaluaketa egiten joatea beharrezkoa da. Modu horretan lortutakoa ebaluatzeko aukera eskaintzen delako. Behin patioa berriztatuta, mantentze lanak egitea beharrezkoa izango da, lortutako elementu desberdinak ez galtzeko. Patioen proiektuetan beharrezkoa da jarraitasun bat egitea eta noizean behin horren inguruko hausnarketa egitea, gutxi gora behera hiru hilabetero ez legoke batere gaizki (Morán, 2018). Eraldaketa prozesua ez da amaitzen, etengabea da (Auzmendi et al., 2018)

Jarraipen mintegiak eginez gero, agertzen diren zailtasunei konponbideak aurkitzea errazagoa izango da. Agertu daitezkeen zailtasunen artean hona hemen CEIP Sanjurjo de Carricarte ikastetxean atera izan dituzten batzuk: *inplikazio maila desberdinak kudeatzea, jarritako helmuga eskuragarria ez izatea, sostegurik ez izatea, ez izatea egoera berdinean dagoen beste ikastetxe baten laguntza edo eta jarraitzeko adibidea, irakasle eta hezitzaileek ez ikustea patioaren erabilgarritasuna eta garrantzia, eraldaketa eta berritze prozesua zalantzan jartzen dutenen kontra egitea...*

4. ESTRATEGIA ZEHATZAK MOTRIZITATEAREN ESKUTIK ERALDAKETA MATERIALIZATZEKO:

Ikastetxe askotako patioak tristeak eta hutsak daude eta kirol elementuak izatekotan beti futboleko zelaiak izaten dira. Jolas orduei ematen zaien denbora oso garrantzitsua eta esanguratsua da, baina arazo larria da denbora hori sormenik gabeko espazioetan ematea, normalean patioek ez bai dute esperimentazioa eta ikaskuntza sustatzen eta hori denbora eta baliabide faltagatik izaten da (“Elesapiens”, 2018).

Patio guztiak jolasa, ikaskuntza aktiboa eta dibertimendua sustatu behar duten espazioak izan behar dira. Gainera hemen aipatu egingo diren adibideak, ideia sinpleak, ekonomikoak, asko elementu birziklatuekin edo material berrerabiliarekin eginak daude. Horrek esan nahi du eskuratzeko askoz errazagoak direla eta (“Elesapiens”, 2018 eta Lafuente eta Horrillo, n.d.) bideragarriagoak, eta ez aurrera eramatea ezinezkoak diren utopiak.

Idea hauek aurrera eramateko beharrezkoa eta ezinbestekoa da, planifikazio egokia izatea, eskulana guztien artean egitea eta noski ilusio ikaragarria izatea, eta guzti hori ez da lan makala.

Horrela hezkuntza komunitate guztiaren laguntzaz patioa, parte hartzeko espazio hezitzaile, inklusibo, hezkidetzaille eta aktibo batean bilakatzeko aukera egongo da eta horretarako estrategia desberdinak bilatu beharko dira (Cols eta Fernández, 2016). Puntu honetan hain zuzen ere estrategia zehatz batzuk azaldu egingo dira, motrizitatearen eskutik azaldu egin den eraldaketa posible izateko.

Jolastokiak proposamen anitzak eskaini beharko ditu ikasleen mugimendu beharrak asetzeko, beti ere beraien izatea errespetatuz. Esparru egokia eskaintzea beharrezkoa da umeei jolasa, kirola eta jarduera fisikoaren bidez beste gelakideak eta ikasle taldea ulertarazi dezaten.

Jarraian azalduko diren baliabide berritzaile eta joko eta jolas alternatiboak betiko kirol inbaditzaileei aurre egiteko proposatzen dira. Berritzaileak dira, haurrentzako jolasteko modu eta erreminta berriak eskaintzen dituztelako, modu horretan rol eta gustu estereotipoak hautsi egingo dira, lehiakortasuna murriztuko da eta maskulinitatearen idealarekin apurtu egingo da ikasleria guztia parekatuz. Hau da, baliabide eta estrategia berritzaileak direnez ez ditu ikasleagoak ezagutuko eta ikasle guztiek maila berdinetik jolasten hasiko dira. Gainera egiteko proposamen berriak eskuragarri izatea kultura motorra aberasten du eta umearen motrizitatea osotasunean lantzeko aukera gehiago eskaintzen dute. Zonalde mota desberdinak izatea, gaitasun desberdinak lantzeko aukera gehiago egongo direla esan nahi du, bai eta haurrak modu integralean hezteko aukera gehiago izango dituztela.

4.1. Joko motor desberdinak gehitzea

RAND Corporation azterketa zentroak, aurkikuntza ikaragarria egin zuen Londresen, metodologia kualitatiboa erabiliz. Honetan ondorioztatu ze arriskua daukaten patioetan ikasleak %16 eta %18 artean fisikoki aktiboagoak direla, arriskurik ez daukatenetan baino (Barry, 2018; The Community Design Collaborative, 2016); beraz, argi gelditzen da patioaren diseinuak inpaktu zuzena daukala ikasleen osasun fisiko zein mentalean (The Community Design Collaborative, 2016).

Baina nola eraiki aurreko 3.1.6. puntuan azaldu izan den jolastoki arriskutsuagoa? Hor dago kokka, helburu hori lortzeko gauza sinple ugari daude aurrera eraman daitezkeenak, horien artean egurrezko piezak, soka luzeak eta baztertutako zurezko palletak... (Grove, 2018) erabili daitezke, puntu honetan zehar hobeto azaldu egingo direnak. Horiek jolas abenturazalea sortuko dute eta jolas mota horrek onura pilo dakartzkio ikasleari. Oztopoak dituzten ibilbide eta zirkuituak, ikasleek mugimendua kontrolatzeko duten ahalmena garatzeko baliabide ezin hobea dira. Bide horietan umeak jauzi egiten du, igo eta oztopoen ibilbidean zehar kulunkatzen da, oreka eta koordinazioa lantzen ditu, poza eta autokonfiantza lortzen ditu baita ere. Hau da alfabetatze fisiko aktiboa emango da haurrengan (Grove, 2018).

International Journal of Environmental Research and Public Health-ek, jarduera fisikoetan (eskalada, saltoak ematea, esplorazioa, erorketak egon daitezkeen jolasetan) parte hartzen duten haurrak osasun fisiko eta sozial hobea dutela aurkitu zuen (Brussoni, 2015). Ondorenez, haurrek gaitasun desberdinak gara ditzaten (oreka, koordinazioa ...) honako joko motor eta baliabideak erabili daitezke:

4.1.1. Labirinto eta gurpildun estrukturak

Ez da beharrezkoa zabuak eta aurrefabrikatutako jolasak erostea. Gurpil batzuekin eta sormen pixka batekin jolas-parke ikaragarria sortzeko aukera dago. Labirintoak, bizkortasun jolasak, pasabideak ... egiteko aukera dago ikastetxetik atera gabe eta material gutxirekin. Gainera pintura sartzan baldin badugu, jarduera fisikoa egiteko, ondo pasatzeko eta harreman berriak sortzeko koloreztatutako espazio alaia lortuko dugu ("Elesapiens", 2018).



Pneumatikoa bi elementuz osatuta dago, alde batetik uztaia eta bestetik, errodadura banda. Objektu hauek material piloz osaturik daude, baina gehiengoa kautxu eta metala da. Metala izategatik bakarrik eskuko erremintekin landu daiteke, horregatik moztu nahi izatekotan hoberena marraza batekin uztaia eta errodadura bandaren artean egitea izango da eta banda moztu behar izatekotan zerrazko laban batekin esfortzu handirik gabe egingo da (Lafuente eta Horrillo, n.d.).

Pneumatikoek arazo bat daukate, ura pilatzen dutela, horregatik horiek zulatzea komeni da. Horretarako 10 zenbakia duen metalezko barautsarekin egin beharko da, beti ere maskara bat erabiliz ez arnasteko erretzen doan kautxua. Pneumatikoak lurrean finkatzeko hoberena lurzoruan zati bat lurperatzea da, modu horretan erresistenteagoak izango dira eta pisu gehiago jasango dute (Lafuente eta Horrillo, n.d.).

4.1.2. Egurrezko eta oholezko estrukturak

Normalean ume-parkeetan agertzen diren elementuak plastikoz, gomaz edo eta altzairuz eginak izaten dira. Egurra ez da asko erabiltzen eta material natural hau erabiltzeak onurak ekar diezaietke txikiei. Ingurumeneko psikologiak dio naturak presentzia hartzen duenean umearen estres maila txikitu egiten dela (Lique Arquitectura, 2019). Beraz, egurrez eta oholez egindako estrukturak erabiltzeak elementu naturalak erabiltzeaz gain haurren jarduera fisikoa handitu dezake.

Mailua, iltzeak, taladroa eta torlojuak erabiliz zurezko atal guztiak batu daitezke estrukturak indartsuagoak eta seguruagoak izan daitezen. Hori bai ondo kalkulatu beharra dago ze nolako luzera izan behar duten torloju eta iltzeak torlojuak egurretik muturrak ez ateratzeko eta lesioak saihesteko (Grove, 2018).

4.1.2.1. Enbor pasabideak

Enborrekin oreka barrak egin daitezke, horien diametroa geroz eta txikiagoa izan eta geroz eta altuagoak jarri, orduan eta zailagoa izango dute hurrek haien gainetik oinez ibiltzeko eta erortzeko arriskua askoz ere handiagoa izango da (Grove, 2018). Motrizitatea, koordinazioa, oreka... estimulatzeko oso egokiak. “*Tierra en las manos*” blogean aipatu egiten da enborrak eserleku bezala erabili daitezkeela baita ere, horrez gain enborrak zona desberdinak mugatzeko erabili daitezke modu horretan oreka barrak diren heinean zirkuito bat osatuko dute. Enborrak osorik jartzea erabilgarritasun bat ematen du, baina horiek moztuz gero eta bertikalki lurrean jarriz gero bestelako erabilera ematen dute, bizkortasun proba desberdinak sortu daitezke.



4.1.2.2. *Zabuak eta kulunkak*

Patioan zuhaitz handi bat izatekotan oso erraza da bertako adar bati soka luze bat lotzea “*Tarzan zabua*” lortuz. Ez da eserlekurik behar sokari bispa hiru korapilo egin eta hurrek horietara eutziz kulunkatu egingo dira, indarra garatzen duten bitartean. Eserlekua jarri nahi izatekotan pneumatikoekin egin



daiteke. Baina kontuz ibili beharra dago zuhaitz mota egokia izan behar delako, hosto handiko zuhaitza erabaki egokia izango litzateke, hala nola haritzak, astigarrak eta gaztainondoak oro har hoberenak dira, adar altu ugari baitituzte oztoporik gabeko espazio ugari eskainiz beren hegaldaren azpian. Bestalde, koniferoak (pinuak eta izeiak) adar gehiegi dituzte enborren beheko zatian, eta horiek oztopo bat dira eta mugimendua eragozten dute. Zuhaitz motaz gain egiaztatu beharra dago ez dagoela inolako hesirik edo bestelako oztoporik zabutik gertu (Grove, 2018; “*Elesapiens*”, 2018).

4.1.2.3. *Maldak, txirristak eta pasabideak*



Patioko lurzoruan desnibelak eta maldak izatea, espazioari zalantza emateko baliabide egokia izan daiteke eta tutu erraldoiekin egindako txirristak edo eta pasabideak egin daitezke modu erraz batean. Dibertigarria izateaz gain oreka eta koordinazio dinamiko orokorra pizten eta lantzen laguntzen diete umeei.

4.2. Naturazko espazioak jartzea edo handitzea

Landaretza, lurzoru mota eta lur-erliebea elementu paregabeak dira, jolasa sustatzeko eta haurrak behar dituzten mota desberdinetako jarduerak sortzeko eta eskaintzeko: esperientazio jolasak, area, lurra, ura... mugimendua eskatzen duten jolas eta jarduerak, ingurumenaren behaketa ... (“*El jardín a la vida cotidiana: EBM “Els Tabalets” i “Xiquets i Xiquetes” de Valls*”, 2018). Landaredia gehiago jartzea gerizpe espazioak sortzeko eta naturarekin kontaktu gehiago eragiteko aukera handituko du (Saldaña, 2018).

Espazio naturalak umeei askatasunez eta modu autonomoan jarduteko tokiak dira (“*El jardín a la vida cotidiana: EBM “Els Tabalets” i “Xiquets i Xiquetes” de Valls*”, 2018) horregatik umeei haien ingurumenarekiko ezagutza eta maitasuna izan dezaten eta naturan jolas aktiboa

aurrera eraman dezaten aukera eman behar zaie. Natura maitatzeko eta bertan jolas aktiboaren bitartez ikasteko (Lawson Foundation, 2019).

Naturak kontaktu soziala eta jarduera fisikoa sustatzen ditu garapen fisiko eta kognitiboan hobekuntzak eraginez. Gainera naturak enpatia estimulatu egiten du eta jolas irudimentsua eta erresilientzia sustatzen laguntzen du. Natura presente egonik inguruan estres gutxiago egongo da eta zarata gutxiago daukan patio lasaiago bat lortuko da (Amoly et al., 2014 in García, 2016; Saldaña, 2018). Naturan jolasteak zaintza eta errespetua bezalako balioak indartzen ditu eta berdintasunaren alde egiten du jostailuen beharra ekidin egiten delako, jostailuak baitira askotan jolasa eta umeen portaera baldintzatzen dituztenak (Larramendi, 2016).

Kanadan aztertu dute umeek euren denboraren % 90a etxean sartuta igarotzen dutela eta ez daukatela denbora nahikorik modu aktibo batean osasuntsu garatzeko (Lawson Foundation, 2019) eta patioan naturan jolastea egoera hori konpentsatzen lagundu dezake, umei inguru naturalean ikasteko aukera ematen zaienean ikaskuntza eta hezkuntza emaitzetan eragin positiboak izaten bai dituzte.

Bartzelonako, Ingurumeneko Epistemologia Zentruko, CREAL-ko, Payam Dadvandek Lehen Hezkuntzako 7 eta 10 urte bitarteko 2.600 haurrei memoria kognitiboaren inguruko proba batzuk egin zizkien eta ondorioztatu zuen inguru berdeak daukaten ikastetxeetako ikasleek, ez daukatenak baino %5eko garapen kognitibo hobeagoa zeukatela, hortaz burmuinak naturaren presentziarekin informazioa azkarrago prozesatzen duela ondorioztatu zuen (García, 2016), natura oso hezitzailea izan daiteke, adibidez urtarook ikusteko eta ikasteko oso aproposa (Saldaña, 2018).

Gainera zona berdeak, lorategiak, baratzak, zuhaitzak eta landareak daukaten eskoletan kutsatutako aire gutxiago dago, landarediaren presentziak eragiten duelako gas txarren kantitatea gutxitzea (García, 2016). Beraz hona hemen patioan natura gehitzeko estrategia batzuk:

4.2.1. *Terrariumak eta areazko kutxak*

“*Tierra en las manos*” blogean agertzen den adibide bat, ondo pasatzeko ideia ikaragarria dena, area eta lurra patioan sartzea da, ikasleek ez dute ezer gehiagorik behar, bakarrik erreparatu behar da nola aritzen diren orduak eta orduak hondartzan arearekin eta urarekin jolasean konturatzeko egia dela.



Areaz betetzea, altxorraren bila jolastea, gazteluak eraikitzea ... balio handiko ikaskuntzak izan daitezke. Hondarraz gain lurra erabiltzea baliabide egokia izan daiteke. Elementu horiek espazio batean mantentzeko bestelako materialak erabiltzea ondo egongo litzateke horien artean egurrezko paleak edo eta gurpilak (“Elesapiens”, 2018).

4.2.2. Ura

Aurreko puntuarekin bat doa, ura beharrezkoa bai da hondarra edo lurra maneiatu ahal izateko. Baina nola jarri ura eskuragarri umeei patioan? Aukerak oso anitzak dira, hori bai kontutan izan beharko da ikastetxeak daukan aurrekontua.

“*Tierra en las manos*” blogean idazlearen esperientzia oinarri harturik aditzera ematen du patioan jolasteko tutu malguak jartzea ez dela ideia ona, umeek ur asko xahutu dezaketelako, hortaz bestelako ideia ur-hornitzaileak erosi eta ur txanbiletan jartzea izan daiteke. Sistema hori erabiltzeak onura desberdinak ekarriko ditu, horien artean: edozein lekutan erabili ahal izatea, bertan ur irteerarik egotea beharrezkoa ez izatea eta ura erori gabe txanbilak leku batetik bestera garraitu daitezkeela. Baina badu bere eragozpena baita ere, bertan sartzen den ur kantitatea oso handia ez denez, horiek hustu egiten direnean berriz ere bete behar direla. Hortaz, bestelako aukera txorrotak dauzkan ur depositua jartzea izango litzateke. Azkenik, bestelako baliabidea baina aipatutakoen artean garestiena izango litzatekeena, ur-bonba bat patioan jartzea, kasu honetan ur ponpaketa bat egitea beharrezkoa izango litzateke bertatik ura ateratzeko, hortaz haurrengan jarduera fisikoa eskatuko luke, bestela ez litzateke ura aterako.



Umeek ur zirkuitoekin eta iturriekin jolasten dutenean ura ponpatu behar dute: gazteluak egiteko, ontziak bete eta ura batetik bestera pasatzeko... eta guzti horretarako jarduera fisikoa egitea beharrezkoa da.

4.2.3. Baratza

Eskola–baratzea baliabide bikaina izan daiteke, ikastetxeak ikasleei euren natura inguruneari buruzko esperientzia anitz izatea ahalbidetuko dien leku bihurtzeko eta ingurunearekin ditugun harremanak eta menpekotasunak ulertzeko (Oliberi eta Ormazabal, 1998). Horrez gain, umeezko produktu ezberdinen jatorria non dagoen ikasteko aukera bikaina da. Askotan, umeezko bakarrik produktu desberdinak supermerkatuan ikusten dituzte baina gehienetan ez dakite zein prozesu igaro duten haiek erosten dituzten lekura heldu arte (Irurtzun eta Huarte, 2009). Baratza bizitzaren zikloak ikasten laguntzen du eta naturaren eta landare-diaren zaintzaren garrantzia bereganatzen laguntzen baita ere. Horiek guztiak oso esperientzia interesgarriak izan daitezke Ingurugiro Hezkuntzan funtsezko gaitasunak garatzeko.

4.2.4. Lastozko blokeak



Pontevedrako As Covas de Meaño ikastetxeko jolastokia oso naturala da, berde asko dauka eta gainera belar gainean lastozko blokeak jartzea erabaki dute, horiek bata bestearen gainean pilatuta jarri izan dituzte estruktura bat osatuz. Bertan ikasleek testuinguru eta eszenatoki paregabea daukate irudimena eta sormena garatzeko mugimenduan dauden bitartean (El Safareig, 2016), gainera lastozko bloke horiekin estruktura desberdinak egin daitezke eta denboraldi bakoitzean forma desberdina eman.

4.3. Patioaren espazio bertikalari probetxua ateratzea

Muralak, horman jokoak, heziak, rokodromoak... jartzea ideia paregabea da, normalean erabiltzen ez diren espazio horizontalei, hau da paretei erabilgarritasuna emateko (Saldaña, 2018).

4.3.1. Pareta sortzaileak

Ikasleak jolasten duten bitartean ikasteko, mural interaktiboak sortzea bestelako aukera bat da, euskarri bertikal batean beraien artean erlazionatuta dauden objektuekin ikaragarriko ikerkuntza hormak lortu daitezke. Horietan aritzean, konturatu gabe material desberdinen inguruan ikasi egingo dute: pisua, forma, testura indarrak... teoria desberdinak ikusteko aukera izango dute (“Elesapiens”, 2018).



Gainera pareta hauek ikasleek sortu ditzakete, mural hauek sortzerako orduan ikasleen inplikazioa bilatu



daiteke. Horiek egiteko elementu birziklatuak erabili daitezke; Adibidez oso erraza da orkestra bat sortzea, ikasleek melodia berriak sortu eta ikasteko. Pareta musikalekin ikasleek bakarka zein taldean erritmo eta melodia desberdinak sortzen ikasiko dute (“Elesapiens”, 2018) bai eta material bakoitzak soinu desberdin bat eragiten duela eta materialen tamaina soinuan eragina daukala baita ere. Ur zirkuituak prestatzea erabilgarritasun egokia da baita ere.



4.3.2. Arbelak

Ume askorentzako jarduerarik gogokoena margotzea da, aldiz horrelako ariketa artistikoak mahai eta aulki batera mugatuta egoten dira normalean. Horregatik margoketa eta irudimena ikasgelatik ateratzearen alde, arbelak aire librean jartzea ideia ona izan



daiteke. Errekurtso ekonomiko gutxi izanez gero klarionak bakarrik patrioko espazio mugatu bateko

lurzoruan margoketak egiteko erabili daitezke. Modu horretan ikasleen irudimena eta sormena sustatuko dugu (“Elesapiens”, 2018).

4.3.3. Rokodromoa

Eskalada egiteko pareta edo beste modu batera esanda eskalada-murrua patioan izatea baliabide aberasgarria izan daiteke. Horretarako pareta erakargarri bat eta egurrezko takoak behar izango ditugu, ezer gehiago. Ikasleen inplikazioa egon daiteke paretaren fondoa diseinatu eta margotzeko. Modu horretan haurrak gertutasun handiagoarekin ikusiko dute pareta hori, beraiek margotu bai dute (“Elesapiens”, 2018).



Eskaladak gaitasun motorra garatzen laguntzen du, hain zuzen ere ziurgabetasun-inguruneko espazio bertikalean segurtasunez mugitzeko gaitasuna. Halaber, oso ekintza aproposa da berdintasuna bultzatzeko. Izan ere, aukera ematen du mutilak kirol-jardueretan hoberenak direla ukatzeko, ikasleek argi

ikusten dutelako denek dituzten aurre-ezagutzak antzekoak direla. Horrez gain, denbora librean betetzeko aukera paregabea eskaintzen du, jarduera fisikoa egiteko ohitura hartzen laguntzen zaielako ikasleei (Larrañaga, d.g.).

Eskaladako jardueren bidez, hausnarketa sustatzen da, ikasleek etengabe kontzentratu eta erabakiak hartu egin beharko baitituzte espazio bertikala gainditzeko. Izan ere, ikasleek horma irakurri eta interpretatu egin beharko dute, eta pentsatu eta erabakiak hartu. Halaber, eskaladako jarduerak ikasleen arteko elkarlana eta erantzukizuna areagotzen laguntzen dute (Larrañaga, d.g.).

Gainera, eskaladari esker, ikasleek aukera izango dute ingurune bertikaletan norberak dituen mugimendu-aukerak ikertzeko, beren egoera fisikoaz jabetzeko eta beren gorputzaren kontzientzia hartzeko. Azkenik, beldurrari aurre egiteko, autokontrola lortzeko eta emozioak kudeatzeko laguntza paregabea izango da, helburu nagusia ikasleek hainbat ingurune aldakorretan mugitzen ikastea bai da, beren buruarenganako konfiantza eta segurtasuna areagotuz (Larrañaga, d.g.).

4.3.4. Abakoak



Matematikak patioan presentzia izan dezakete baita ere, horretarako abako XXL-ak sortu ahalko dira, haurrak kalkuluak egiteko aukera izan dezaten ("Elesapiens", 2018). Horiek egiteko plastikozko koloredun bolekin eta sokekin erraz asko egin daitezke.

4.3.5. Paretan apaintzeak

Patioak tristeak ez izateko eta koloreak izan ditzaten errazena muralak margotzea da eta horiek margotzen ikasleek lagundu dezakete, baina hori egin ezean aukera egokiagoak proposatzen dira honako puntuan.



4.3.5.1. Plastikozko tapak

Birziklapena sustatze aldera eta horren garrantziaz kontzientziatzearekin batera, ikastetxe mailan tapa bilketa bat egin daiteke eta horiekin patioako pareta bat apaindu.

4.3.5.2. Jarduera fisikoa egiteko asmatutako jokoak

Joko berriak asmatzea aukera ona izan daiteke, hona hemen bi adibide. Lehenengoan uztai batzuk paretan txertatzea izango litzateke, bakoitza inklinazio desberdin batekin. Aro bakoitzak bere ibilbidea kolore batez margotua izango du eta bertatik baloia pasaraziz gero puntuazio bat edo beste lortuko da, kolorearen arabera.



Bigarren aukera koloredun borobilak paretan margotzea, geroz eta gorago egon borobila, baloiarekin emateko zailagoa da eta horregatik puntuazioa behetik gora handituz doa. Ikasleek beraien puntuak zenbatzen joan beharko dira, matematiketako gehiketak lantzeko aukera izanez. Gainera baloia jaurtitzeko distantzia desberdinak egongo dira, paretatik geroz eta atzerago egon zailagoa izango da, beraz ikasleei aukera eskaini egingo zaie zailtasun maila desberdinak hautatu ahal izateko.

4.3.6. Lorategi bertikala

Ikastetxearen patioan 4.2.3. puntuan azaldutako baratza egiteko lekurik ez baldin badago bestelako baliabide bat lorategi bertikala egitea izan daiteke, paretei erabilgarritasuna emanez.



Lorategi hau instalatzen den pareta egun osoan zehar gerizpean baldin badago, bertan landatuko diren landareak eguzkia behar ez dutenak izan beharko dira. Baina aldi berean lorategia ezin da egun osoa eguzkia ematen dion pareta batean ezarri, landareek ez luketelako jasango. Horrelako baratzaren alde egitekotan haur bakoitzak bere landarea izan ditzake eta hori zaintzeaz arduratu. Modu horretan zaintzaren gaia eta garrantzia lantzeko baliabide egokia izanik (Lafuente eta Horrillo, n.d.). Hauek material birziklatuarekin egin daitezke, adibidez plastikozko botilekin, tutuekin edo eta palletekin.

4.4. Lasaitze eremuak

Esertzeko, hamaiketakoa lasai hartzeko, hitz egiteko, irakurtzeko, mahai jokoetara jolasteko... (Saldaña, 2018) espazio lasai bat patioan edukitzea ondo dago, hain aktiboak ez diren haurrak edo eta hamaiketakoa lasai asko hartu nahi dutenentzat leku apropos bat izateko.

4.4.1. Jolas sinbolikoa eta sortzailea

Hurrek jolas egiterakoan objektu, pertsonaia eta egoerak simulatzeko ohitura izaten dute, hau da sinbolizatu egiten dute. Sinbolizazioa nahitaezko erreminta da nor garen, zer gustatzen zaigun eta zer ez, gure lehenetasunak zeintzuk diren edota zer desio dugun jakiteko. Hortaz, haurren garapenean oso funtzio garrantzitsua betetzen du jolas sinbolikoak. Haurrak bi urte inguru dituenean hasi eta sei urte arte gutxi gora behera hartzen du bereziki protagonismoa jolas mota honek (Hik Hasi, 2016).

Besteak beste, inguruko errealitatea ulertzeko eta barneratzeko, helduen rola ezagutu eta praktikatzeko, hizkuntza garatzeko edota irudimena eta sormena lantzeko balio die. Era berean, jolas sinbolikoaren bidez, umeek euren burua berresten dute, hots, bestearengandik bereizten dira eta "Ni"-aren barne sentimendua sendotzen dute. Fase sinbolikoan, haurrak elkarrekin interakzioan aritzen direnez, elkarbizitza sozialerako oinarriak ere ezartzen dituzte (Hik Hasi, 2016). Jolas mota hau patio orduan sustatze aldera ora hemen adibide batzuk:

4.4.1.1. *Etxea*

Patioaren zonalde batean etxe bat simulatu egiten duen grafiti handi bat jarri daiteke, ikasleek hainbeste maite duten aita eta ametara jolas dezaten. Bestelako aukera sukalde bat jartzea izango litzateke, hurrei elementu desberdinak manipulatzeko aukera emango diena. Gainera ideia



bikaina da hurrek jolas sinbolikoa aurrera eramatea esperimentatzen duten bitartean. Txikitan nork ez du jolastu bazkariak egitera eta mila gauza ontzi berean nahastera? Ikasleei asko

gustatuko zaie honetan jolastea.

4.4.1.2. *Antzokia*

Pertsonok barneko eta kanpoko munduarekin harremanetan jarri behar gara, besteekin komunikatzeko. Hitzeko mintzaira garrantzitsua bada ere, gorputz-hizkuntzak garrantzi handia hartzen du pertsonen arteko komunikazioa eta ulermena hobetu ahal izateko (Lleixá, 2000 in Vizcarra, 2008).



Gorputzaren bidez nor bere gorputza ezagutzea eta kontrolatzea lortu dezake, gorputza nahi den bezala erabiltzeko. Baina, honen bidez, besteen aurrean agertzea ere lor daiteke eta aldi berean bestea ezagutzea eta bestearen ahotsa, jarrera, jokabideak, bere mugak eta ahalmenak zeintzuk diren ikustea. Bakoitzak hizkuntza propioa du, norberaren pertsonalitatearen adierazlea dena (Lleixá, 2000 in Vizcarra, 2008). Hortaz patioan antzoki edo eszenatoki moduko bat ezartzea ondo egon daiteke, haurrek aipatu izandakoa garatzeko aukera izan dezaten (Clemente, 2016).

4.4.1.3. *Mini munduak*

Jolas sinbolikoa eskala txikira eraman daiteke, eta lurzoruan margotutako pistak eta margoketak erabiliz mundu desberdinetan sartu. Horietan natura sartu daiteke baita ere ura, lurra, area, landareak... (Clemente 2016).

Horietan kotxe eta animalia jostailu txikiekin jolas daiteke. Baina horretaz gain txapak edo tetrabriken tapak sartu daitezke eta ibilbideak horiekin egin. Futbolezko zelai minia margotu daiteke eta tamaina dela eta egokia izango da aipatutako bi material horiekin jolasteko. Modu horretan txikiek beraien motrizitate fina garatzeko aukera izango dute.



4.4.2. *Mahai jokoak eta adimen motorra*

Gorputz Hezkuntzaren ikuspuntutik argi gelditzen da jokoak duen garrantzia patioan zein klasean, umeen ikaskuntza prozesuan elementu motibatzailea bai da. Mahai jokoek esparru hezitzailean potentzial ikaragarri handia daukate, horregatik ikas-irakas prozesuan oinarritutako metodologia berritzaile bat aplikatzen hasi da: Joku eta Jolasetan Oinarritutako Ikaskuntza (JOI) edo el Aprendizaje Basado en Juegos (ABJ) edo Game Based-Learning (GBL). Hau da jokoak asmo didaktiko batekin erabiltzea ikaskuntza helburu bat lortzeko (Sotoca, 2017).

Metodologia horren erabilerak umeengan gaitasun meta-kognitiboak garatzea eragiten du. Hau da, beraien ikaskuntza auto-erregulatzeko gai izatea eragiten du. Horretaz gain, erabakiak hartzean, gaitasun komunikatibo eta sozialetan eta arazoaren konponketan eragina dauka. Jolasteak





gaitasunak modu eraginkor batean bereganatzea eta errepikatu nahi izango diren bizipen esanguratsuak bizitzea dakar (Sotoca, 2017).

JOI, klase orduetan aurrera eramaten baldin bada, gero haurrak ikasitako joko horiek modu autonomo batean aurrera eramateko gai izango dira, modu horretan patio orduetan mahai jokoei bideratutako zonalde bat egotekotan arrakasta handia izan dezake. Beraz, jolastokian mahai jolasak erabiltzeko gune bat jarriko da, baina joko horiei mugimendua sartuko zaie, ikasleek beraien motrizitatea garatu aldera.

Arlo kognitiboa oso babestua dago hezkuntza formal mailan. Baina jarduera fisikoaren inguruan edo eta denbora librearen inguruan hitz egiten denean normalean kanpoan uzten da. Hori ez da horrela izan behar, gorputz heziketan plano kognitiboa landu egin daiteke baita ere, biak aldi berean lantzen direnean haurren adimen motorea garatzen ari dela esan nahi du. Hau da, motrizitatearen esku arlo kognitiboa landu egingo da, kognizioa eta mugimendua batzen duen gaitasuna garatuz.

Hona hemen adibide batzuk: Twister, labirintoa, partxisa, antzara, hiru marran, diana, xakea, damak ... Hauek patioan instalatzerako orduan, espazioaren funtzionamendua aztertzea garrantzitsua da, mota honetako jokoak zona ez oso igarotuan jartzea ondo bai dago. Hauetara jolasteko errazena eta haurrak gehien integratzen duen teknika beraiek jokoaren fitxak izatea da, baina bestela birziklatutako materialarekin fitxak egitea ez da ideia txarra (Clemente, 2017).



Bestelako aukera bideo jokoak egi bihurtzea izango litzateke. Adibidez "Angry Birds" bideo joko famatua, umeen gustukoa izan ohi da, horregatik hori errealitatera eramatea baliabide paregabea izan daiteke punteria garatzeko. Egurrezko tiragoma handi baten antza daukan estruktura bat eginez eta bertan goma bat jarri pilotak botatzeko tramankulua egin daiteke. Aurrean bestelako egurrezko plataforma bat sortu eta bertan jolasaren txori eta txerriak erreproduzituko duten koloreztatutako poteak jarri egingo dira. Modu horretan potean lurrera botatzen saiatu beharko dira.



4.4.3. Etxeak, etxolak eta gotorlekuak

Lan honen 4.1.2. puntuan egurrezko elementu desberdinak aipatu izan dira, baina etxeak, etxolak eta gotorlekuak ez dira aipatu, nahiz eta material horrekin eginak egon nahiago izan dut honako puntuan sartzea, lasaitze espaziotzat hartzea nahiago izan dudalako.

Haurrei pilo gustatzen zaie aterpeetan sartzea babesaren bila, asko disfrutatzen dutelako izkututzen. Etxeetan sartzea gustuko dute bai joko sinbolikoa aurrera eramateko edo eta bertan lasaitzeko ezer gehiagorik gabe (Clemente, 2017). Jolas irudimentsua



eta sormena gonbidatzen duten baliabide materialak dira. Gainera ikasleen arteko harremanak lantzer lagunduko dute.



Egurrezko palletak gotorleku sinple bat sortzeko berrerabili daitezke. Bat lursoruarentzako, hiru pallet gehiago hiru harresi sortzeko, eta pallet bat gehiago teilatuarentzako. Zoru eta teilatuan, egurrezko pieza gehigarriak erantsi daitezke taulen arteko tartekak estaltzeko (Grove, 2018).

Sortu izandako gotorlekuari bestelako erabilpena emanez, jarduera fisikoari garrantzi gehiago eman nahi izanez gero, bere teilatutik gertu dagoen puntu batetik hasi eta gertu dagoen zuhaitz batera tirolina bat ezartzeko aukera egon daiteke (Grove, 2018).

4.5. Lurra mihise hoberena!



Lanean zehar margoketen inguruan zenbait gauza aipatu izan dira, baina margoketekin lurrari atera ahal zaion etekina hain garrantzitsua izanik lanean gaiari atal oso bat eskaintzea beharrezkoa da. Patio baten lurzorua hutsa izatea, horri inolako probetxua ez ateratzea esan nahi du eta hori pena handia da. Joko, jolas eta jarduerak egiteko erabili daiteke, bertan ibilbideak, joko tradizionalak, klaseetan ikasitako edukiekin erlazionatuta dauden mapak, bidegurutzeak ... margotu daitezke ("Elesapiens", 2018).

4.5.1. Birziklapena eta jarduera fisikoa

Patioaren elementu desberdinei, berez daukaten zerbitzuaz gain probetxu gehiago atera ahal diegu. Adibide paregabea zakarrontziak izan daitezke. Birziklapena lantzeaz gain jarduera fisikoa sustatu daiteke horien aurrean saskibaloiko hirukoak botatzeako marrak esarriz gero (Clemente, 2017).



4.5.2. Korridoreak eta patioa armonian

Patioen lurzoruak margotzea proiektu handiago baten barruan sartu dezakegu, ikastetxe osoan jarduera fisikoaren maila igotzeko. Horretarako ikastetxeko korridoreak aldatzea beharrezkoa litzateke baita ere. Patioaz gain ikastetxeko korridoreak aktibatu ditzakegu. Nola? Kanadako eskola batean “Manitoba ibilbide sentsorialak” erabiltzen hasi ziren eta emaitza oso onak lortu izan dituzte. Beraz, esperientzia hori eredutzat harturik horrelakoak egitea proposatzen dut (Drinks, 2018) bai patio zein korridoreetan.

Korridore mota honek ikasleei energia erretzen laguntzen die, haurrak aktibotasun handia daukatenean mugitzeko behar hori asetzeko egokiak dira eta aldi berean lasaitzeko erreminta paregabeak. Bi klase magistralen artean ikasleak pasilutik edo patiotik bueltatxo bat ematea ondorio positiboak izango ditu, horien artean sedentarismoari aurre egin eta haurrengan kontzentrazio maila handiagoa lortzea. Margotuta egongo diren ibilbideen eta markatuko duten egin beharren laguntzaz ikasleak ibiliz, katamar eginez, saltoak emanez... joango dira ikastetxetik zehar (Drinks, 2018).




Ikasleak klasean adigabe badaude edo deskantsu baten beharra badaukate korridorera edo eta patioa ibilbidea egitera joanez gero, klasera bueltatzerakoan kontzentrazio maila altuagoa izaten dutela frogatuta dago. Mota honetako mugimendua sustatzeko programak beraien burua erregulatzeko gai ez diren ikasleen portaera arazoan prebentzio neurri bezala ikus daitezke (Drinks, 2018).

Ez du ezertarako balio zerbait super landua margotzea, kolore askorekin, haurrek gero joko horretan interesik ez badaukate. Agian hasieran zaletasuna lor dezakete

horrelako jokoek, baina, seguru asko, laster alboratu egingo dituztela (Clemente, 2017). Horregatik oso inportantea da haurren gustuetatik eta nahietatik abiatzea, hor babestua gelditzen bai da lanaren hasieran azaldutako prozesu parte hartzailea non hezkuntza komunitate guztiaren parte hartzea eta hitza egon behar den.

4.5.3. Bestelako ikasgaiekin erlazioa

Ondo pasatzeaz gain, jokoekin jakintza espezifikoak bereganatu daitezke. Adibidez, salto egiteko jolas batek ikasgai desberdinetan landu egin diren edukiak bereganatzen lagundu dezake. Adibidez, matematiketako zenbaki arabiarrek eta beraien arteko lau eragiketa mota desberdinak (gehiketa, kenketa, biderketa eta zatiketa).



Diseinuetan forma geometrikoak irudikatzeak irudimenari funtzionatzen utziko dio, forma horiek egunero jolas berri bat asmatzeko aukera ematen dutelako. Adibidez koloretako borobilak (Clemente, 2017).



Matematikaz gain bestelako irakasgaiak presentzia har dezakete, giza-zientziak adibidez, eta bertan landutako mapak; edo eta Gorputz Heziketan landutako lateralitatea garatzeko ispiluaren jolasa, oso egokiak izan daitezke.



4.6. Eremu librea ezartzea

Patioan elementurik gabeko espazio bat egotea errekurtsio paregabea da, horri egoera eta egunaren arabera erabilera desberdina eman ahalko zaiolako (Saldaña, 2018). Eremu horretan ibiltzeko ikasleei material desberdinak utzi ahal zaizkie, horiek nahi duten moduan erabili ahal izateko eta nahi duten jolasa aurrera eramateko, beti ere material hori errespetuz erabiltzen baldin badute.

Materiala kiroletakoa edo eta birziklatutakoa izan daiteke. Horien artean pneumatiko solteak, fruta eta barazkien plastikozko kutxak, kartoizko kutxak... Azkenengo horiek bikainak dira tunelak eta ezkutuko espazio sekretuak sortzeko, hau da jolas irudimentsua garatzeko oso aproposak (Grove, 2018).





Eremu horretan ikasleen artean lortu nahi den sozializazio hori handitzeko asmoz, *“Nirekin jolastu nahi?”* ekimena aurrera eramán daiteke, beraien inklusioan arreta gehiago behar duten haurrengan enfasia jarritz. Horretarako eremu librearen zati

batean *“Lagunen Txokoa”* ezarri egingo da eta bakarrik sentitzen diren ikasleak edo eta jolaslekuan aurrera eramaten ari diren jardueretan parte hartzen ari ez diren ikasleak gerturatu ahalko dira. Txoko horretan hezitzaile bat egon daiteke laguntza eskaintzeko, ikasle horiek beste haur batzuekin jolas dezaten. Hau da, irakasleak bakarrik gelditu izan diren ikasleak talderen batean sartzen saiatuko da, edo eta egun horretan txokora bertaratu diren ikasleen arteko harremantzea sustatuko du, joko-jolas berri bat proposatuz (Morán, 2018).

Lanaren laugarren puntu honekin bukatzeko, aipatzea jolaslekuaren jarduera guztiak leku berean integratuta egon behar direla eta harremanetarako espazio desberdinak tartekatuko dituela, aktibo egoteko, deskantsatzeko bai eta elkarrekintza sozialari abagunea emateko ere. Horrenbestez, ikus daiteke jolaslekuan ezartzeko aipatu izan diren adibide guztietan interes berezia jarri dela genero-erreferentziarik gabeko ekintzak sustatzeko, ume txikientzat joko-eremuak egokitzeko eta adin eta genero ezberdinetako umeen artean elkarguneak sortzeko (Larramendi, 2016). Komentatu behar da proposatu egin ditudan adibide gehienak motrizitatea handitzera bideratuta daudela, hori horrela izan da sinisten dudalako motrizitatearen ehunekoak igoz gero patioaren egunerokotasunean, aipatu izan diren bestelako arazoak horren eraginez desagertuko direla. Hau da, mugimendua areagotzea berarekin bestelako faktoreak eraldatzea ekarriko du baita ere.

3. ATALA: AZKENENGO ERREFLEXIO BATERAKO LEKUA

5. LORTUKO GENITUZKEEN ONURAK

Espazioaren diseinuak, patioaren diseinuak hain zuzen ere, hezkuntza proiektuaren barruan daukan paper garrantzitsua ikusiz gero (Saldaña, 2018) patioaren erabilera sustatzen duten hezkuntza-programen etekinak hainbat izan daitezke; hau da aurreko puntuetan azaldutako patioen berrantolaketa egiteak hainbat onura ekar ditzake, horien artean fisikoak, kognitiboak, emozionalak eta harremanezkoak.

Kontutan izanda ingurua giza talde bat bizi den testuingurua osatzen duten elementuak, faktoreak, gertaerak etab. direla, patioa espazio bat da. Umea jaio orduko hasten da bere inguruarekin harremanetan eta horien bidez eraikiko ditu era guztietako ezaguerak: ideiak, trebeziak eta jarrerak. Haurren garapena, gizabanakoa eta inguruaren artean sortzen den harremanean oinarritzen da, hain zuzen. Hortaz, ingurunerik gabe, haurra ezin daiteke garatu, ezin dezake aurrera egin (Murua, 2007) eta patioa umeez egunerokotasunean daukaten inguru bat denez, hori egokia izatea beharrezkoa da. Patioa haurrarentzat ezaguera iturri agortezina denez, eskolaren egitekoa izango da inguruaren ezaguera haurrari erarik egokienean hurbildu eta erraztea.

Hasteko, onura sozialak eta emozionalak aipatu egingo dira, patioa aire librean dagoenez eta bertan manipulaziorako estrukturak jartzen direnez umeez taldeko zein banakako komunikazio trebetasunak garatzen dituzte (Antolín et al., 2017); hau da, beraien artean komunikatzen, partekatzen, kooperatzen, koordinatzen... ikasten dute, ikasleen arteko lehiakortasuna alde batera utziz.

Haurrek izaki sozialak izaten ikasi behar dute, gainera kontutan izan behar da patioko atsedena egunean zehar haurren artean sozializatzeko eta benetako komunikazioa emateko aukera bakarra izan daitekeela. Auzoak jada ez dira lehen zirena, eskola eguna amaitu ondoren, gizarte elkarrekintza egiteko aukera gutxi daude (Chaves, 2013).

Amparo Tomé-zek dio patioko egonaldian zehar ikasleak poliki-poliki beraien artean ezagutzen doazela eta modu horretan estereotipo asko apurtu daitezkeela eta harremanak sortzea errazagoa denez ume guztien integrazioa asko hobetu egiten dela (Gallastegui, 2018). Modu horretan klima erlaxatuagoa sortzen da eta patio orduetan estres gutxiago pilatzen da. Virginia Navaroren ustetan aipatutakoa autoestimua areagotzea eta ongizate sentimendua suposatzen die ikasleei (Antolín et al., 2017).

Julie Delalande etnologoak bere liburuan esaten duen bezala: *“Haurrek jolas kolektiboa patioan aurkitu egiten dute eta aldi berean denok batera jarduteko denon partetik ahaleginak*

egitea beharrezkoa dela ikasten dute” (Schwartz, d.g.). Jolas orduan sare berriak sortzen dira gizabanako desberdinen artean, hau da harremanak sustatzen dira.

Onura sozial eta emozional ez gain gehiago lortuko dira, osasunean eragina izango duten onura fisikoak. Haurren osasuna arriskuan dago, egun ume askok gehiegizko pisua eta obesitatea pairatzen dute, baina arazo horiek ez dituztenek ere jarduera fisikoa behar dute osasun optimoa izateko (Chaves, 2013). Gainera gaur egungo patioen estruktura eta bertan egin daitekeen ia jarduera fisiko guztia, ikasle guztiak gustuko ez dituzten kirol lehiakorretara jolastera mugatuta daude. Hortaz, patioak espazio eta estruktura desberdinak izatea oso aberasgarria izango da ikasleei aniztasuna eskaintzeko eta modu horretan ikasleria guztiak jarduera fisiko gehiago egiteko, mugimenduan eta aktibo aritzeko aukera gehiago izateko eta motrizitatearen onuraz etekinak ateratzeko.

Aire librean egoteak, hau da patioan jolasean, gaitasun fisiko berriak landu ahal izatea, mugimenduaren poza esperimentatzea eta kaloriak erretzea ahalbidetuko die haurrei (Chaves, 2013). Ondorioz, onura fisikoei dagokienez, badakigu jarduera fisikoa osasuntsua dela, ikasleen gorputzerako ona da erlaxatzen eta osasuntsuago egoten laguntzen dielako. Haur Hezkuntzarako Elkarte Nazionalak (National Association for the Education of Young Children, NAEYC) egiturarik gabeko jolas fisikoa, haurren bizi-estresa murrizteko gomendatzen du (Chaves, 2013).

Aipatu izan dugun jarduera fisikoaren maila igotzeak abantaila desberdinak izango ditu. Horien artean, maila kognitiboan, gaur egungo neurozientzia ikerketek diote egoera fisikoa eta jarduera fisikoa, errendimendu kognitibo eta akademikoarekin erlazionatuta daudela. Hortaz batean aurrerapenak eginez gero bestea lehenengoagatik baldintzatua ikusiko da sedentarismoaren aurkako borroka ekarriz (Chaves, 2013; Contreras, Prieto, Leon eta Infantes, 2018). Ondorioz, jarduera fisikoa egiteak ikaskuntza intelektual hobetuko izatea eragingo du, ikerketek bai diote jarduera fisikoa egin ostean hobeto ikasten dela (Chaves, 2013); beraz argi gelditzen da onura kognitiboak dakarzikela ikasleei.

Jarduera fisikoak burmuina elikatzen du. Ikerketek agerian uzten dute ia garun osoa aktibatzen dela jarduera fisikoa egiterakoan, geldi lan egiten denean baino hare gehiago. Garunaren errendimendua optimizatzen da, mugimenduak odol basoen gaitasuna handitzen dielako, garunari oxigeno, ur eta glukosa erraztasun handiagoz bidaltzea ahalbidetuz. Horrez gain, hainbat ikerketek erakutsi dute fisikoki aktiboagoak diren ikasleek errendimendu akademikoa hobetu dutela, probetan puntuazio altuagoak lortzen dituztela eta eskolarekiko jarrera hobetua erakusten dutela (Chaves, 2013).

Lanean zehar jolastoki naturalen alde egin da eta “Tierra en las manos” blogean ondorio bezala azaltzen duten bezala, esan beharra dago natura gerturatzeak haurren garapen kognitiboa hobetu egiten duela, beraien behaketa, analisi eta hausnarketa gaitasuna hobetu

egiten duelako. Gainera, ondo egokitutako kanpo espazio batean umeak objektuak, altzariak maneiatzeko aukera dauka eta manipulatzeko aukera daukan esperientziak bere garapen intelektual eta zentzumenen garapena estimulatu egiten ditu. Egoera horrek Virginia Navarroren ustetan ikasleen *arreta hobetzea ekarriko du* (Antolín et al., 2017).

6. ATERATAKO ONDORIO NAGUSIAK

Lan osoa egin ostean identifikatu ditudan ondorioak eta erreflexioak honako puntuak jasota agertzen dira. Labur esanda eta lan honi bukaera emate aldera, hona hemen ondorio nagusiak. Bibliografia iturri desberdinak aztertu ondoren, patioa haurren garapen integrala ahalbidetuko duen espazio-denbora hezitzailea izan behar dela esan daiteke, mugimenduari eta jarduera fisikoari ez ezik, hezkuntza emozional, kognitibo eta sozialaren garapenari laguntzen diona baita ere.

Patioa, ikastetxean sortzen diren ambiente edo giro desberdinetako bat da, gune sozial eta komunikatiboa, umeengan jarrera eta jokabide zehatz batzuk bultzatzen dituena, beraien sentimendu, ongizate eta oreka emozionala baldintzatuz. Beraz, patioaren antolaketa egokia baldin bada eta Gradu Amaierako lan honetan aipatu izan diren patioa hezigarriagoa bihurtzeko irizpideak bete egiten baldin badira onurak eragingo ditu eta ondorioak positiboak izango dira, haurren adierazpenerako, sormenerako, elkarrekintzarako eta motrizitaterako gaitasunak garatuz eta hobetuz.

Patioko jolasa, ikaskuntzaren motorea da eta bertan da haurrak gehien ezagutzen dituzunean, horregatik Raúl Bermejok dio Patioa bestelako ikasgai bat izan beharko litzatekela curriculumaren barrua. Ikasle guztiez arduratzeko eta guztiei arreta emateko ideia ona izan daiteke (Setién, 2017).

Amaitzeko, historian zehar garrantzitsuak izan diren pertsonaia desberdinen hitz batzuekin amaitzea gustatuko litzaidake, horiek jolas librearen alde eta jolas hezitzailearen alde egin bai dute. Hasteko goraiatzea *“hezkuntzarik eraginkorrena, umea espazio eta objektu liluragarrien artean jolastea dela”* Platónen aburuz. Horregatik Jean Piagetek esan zuen bezala *“hurrek ez dute jolasten ikasteko, baizik eta jolasten dutelako ikasi egiten dute”*. Esaldi hauekin garbi geratzen da patioa denbora-espazio hezigarria izan behar denaren ekitea. Hortaz, helburu hori lortzen saiatu behar izatea.

Patioa, jolasteko tokia denez, bertan aurrera eraman behar den jolasa Carl Honoré aldarrikatu zuen bezalakoa izan beharko litzateke *“benetako jolasa espontaneo, bat-batekoa eta zalantzazkoa, ez dakiguna nora eramango gaituen, gainera jolastea ez da irabaztea edo galtzea”*. Horretaz gain Francesco Tonuccik dio umeek libreki jolastu behar dutela, modu horretan arriskuarekin topatzeko. Amaitzeko, autore honek dio, aldarrikatu egiten dudana jolas hezitzaileak espazio aniztasuna behar duela, jolasa eta ikaskuntza aberasgarriagoa izan

dadin, hortaz laneko laugarren puntuan azaldutako zonalde desberdinak egitearen arrazoia eta azaldutako estrategia desberdinak. Orokorrean jolaslekuan zonalde desberdinak egotea, ikasle guztien premiak eta gustuak kontutan izatea eragingo du patio aktiboagoa bilakatuz, haurren garapen integralari lagunduko diona.

Jolas orduetan ikasleen motrizitatea eta autonomia bultzatzea bilatu behar da, bai eta lagunen arteko interakzio eta komunikazioa, modu horretan elkarrekintza jolasak, elkarrekiko elkarrizketa, kooperazioa, intimitatea, errespetua eta mugimendua bermatzea lortuko dugu.

Aipatutako guzti hori lortzeko argi gelditu da GrAL honetan, gaur egungo patioetan eraldaketak egitea behar-beharrezkoa dela; horien artean, baloi guneak eta baloi gabeko guneak mugatzea, jolas kooperatiboak sustatzea, lasaitzeko zonak egotea, elementu eta joko motor desberdinak gehituz mugimendua areagotzea, naturazko guneak handitzea, jolas arriskutsua sartzeara...

Irakasleok aipatu izan diren onura guzti horiek kontuan hartu behar ditugu, haurrentzako jolas espazio osasuntsuak, erakargarriak, aktiboak eta guztiontzako egokiak sustatzeko (Chaves, 2013). Ondo egituratutako patio batek jolasa, motrizitatea eta interakzioa estimulatu egiteaz gain, bitxikeria piztu eta autoestimua eta osasun fisikoa hobetzen ditu baita ere.

Begiak zabaldu ditzagun, patioen egungo errealitatea zein den konturatzeko eta horri aurre egiteko. Ez ditugu inoiz patio hezigarriagoak motrizitatearen eskutik lortuko ez baldin badugu guztiok elkarlanean eta modu parte-hartzailean aritzen. Hezkuntza komunitate guztia bat egingo dugu eta haurrei hitza emango diegu, hori bai da bide bakarra gure helburua lortzeko.

“Borroka dezagun motrizitatearen eskutik patio hezigarriagoak lortzeko!”

BIBLIOGRAFIA

Iturri zientifikoak:

- Andrés, R. (2017). *El patio escolar basado en la pedagogía Montessori* (Master bukaerako lana). (UVic-UCC). Honako web- gunetik berreskuratua [2019/05/24]: http://repositori.uvic.cat/bitstream/handle/10854/5450/trealu_a2017_andres_raquel_patio.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Beate Hansen, E. (2010). *Scaryfunny. A Qualitative Study of Risky Play Among Preschool Children* (Doktoretza). Norwegian University of Science and Technology. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/02]: https://www.researchgate.net/publication/236986868_Scaryfunny_A_qualitative_study_of_risky_play_among_preschool_children
- Chaves, A. L. (2013). Una mirada a los recreos escolares: El sentir y pensar de los niños y niñas. *Revista Electrónica Educare*, 17(1), 67-87. Recuperado de <http://www.revistas.una.ac.cr/index.php/EDUCARE/issue/current>
- Cols, C., eta Fernández, P. (2016). Educación, tierra y naturaleza. In *Educación, tierra y naturaleza*. Barcelona: Asociación de Maestros Rosa Sensat. (Kongresua). Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/29]: <https://elnousafareig.files.wordpress.com/2016/12/educacion-y-comunidad.pdf>
- Contreras, O.R., Prieto, A., Leon, M.P., eta Infantes, A. (2018). El peso de la educación física en el horario escolar. *Didacticae*, 3, 91-101. Honako web- gunetik berreskuratua [2019/04/27]: <http://revistes.ub.edu/index.php/didacticae/article/view/21766/23451>
- Auzmendi, J.M., Azpirotz, A., Gorostitzu, A., Mendizabal, A. eta Muñoa, A. (2018). Eskolako patioa. Ikasle guztiei leku egin nahian. *Hik Hasi*, 224, 11-17. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/27]: http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2019/02/1550071841-224.HikHasi.pdf
- Frost, J. (2012). Evolution of American Playgrounds. In *Scholarpedia* 7(12):30423. Austin (Texas). Honako web- gunetik berreskuratua [2019/06/14]: http://www.scholarpedia.org/article/Evolution_of_American_Playgrounds
- Garay, B., Vizcarra, M., eta Ugalde, A. (2017). Los recreos, laboratorios para la construcción social de la masculinidad hegemónica. *Teoría De La Educación. Revista Interuniversitaria*, 29, 185-209. Honako web- gunetik berreskuratua [2019/05/24]: <http://dx.doi.org/10.14201/teoredu292185209>

- Grove, J. (2017). Ninja warrior girl is physical literacy in action. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/30]: <https://activeforlife.com/ninja-warrior-girl/>
- Hik Hasi. (2016). Jolas sinbolikoa, adimenaren oinarri. *Hik Hasi*. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/06/03]: <http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20160808/jolas-sinbolikoa-adimenaren-oinarri>
- Irurtzun, M. eta Huarte, X. (2009). *Baratzetik mundura*. Honako web- gunetik berreskuratua [2019/05/30]: <https://issuu.com/xabihuasan/docs/baratza>
- Lafuente, A., eta Horrillo, P. (d.g.) *Como intervenir un patio escolar*. La aventura de aprender. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/01]: <http://laaventuradeaprender.intef.es/documents/10184/67760/como-intervenir-un-patio-escolar>
- Larramendi, I. (2016). Eskoletako jolastokiak eta genero-rolak: Diseinuaren eragina genero-nortasunaren eraikuntzan. *Aldiri Arkitektura eta Abar*, 3(27), 18-21. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/15]: http://www.unibertsitatea.net/otarrea/ingeniaritza-eta-teknologia-1/arkitektura/27_larramendi_eskoletako-jolastokiak-eta-genero/at_download/file
- Larrañaga, L. (d.g.). *Kirol Eskalada (6. Unitate Didaktikoa)* (or. 1). Honako web- gunetik berreskuratua [2019/06/05]:<https://es.scribd.com/document/374518837/KIROL-ESKALADA>
- Lawson Foundation. (2019). *Outdoor Play InfoGraphic* (or. 10). Canada: The Lawson Foundation Outdoor Play Strategy. Honako web- gunetik berreskuratua [2019/04/30]: <https://es.scribd.com/document/294928793/Lawson-Foundation-Outdoor-Play-InfoGraphic#scribd>
- Mazón, V., eta García, M. (2005). Los recreos más divertidos. *Retos. Nuevas Tendencias En Educación Física, Deporte Y Recreación*, 8, 32-42. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/16]: <http://www.redalyc.org/pdf/3457/345732273005.pdf>
- Murillo, B., Julián, J. A., García-González, L., Abarca-Sos, A. eta Zaragoza, J. (2014). Influencia del género y de los contenidos sobre la actividad física y la percepción de competencia en Educación Física. *RICYDE Revista Internacional de Ciencias del Deporte*, 36, 131-143. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/16]: <http://dx.doi.org/10.5232/ricyde2014.03604>
- García, P., Pezarquitectos, SLP., Ruiz, P., Díaz, M., eta de Blas, M. (2017). *Micos: guía de diseño de entornos escolares*. Madril. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/30]: https://www.researchgate.net/profile/Lucila_Urda/publication/326059473_GUIA_DE_DISEN

[O DE ENTORNOS ESCOLARES/links/5b35efafa6fdcc8506db7d97/GUIA-DE-DISENO-DE-ENTORNOS-ESCOLARES.pdf](https://www.repositorio.us.es/bitstream/handle/10261/111111/1/GUIA-DE-DISENO-DE-ENTORNOS-ESCOLARES.pdf)

- Saldaña, D. (2018). Reorganizar el patio de la escuela, un proceso colectivo para la transformación social. *Hábitat y Sociedad*, 11, 185-199. Universidad de Sevilla. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/02/09]: <http://dx.doi.org/10.12795/HabitatySociedad.2018.i11.11>
- Serra, J. (2014). *Análisis de la práctica de actividad física durante el recreo escolar en adolescentes de la provincia de Huesca*. 31(4): 257-262. Barbastro (Huesca): IES Martínez Vargas eta Zaragozako Unibertsitatea. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/02/09]: http://archivosdemedicinadeldeporte.com/articulos/upload/or04_162.pdf
- Sotoca, P. (2017). Nueva expansión del juego de mesa creada para educación física: “timeline ef & sports”. *Emásf, Revista Digital De Educación Física*, 48, 49-55. Honako webgunetik berreskuratua [2018/10/23]: https://emasf.webcindario.com/Nueva_expansi3n_del_juego_de_mesa_creado_paraEF_Timeline_EF
- Vives, M. (2014 a). Eskola patioak eta generoaren arteko harremanak. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/15]: <https://projekta.es/eskola-patioak-eta-generoaren-arteko-harremanak/>
- Vives, M. (2014 b). elgoiBERDIN: Jolasa eta generoa Elgoibarko kaleetan. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/15]: <https://projekta.es/elgoiberdin-jolasa-eta-generoa-elgoibarko-kaleetan/>
- Vives, M., eta Galarraga, P. (2015). Eskoletako kanpo espazioak eta hezkidetzak. *M8 Monografikoa*, 20-23. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/16]: https://issuu.com/stee-eilas/docs/m8monografikoa_df
- Vizcarra, M. (2008). *Gorputz Adierazpena Lehen Hezkuntzan*. [Ebook].
- Wortham, S., eta Frost, J. (1990). *Playgrounds for Young Children: National Survey and Perspectives*. (or. 158, 159). Honako web-gunetik berreskuratua [2019/06/14]: <https://files.eric.ed.gov/fulltext/ED326492.pdf>

Programak

- Antolín, M., Gil, V., Olaizola, M., Navarro, V., Iglesias, I., eta Rodríguez, A. et al. (2017). *Elkartoki*. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/27]: https://wearetipi.co/public/docs/patioa_denona_da.pdf
- CEIP Sanjurjo de Carricarte. (2019). *Proceso participativo O Noso Patio*. Sanjurjo de Carricarte. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/23]: <http://www.coruna.gal/participacion/es/procesos-participativos/o-noso-patio/o-noso-patio-documentacion>
- García, P. (2016). *Proyecto MICOS. mREG madrid REGENERA*. Madrid. Honako web gunetik berreskuratua [2019/05/15]: <http://madridsalud.es/wp-content/uploads/2016/04/MICOS-Regeneracion-urbana.pdf>
- Oliberi, I., eta Ormazabal, P. (1998). *Eskola Baratza, 1*, 1-10. CEIDA. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/30]: https://www.berrigasteiz.com/site_argitalpenak/docs/800_ingurumena/8002004001e_eskola_baratza_e.pdf
- OPS eta OMS. (2019). *Programas durante el recreo escolar pueden aumentar los niveles de actividad física en los niños*. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/20]: https://www.paho.org/hq/index.php?option=com_content&view=article&id=9289:2014-recess-programs-can-boost-activity-levels-school-age-children&Itemid=1926&lang=es

Berriak

- Barry, E. (2018). In Britain's Playgrounds, "Bringing in Risk" to Build Resilience. *The New York Times*. Retrieved from <https://www.nytimes.com/2018/03/10/world/europe/britain-playgrounds-risk.html>
- Brussoni, M. (2015). Risky outdoor play positively impacts children's health: UBC study. *The University Of British Columbia News*. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/29]: <https://news.ubc.ca/2015/06/09/risky-outdoor-play-positively-impacts-childrens-health-ubc-study/>
- Fernández, M., eta Eizaguirre, N. (2014). Lunes, miércoles y viernes sin fútbol en el patio. *Elcorreo.Com*. Retrieved from <https://www.elcorreo.com/alava/20140106/mas-actualidad/sociedad/lunes-miercoles-viernes-futbol-201401051738.html>

- Gallastegui, I. (2018). La igualdad llega a los patios de colegio: ¿es el fin del fútbol en los recreos?. *El Correo*. Honako web- gunetik berreskuratua [2019/05/16]: <https://www.elcorreo.com/sociedad/igualdad-llega-patios-20180326164849-nt.html>
- Giménez, M. (2018 a). El patio del colegio, donde se empiezan a sembrar las desigualdades de género. *Eldiario.es*. Honako web- gunetik berreskuratua [2019/05/15]: https://www.eldiario.es/cv/colegio-empieza-sembrar-desigualdad-genero_0_820668173.html
- Giménez, M. (2018 b). Patios coeducativos para combatir la 'dictadura' de la pelota en los colegios. *Eldiario.es*. Honako web- gunetik berreskuratua [2019/05/15]: https://www.eldiario.es/cv/Patios-coeducativos-combatir-dictadura-colegios_0_817868318.html
- Mas, J. (2019). Los expertos apuestan por eliminar la pelota de los patios para combatir la desigualdad entre los escolares. *INFORMACIÓN*. Honako web- gunetik berreskuratua [2019/05/20]: <https://www.diarioinformacion.com/elche/2019/05/15/expertos-apuestan-eliminar-pelota-patios/2148548.html>
- Morán, E. (2018). Un proyecto dinamiza el recreo escolar. *Huelva Información*. Honako web- gunetik berreskuratua [2019/04/30]: https://www.huelvainformacion.es/huelva/proyecto-recreo-escolar-alumnos_0_1304570059.html
- Osler, J. (2016). Playgrounds begin to focus on riskier play. *CBC News*. Honako web- gunetik berreskuratua [2019/04/30]: <https://www.cbc.ca/news/canada/playgrounds-risky-play-1.3512559>
- Setién, M. (2017). La hora de patio debería ser considerada una asignatura más. *ABC educación*. Honako web- gunetik berreskuratua [2019/07/02]: https://www.abc.es/familia/educacion/abci-hora-patio-deberia-considerada-asignatura-mas-201703131355_noticia.html
- Torres, J.A. (2019). El colegio público que ha desterrado la pelota. *El País*. Honako web- gunetik berreskuratua [2019/05/20]: https://elpais.com/sociedad/2019/05/10/actualidad/1557488263_130279.html

Blogak

- Biarge, P. (2016). El patio del colegio. Cuaderno de maestra [Blog]. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/05]: <http://www.cuadernodemaestra.es/el-patio-del-colegio/>
- Añadir agua a la zona de juego. (2015). Añadir agua a la zona de juego. Tierra en las manos [Blog]. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/28]: <http://www.tierraenlasmanos.com/anadir-agua-a-la-zona-de-juego/>
- ¿Cómo debería ser el patio de la escuela?. (2016). ¿Cómo debería ser el patio de la escuela?. Tierra en las manos [Blog]. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/28]: <http://www.tierraenlasmanos.com/reformar-patio-escuela-en-espacio-educativo/>
- Clemente, Y. (2016). Ideas para crear patios de escuelas que inviten a jugar libremente y aprender. Rejuega y disfruta jugando [Blog]. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/06/03]: <http://rejuega.com/juego-aprendizaje/juego-educativo/ideas-para-crear-patios-de-escuelas-que-inviten-a-jugar-libremente-y-aprender/>
- Clemente, Y. (2017). Cómo convertir un patio gris en un patio con color, juego y aprendizaje. Rejuega y disfruta jugando [Blog]. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/05]: <http://rejuega.com/juego-aprendizaje/juego-educativo/como-convertir-un-patio-gris-en-un-patio-con-color-juego-y-aprendizaje/>
- “Elesapiens”. (2018). Ideas brillantes para transformar el patio de tu escuela. Elesapiens´Blog [Blog]. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/28]: <https://www.elesapiens.com/blog/ideas-brillantes-para-transformar-el-patio/>

Web- guneak

- Bolt, S. (2019). The Children’s Play Policy Forum A collective voice for children’s play. In *Play England Freedom to play*. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/30]: <http://www.playengland.org.uk/play-builds-children/>
- Drinks, T. (2018). Conozca el video del camino sensorial que se ha popularizado en Internet. In *Understood dificultades de aprendizaje y atención*. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/28]: <https://www.understood.org/es-mx/community-events/blogs/in-the-news/2018/09/07/watch-the-video-of-the-sensory-path-the-internet-has-fallen-in-love-with>

- El Safareig. (2018). El jardí a la vida quotidiana: EBM “Els Tabalets” i “Xiquets i Xiquetes” de Valls. In *El Nou Safareig*. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/29]: <https://elnousafareig.org/2018/07/28/el-jardi-a-la-vida-quotidiana-ebm-els-tabalets-i-xiquets-i-xiquetes-de-valls/>
- El Safareig. (2016). Cabana de palla. In *El Nou Safareig*. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/25]: <https://elnousafareig.org/2016/10/16/cabana-de-palla/>
- Grove, J. (2018). How to create a “risky play” backyard playground. In *Active for live, raising physically literate kids*. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/30]: <https://activeforlife.com/create-a-risky-playground/>
- LIQE Arquitectura. (2019). Espacio de juego, infancia y espacio público. In *Madera y construcción*. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/20]: <https://maderayconstruccion.com/espacio-de-juego-infancia-y-espacio-publico/>
- Schwartz, A. (d.g.). La relación de los niños en el patio del recreo. Cómo ayuda el colegio a la socialización del niño. In *Conmishijos*. Honako web gunetik berreskuratua [2019/06/17]: <https://www.conmishijos.com/educacion/colegio/la-relacion-de-los-ninos-en-el-patio-del-recreo/>
- Segura del Pozo, J. (2017). El patio de mi escuela es particular. In *Salud Pública y otras dudas*. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/15]: <https://saludpublicayotrasdudas.wordpress.com/2017/07/08/el-patio-de-mi-escuela-es-particular/>
- Soto, G. (2017). ¡¡¡Qué mole, qué mole, el patio de mi cole!!! . Decide Madrid. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/27]: <https://decide.madrid.es/presupuestos/presupuestos-participativos-2017/proyecto/2820>
- The Community Design Collaborative. (2016). Risky Business: The dangers of playgrounds that are too safe. The Community Design Collaborative [Blog]. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/05/27]: <https://cdesignc.org/blog/2016/08/15/risky-business>
- Web del Maestro CMF, (2017). 45 frases y reflexiones de Daniel Goleman y 20 de Francesco Tonucci. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/07/02]: <http://webdelmaestrocmf.com/portal/20-frases-reflexiones-daniel-goleman-20-francesco-tonucci/>

Bideoak eta grabaketak

- AMPA Abendaño. (2018). *Abendatokiko bideoa / El vídeo de Abendatoki* [Bideoa]. Vitoria Gasteiz. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/27]: https://www.youtube.com/watch?time_continue=2&v=RnWwK9tUmBg
- Cadena Ser. (2019). *Este profesor de educación física lanzaroteño está revolucionando los recreos* [Radio]. Lanzarote. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/18]: https://cadenaser.com/emisora/2019/03/12/ser_lanzarote/1552399575_072312.html
- Fleming herri eskola. (2017). *Fleming eskolan Jolaslekua berria egin dugu!* [Bideoa]. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/28]: <http://flemingvillabona.blogspot.com/2017/11/fleming-eskolan-jolaslekua-berria-egin.html>
- Radio Vitoria. (2019). *Entrevista a nuestro profesor Igor García en Radio Vitoria sobre los patios igualitarios* [Radio]. Vitoria-Gasteiz. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/04/16]: <https://colegiosanprudencio.net/es/noticias/2019/03/13/entrevista-a-igor-garcia-en-radio-vitoria-sobre-los-patios-inclusivos>

Bestelakoak

- Murua, M. (2007). 1. Gaia: inguru sozial eta kulturalaren ezaguera haur hezkuntzan eta bere garrantzia. Gizarte eta kultur ingurunearen ezaguera H.H. 2. Kurtsoa. Honako web-gunetik berreskuratua [2019/06/17]: [https://www.google.es/search?q=Murua,+M.+\(2007\).+1.+Gaia%3A+inguru+sozial+eta+kultur+alaren+ezaguera+haur+hezkuntzan+eta+bere+garrantzia.&ie=&oe=#](https://www.google.es/search?q=Murua,+M.+(2007).+1.+Gaia%3A+inguru+sozial+eta+kultur+alaren+ezaguera+haur+hezkuntzan+eta+bere+garrantzia.&ie=&oe=#)